



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

2025eko
Ordenantza fiskalak




AURKIBIDEA

KUDEAKETAKO, ZERGA-BILKETAKO ETA IKUSKAPENEN ORDENANTZA FISKAL OROKORRA	4
I. TITULUA. TRIBUTU ORDENAMENDUAREN XEDAPEN OROKORRAK	4
II. TITULUA TRIBUTUAK	6
1. KAPITULUA Xedapen orokorrak	6
II. KAPITULUA ZERGAPEKOAK	7
III. KAPITULUA ZERGA-ERANTZUKIZUNA	8
IV. KAPITULUA ZERGEN ARLOAN JARDUTEKO GAITASUNA	8
V. KAPITULUA EGOITZA FISKALA	8
VI. KAPITULUA OINARRIA	9
VII. KAPITULUA SALBUESPENAK ETA HOBARIAK	10
VIII. KAPITULUA ZERGA-ZORRA	11
III. TITULUA – TRIBUTUEN APLIKAZIOA	14
I. KAPITULUA – Printzipio orokorrak	14
II. KAPITULUA - ZERGEN ARLOKO JARDUKETA ETA PROZEDUREI BURUZKO ARAU OROKORRAK	15
III. KAPITULUA - ZERGAK KUDEATZEKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK	17
IV. KAPITULUA – IKUSKAPENEN JARDUERAK ETA PROZEDURAK	17
V KAPITULUA – ZERGA-BILKETAKO JARDUERAK ETA PROZEDURAK	18
IV. TITULUA – ZEHATZEKO AHALA	21
V. TITULUA – ADMINISTRAZIO-BIDEAN EGINDAKO BERRIKUSPENA	21
VI TITULUA - ORDENANTZAK APLIKATZERAKOAN BALIATUKO DEN UDALERRIKO BIDE PUBLIKOEN SAILKAPENA	22
XEDAPEN GEHIGARRIAK	22
LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA	22
BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	22
AZKEN XEDAPENA	23
1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA	24
I. XEDAPEN OROKORRAK	24
II. IZAERA, ZERGA-EGITATEA ETA BALDINTZA EZ LOTESLEAK	24
III. SALBUESPENAK	25
IV. SUBJEKTU PASIBOA	26
V. ZERGA-OINARRIA	27
VI. KUOTA, SORTZAPENA ETA ZERGALDIA	28
VII. ZERGAREN KUDEAKETA	33
AZKEN XEDAPENA	34
2. EKONOMIA-JARDUEREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA	35
I. XEDAPEN OROKORRAK	35
II. IZAERA ETA EGITATE ZERGAGARRIA	35
III. EZ LOTESLEAK	35
IV. SALBUESPENAK	36
V. SUBJEKTU PASIBOAK	37
VI. ZERGA-KUOTA	37
VII ZERGA-ALDIA ETA SORTZAPENA	39
VIII. ZERGA KUDEATZEA	40
3. TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA	47
I. XEDAPEN OROKORRAK	47
II. EGITATE ZERGAGARRIA	47
III.- SALBUESPENAK HOBARIAK	47
IV. SUBJEKTU PASIBOAK	48
V. KUOTA	48
VI. HOBARIAK	49
VII. ZERGA-ALDIA ETA SORTZAPENA	50
VII. KUDEAKETA	51
4. HIRIKO LURSAILEN BALIO-HAZKUNDEAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA	53
I. XEDAPEN OROKORRAK	53
II. EGITATE ZERGAGARRIA	53
III. EZ LOTESLEAK	53
IV. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK	54
V. SUBJEKTU PASIBOAK	56



VI. OINARRI ZERGAGARRIA	56
VII. ZERGA-KUOTA	58
VIII. ZERGA SORTZEA	58
IX. KUDEAKETA	59
X. LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA	60
ERANSKINAK	61
I. ERANSKINA	61
II. ERANSKINA	62
5. ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINeko ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA	63
I. XEDAPEN OROKORRAK	63
II. IZAERA ETA EGITATE ZERGAGARRIA	63
III. EZ LOTESLEAK	64
IV. SUBJEKTU PASIBOAK	64
V. OINARRI ZERGAGARRIA	64
VI. TRIBUTU KUOTA	64
VII. HOBARIAK	64
VIII. SORTZAPENA	66
IX. KUDEAKETA	66
6. KONTRIBUZIO BEREZIEN ORDENANTZA OROKORRA	68
I. XEDAPEN OROKORRAK	68
II. EGITATE ZERGAGARRIA	68
III. SUBJEKTU PASIBOA	68
IV. OINARRI ZERGAGARRIA	69
V. KUOTA	69
VI. ZERGA-SORTZAPENA	70
VII. ZERGAPETZEA ETA ORDAIN-AGINDUA	71
VIII. HERRITARREN LANKIDETZA	71
7. ZERBITZU PUBLIKOEN ETA JARDUEREN TASAK ARAUTZEKO ORDENANTZA	73
I. XEDAPEN OROKORRAK	73
II. IZAERA ETA EGITATE ZERGAGARRIA	73
III. SUBJEKTU PASIBOA	73
IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK	73
V. OINARRI ZERGAGARRIA	74
VI. KUOTA	74
VII. SORTZAPENA	74
VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRU-SARRERA	74
8. UDAL-JABETZA PUBLIKOA OKUPATZEKO TASAK ARAUTZEKO ORDENANTZA	93
II EGITATE ZERGAGARRIA	93
III SUBJEKTU PASIBOA	93
IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK	93
V OINARRI ZERGAGARRIA	93
VI KUOTA	93
VII. SORTZAPENA	94
VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRU-SARRERA	94
10. BIDE PUBLIKOAN IBILGAILUAK IBILGETU, LOTU ETA HANDIK KENDU ETA HAIK ZAINTEAGATIKO TASAK ARAUTZEKO ORDENANTZA	104
XEDAPEN GEHIGARRIA	106
AZKEN XEDAPENA	106



KUDEAKETAKO, ZERGA-BILKETAKO ETA IKUSKAPENENKO ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

I. TITULUA. TRIBUTU ORDENAMENDUAREN XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Ordenantza honen xedea da, Durangoko Udalaren tributu eta zuzenbide publikoari dagozkion gainerako diru-sarreraren kudeaketa, zerga-bilketa, xehapena eta ikuskapeneko prozedurak arautzea.

2. Artikulua

Bizkaiko Foru Aldundiaren Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrak arautuko ditu tributuen eta zuzenbide publikoari dagozkion gainerako diru-sarreraren kudeaketa, zerga-bilketa, xehapena eta ikuskapena; betiere, Toki Ogasunen 9/2005 Foru Arauak aurreikusten dituen berezitasunak aintzat izanik, eta zerga arloko xedapenak dituzten gainontzeko foru arauak kontuan harturik. Ordenantzan aurreikusten ez den guztirako, ordezeko izaeraz, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2/2005 Zergei buruzko Foru Arau Orokorra garatzeko agindutako lege-xedapenak aplikatuko dira (ZFAO hemendik aurrera).

3. Artikulua

Ordenantza honek arautzen dituen esparruei dagokienez, Udalak bere eskumenak erabiliko ditu Durangoko udalerrri osoan Ordenantza indarrean sartzeko denetik eta berau aldatu edo bertan behera utzi arte.

Udalerritik kanpoko zuzenbide publikoko diru-sarrerari dagozkien ikuskatze edo diru-bilketa alorretako jarduerak Udal honek bideratu ahalko ditu Bizkaiko Lurralde Historikoko esparruari dagokionez. Gainerako kasuetan, ezarrita dauden lankidetzarako formulak erabili ahalko dira, edo gerora ezarri ahalko direnak.

4. Artikulua

Tributu-kredituen eta udaleko zuzenbide publikoari dagozkion gainerako diru-sarreraren kudeaketa, Udalak berak egingo du.

Agindu hauek betearazteko organoak dira:

1.- Alkatetza:

Alkatearen egitekoak zuzenbide publikoaren diru-sarrerari dagokienez:


- a) Baimena ematea entitate laguntzaile moduan.
- b) Informazioa eskatzea, finka edo lokaletan sartzeko baimena ematea, kautelazko neurriak hartzea.
- c) Ordainketa espezie bidez onartzea.
- d) Likidazioak onartzea eta anulatzea.
- e) Berraztertzearen errekursoak ebatzea.
- f) Errezibo okerrak itzultzearen ebatzea.
- g) Onura fiskalak aitortzearen eskaria ebatzea.
- h) Bermeak onartzearen ebatzea.
- i) Bermeak burutzearen buruzko ebatzea.
- j) Onura fiskalak aitortzea.
- k) Luzapenak edo zatiketak ebatzea, zenbateko printzipala 8.000 € edo gehiago denean.
- l) Beste organoei legez ez dagozkion betebeharrak burutzea.

Alkateak zinegotziengan delegatu ditzake egoki deritzon egitekoak.

2.- Diruzaintza:

Diruzaintzaren egitekoak hauexek dira:

- a) Toki-erakundeko bere organoko titulartasuna eta zuzendaritza.



- b) Toki-erakundearen funtsak, balioak eta ondorioak erabili eta zaintzea, indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta bereziki:
1. Diruzaintzako planak, egutegiak eta aurrekontuak eratzea, eta, horretarako, erakundeak bere betebeharrak garaiz betetzeko dituen diru-kopuruak denboran zehar banatzea, lege ezarritako lehentasunak kontuan hartuta eta Udalbatzak hartutako erabakien arabera. Akordio horietan, hornitzaileei ordaintzeko aurreikuspenari buruzko informazioa jasoko da, bermatzeko bete egingo dela berankortasunari buruzko araudian ezarritako gehieneko epea.
 2. Funtsen, balioen eta ondorioen zaintza antolatzea, Presidentziak ezarritako jarraibideen arabera.
 3. Kobrantzak eta ordainketak egitea, indarrean dagoen araudia, Funtzak Xedatzeko Plana eta Presidentziaren jarraibideak jarraituta. Horrez gain, ordainketak agintzen dituenarekin eta kontu-hartzailearekin batera, kasuan kasuko banku-kontuen kontra ordainketa materialak baimentzea.
 4. Kontaketa aktak sinatzea.
- c) Toki-erakundearen betebeharrak ordaintzeko lege ezarritako epeak betetzeari buruzko berankortasunaren araudiak zehazten dituen txostenak egitea.
- d) Toki-erakundeko finantza-kudeaketako zerbitzuak zuzentzea, eta zorpetze-eragiketarik adosteko edo aldatzeko proposamena egitea eta berau kudeatzea, Udalbatzako organo eskudunen jarraibideen arabera.
- e) Toki-erakundearen hornitzaileei ordaintzeko batz besteko epea, beste estatistika datu batzuk eta kudeaketa-adierazleak prestatzea eta egiaztatzea. Gardentasunari buruzko legeria betetzeko, eta aurrekontu-egonkortasunari, finantza-iraunkortasunari, gastu publikoari eta berankortasunari buruzko helburuak betetzeko, datu horiek beste administrazio batzuei eman behar zaizkie edo webgunean edo erakundearen beste komunikabideetan argitaratu behar dira, betiere datuok diruzaintzaren berezko eginkizunei badagozkie.

Bestalde, hauexek dira diruzaintzaren egitekoak zuzenbide publikoaren diru-sarrereri dagokienez:

- a) Parte batek eskaturiko konpentsazioa ebaztea.
- b) Kobraezinak edo kreditu kobraezinak deklaratzeko.
- c) Premiamenduzko probidentzia agintzea.
- d) Bahikuntza-probidentzia agintzea.
- e) Bahitutako ondasunen gordetzailea izatea
- f) Ondasun bahituen besterentzea ebaztea.
- g) Kobrantzak egitea.
- h) Ofiziozko konpentsazioa onartzea.
- i) Luzapenak edo zatiketak ebaztea, zenbateko printzipala 8.000 € edo gutxiago den.

3.- Diru-bilketako teknikaria:

- a) Premiamenduzko probidentzia jakinaraztea
- b) Premiamenduzko diligentziak agintzea
- c) Bahitzeko anotazioak eskatzea jabetza-erregistroari
- d) Luzapen edo zatiketei buruzko informazioa ematea
- e) Diruzainak delegaturiko betebeharrak bideratzea
- j) Diruzainak delegaturiko betebeharrak bideratzea.



5. artikulua

1. Zerga-arauak Kode Zibilaren 3. artikuluaen 1. apartatuan ezarritakoaren arabera interpretatuko dira.
2. Ordenantzetan ezarritako zehaztapenak ulertzeko euren zentzu juridikoa, teknikoa edo ohikoa hartuko da aintzat, unean dagokionaren arabera.
3. Zerga-betebeharrak egindako egitatearen, egintzaren edo negozioaren izaera juridikoaren arabera eskatuko dira, interesdunek eman dioten itxura edo izena kontuan hartu gabe. Horren baliozkotasuna uki dezaketen akatsak alde batera utziko dira.
4. Ez da analogia onartuko, egitate zergagarriak, salbuespenak edo hobariak horien baldintza hertsietatik kanpo hedatzeko.
5. Artikulu honetan arautzen den itzurpenaren aurkako klausula inguruabar jakin batzuk betetzen dituzten egintza edo negozioen bidez zerga-egitate osoa edo beraren zati bat ekiditen denean edo zerga-oinarria nahiz zerga-zorra gutxitzen denean aplikatu ahal izango da. Hona hemen inguruabar horiek:
 - a) Banaka nahiz taldeka kontuan hartuta, izan den emaitza lortzeko artificio handikoak edo desegokiak izatea.
 - b) Horien erabilerak zerga-aurrezkia eta ohiko edo norberaren egintzek zein negozioek sortutako ondoreak ez beste ondorio juridiko edo ekonomiko garrantzitsurik ez izatea.
6. Zerga Administrazioak aurreko idatz-zatian arautzen den kasua gertatu dela adierazteko, foru arau honetako 163. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar da.
7. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren likidazioetan zergak eskatzeko, ohiko edo norberaren egintza zein negozioei dagokien araua aplikatuko da edo lortutako zerga-onurak ezabatuko dira, eta berandutza-interesak likidatuko dira. Beharrezkoa balitz, 2/2005 Foru Arauko 200 bis artikuluan jasotako zehapenak aplikatuko dira.
8. Simulazioa gertatzen den egintzetan edo negozioetan, alderdiek benetan egindako zerga-egitatea kargapetuko da.
9. Simulazioa gertatu dela Zerga Administrazioak adieraziko du likidazio-egintzan; nolana ere, kalifikazio horrek zergen arloan baizik ez ditu izango ondoreak.
10. Simulazioaren ondorioz egin beharreko erregularizazioan berandutza-interesak eskatuko dira, eta bidezkoa denean zehapena ere bai.
11. 2/2005 Foru Arauko 6.artikulutik 15.era xedatutakoa aplikatuko da, ordenamendu juridikoaren iturriari, Zergen Foru Arauaren erreserbari, zerga-arauen aldi baterako aplikazioari eta arau horien interpretazioari, kalifikazioari eta integrazioari dagokienez.

II. TITULUA TRIBUTUAK

1. KAPITULUA Xedapen orokorrak


6. artikulua

Tributuak sarrera publikoak dira, hain zuzen ere herri administrazioek foru arau batek zergak ordaindu beharrarekin lotzen duen zerga-egitate bat egiteagatik eskatzen dituzten diru-prestazioak; beraien helburu nagusia gastu publikoei eusteko beharrezkoak diren kopuruak lortzea da. (2/2005 Foru Arauaren 16. artikulutik 19.ra, tributuen inguruko artikulua).

1. ATALA. Zerga-egitatea eta sortzapena

7. artikulua

1. Egitate zergagarria zerga bakoitza egituratzeko dagokion foru-arauak edo ordenantza fiskalak finkatzen duen aurrekontua da, eta, gauzatzen denean, zerga-betebeharra sorrarazten du.
2. Zerga-arauek eta, kasuan kasu, udaleko ordenantza fiskalek, egitate zergagarriaren zehaztapena osatu ahal izango dute, loturarik gabeko baldintzak aipatuz (2/2005 Foru Arauaren 20. artikulua).



8. artikulua

1. Zergaren sortzapena zerga-egitatea gauzatzen eta zergabetebehar nagusia sortzen denean gertatzen da, zerga bakoitzari buruzko foru arauak beste uneren batean gertatzen dela ezarri ezean.
2. Sortzapen egunak zehazten ditu zerga-betebeharra eratzeko kontuan hartu beharreko inguruabarrak, zerga bakoitzari buruzko foru arauak besterik ezarri ezean.
3. Zerga bakoitzaren arautegiak sartu beharreko kuota edo kopurua (edo zati bat) zerga sortzen den unean ez beste batean eskatuko dela ezarri ahal izango du.

II. KAPITULUA ZERGAPEKOAK

9. artikulua

1. Zergapekoak dira zerga-arautegiaren arabera zerga-betebeharrak (materialak nahiz formalak) dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak eta erakundeak. Zergapekoak izango dira, halaber, elkarri laguntzeari buruzko araudiaren arabera zerga-betebeharrak ezarri ahal zaizkienak.
2. Besteak beste, hauexek dira zergapekoak:
 - a. Subjektu pasiboak.
 - b. Konturako ordainketak egin behar dituztenak.
 - c. Zergen ondorioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak bete behar dituztenak.
 - d. Oinordekoak.
 - e. Zergen arloko salbuespenen, itzulketen edo hobarien onuradunak, subjektu pasiboak ez badira.
3. Zergapekoak izango dira (hala ezartzen den foru arauetan) jarauntsi banatu gabeak, ondasun erkidegoak eta, nortasun juridikorik ez dutela, ekonomi batasuna edo ondare bereizia osatzen duten eta zergapetu ahal diren gainerako erakundeak.
4. Halaber, ZFAO Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 40. artikuluan aipatzen diren erantzuleak ere zergapekoak izango dira.
5. Obligazio baten aurrekontu berean zergapeko bat baino gehiago pilatzen bada, Udalaren aurrean solidarioki behartuta geldituko dira prestazio guztiak betezera, salbu foru arau bidez estresuki besterik xedatzen bada.

Foru arau bidez aurreko paragrafoan ezarritakoez gainera beste solidaritate-kasu batzuk ezarri ahal izango dira.


10. artikulua

1. Subjektu pasiboa zerga-betebehar nagusia zein hari lotutako betebehar formalak ere bete behar dituen zergapekoa da, dela zergadun gisa, dela haren ordezkio gisa. Tributu kuota beste zergadun batzuei jasanarazi behar dienak ez du subjektu pasiboaren izaera galduko, salbu zerga bakoitzaren foru arauak besterik ezartzen badu.
2. Zergaduna zerga-egitatea egiten duen subjektu pasiboa da.
3. Zergadunaren ordezkioa da Foru Arauan ezarritakoaren arabera zerga-betebehar nagusia eta hari datxzekion betebehar formalak zergadunaren ordezkio bete behar dituen subjektu pasiboa.

Ordezkoak ordaindutako zerga-betebeharren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari, foru arau bidez besterik ezarri ezean.

11. artikulua

Subjektu pasiboaren posizioa, zerga-betebeharraren elementu gisa, ezin izango da aldatu partikularren egintza edo hitzarmenen bidez, eta egintza edo hitzarmen horiek ez dute ondorioz izango Administrazioan, haren ondorio juridiko-pribatuei kalterik egin gabe.



12. artikulua

Pertsona fisikoaren oinordekoen kasuan, aintzat hartuko da 2/2005 Forua Arauaren 38. artikulua ezarritakoa.

Pertsona juridiko eta nortasunik gabeko erakundearen oinordekoen kasuan, aintzat hartuko da 2/2005 Forua Arauaren 39. artikulua ezarritakoa.

III. KAPITULUA ZERGA-ERANTZUKIZUNA.

13. artikulua

Zerga-erantzukizunari dagokionez aintzat hartuko da 2/2005 Foru Arauaren 40. artikulua ezartzen duena eta, halaber, 178. artikulutik 182.rena esaten dena.

Erantzukizun solidarioari dagokionez aintzat hartuko da 2/2005 Foru Arauaren 41. artikulua ezartzen duena, eta erantzukizun subsidiarioari dagokionez, aintzat hartuko da aipatutako arauaren 42. artikulua ezartzen duena.

IV. KAPITULUA ZERGEN ARLOAN JARDUTEKO GAITASUNA

14. artikulua


Zuzenbidearen arabera duten pertsonen gainera, adingabeek eta desgaitasuna duten pertsonen ere baidute zergen arloan jarduteko gaitasuna. Horrelakoetan ez dute guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza edo defentsa judiziala duen pertsonaren laguntzarik beharko. Adingabe ezgaituen kasua salbuesten da, baldin eta ezgaitasunaren hedadurak kasuan kasuko eskubide eta interesen egikaritzari eragiten badio (2/2005 Foru Arauaren 43. artikulua).

Legezko ordezkariak dagokionez aintzat hartuko da 2/2005 Foru Arauaren 44. artikulua ezartzen duena; borondatezko ordezkariak dagokionez aintzat hartuko da 2/2005 Foru Arauaren 45. artikulua ezartzen duena, eta pertsona edo erakunde ez egoiliarrei dagokionez aintzat hartuko da 46. artikulua ezartzen duena.

V. KAPITULUA EGOITZA FISKALA

15. artikulua

1. Egoitza fiskala zergapekoa zerga administrazioarekiko harremanetarako dagoen lekua da, eta 2/2005 Foru Arauaren 47. artikulua arautua dago.
 2. Egoitza fiskala izango da:
 - a) Pertsona fisikoentzat, euren ohiko egoitza.
 - b) Pertsona juridikoentzat egoitza soziala izango da egoitza fiskala, betiere, administrazio-kudeaketa nahiz negozio-zuzendaritza bertan zentralizatuta badago eta egoitza sozial hori udalerriaren barruan kokatzen bada. Bestela, kudeaketa edo zuzendaritza gauzatzen den tokia hartuko du helbidetzat.
 - c) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsonen edo erakundearen egoitza fiskala non dagoen zerga bakoitzari buruzko arautegian ezarritakoaren arabera zehaztuko da. Araututa ez badago, egoitza fiskala ZFAOren 46. artikuluan aipatutako ordezkariarena izango da. Establezimendu iraunkorren egoitza fiskala administrazio-kudeaketa edo negozioaren zuzendaritza egiten den lekua izango da.
 - d) Sozietate zibila eta nortasun juridikorik gabeko izakiena, kudeaketa eta zuzendaritza egiten diren lekua.
- Baldin eta aurreko b), c) eta d) letretan dauden irizpideak aplikatuta egoitza fiskala zehaztu ezin bada, haien ibilgetuaren baliorik handiena dagoen lekua hartuko da kontuan.
3. Zergapekoek euren egoitza non dagoen adierazi behar diote Zerga Administrazioari. Horrez gain, Kontzertu Ekonomikoaren 43. artikulua ezartzen duena bete beharko da. Egoitza adierazi ezean, Zerga Administrazioak ulertu ahal izango du zergapekoaren egoitza errolda-oinarrian agertzen dena dela, edo titular gisa agertzen den edozein higiezin edo ustiapen ekonomikoaren kokalekua hartuko da bere egoitza fiskaltzat.



4. Zergapeko batek bere egoitza aldatzen badu, horren berri eman beharko dio Zerga Administrazioari berariazko adierazpenaren bidez. Horrez gain, Kontzertu Ekonomikoko 43. artikuluko bosgarren paragrafoan xedatutakoa bete beharko da. Egoitza aldatzeak ez du ondorerik izango Administrazioan harik eta arestian aipatutako zerga-aitorpena aurkeztu arte.
5. Zergapekoak ez badio jakinarazi Zerga Administrazioari, aurreko paragrafoan aurreikusitakoarekin bat, bere egoitza fiskala aldatu izana, errolda-oinarrian ageri dena hartuko da halakotzat. Halaber, jakinarazpenetarako aitortu den azken helbidea edo zerga arloko edozein agiritan zergapekoak kotsignatutakoa ere hartu ahalko da helbidetzat.
6. Administrazioak zergapekoen egoitza fiskala zuzendu ahal izango du egiaztapenen bidez. Kontrako frogarik egon ezean, pertsona juridikoek egoitza fiskala aldatzen badute eta aurreko edo hurrengo urtean jarduerarik egin ez badute edo jarduerari utzi badiote, aldaketarik ez dela gertatu pentsatuko da.
7. Zergak aplikatzeko prozeduren eta zehapen-prozeduraren ondoriozko jarduketak egiteko eskudun den zerga administrazioa zehazteko, zergapekoak zerga-egitatea edo arau-haustea egitean izan duen egoitza fiskala hartuko da kontuan.

VI. KAPITULUA OINARRIA

16. artikulua

Zerga-oinarria zerga-egitatea neurtu edo balioestearen emaitzako magnitudea da, diruzkoa zein bestelako. Zerga-oinarria zehazteko metodo hauek baliatu ahal dira: a) zuzeneko estimazioa, b) estimazio objektiboa, c) zeharkako estimazioa (2/2005 Foru Arauaren 48. artikulua).

Zuzeneko estimazioaren metodoa zergapekoak eta Administrazioak erabili ahal izango dute, zerga bakoitzaren arautegian xedaturikoarekin bat etorritik. Horretarako, Zerga Administrazioak aurkeztzen zaizkion aitorpenak edo agiriak, administrazio-bidean egiaztatutako liburuetan eta erregistroetan adierazitako datuak eta zerga-betebeharraren elementuekin zerikusia duten gainerako agiri, frogagiri edo datuak erabiliko ditu (2/2005 Foru Arauaren 49. artikulua).

Estimazio objektiboaren metodoa zerga bakoitzaren arautegian ezarritako magnitudeak, indizeak, moduluak edo datuak aplikatuz erabili ahal izango da zerga-oinarria ezartzeko. (2/2005 Foru Arauaren 50. artikulua).


Zeharkako estimazioaren metodoa, ondoren azalduko diren inguruabarretako bat dela bide, zerga administrazioak zerga-oinarria erabat zehazteko behar diren datuak eskuratu ezin ditutenean aplikatuko da. Hona inguruabarrok: (2/2005 Foru Arauaren 51. artikulua).

1. Zergapekoak aitorpenik ez aurkeztea edo aitorpena datu batzuk falta direla edo oker daudela aurkeztea.
2. Zergapekoa ikuskapenari jazartzea, hura oztopatzea, saihesteko aitzakia jartzea edo uko egitea.
3. Kontabilitate- edo erregistro-betebeharrak nabarmen ez betetzea.
4. Kontabilitateko liburuak eta erregistroak edo haietan idatziriko eragiketen frogagiriak desagertzea edo hondatzea, ezinbestean izanik ere.

Oinarriak edo etekinak ondoko bideetako bat, edo batzuk batera, aplikatuta zehaztuko dira:

1. Garrantzizko datu eta aurrekari ezagunak aplikatzea.
2. Ondasunak eta errentak zeharka frogatzen dituzten elementuak erabiltzea, bai eta kasuan kasuko sektore ekonomikoan, zerga-terminoetan alderatu behar diren ekoizpen edo famili unitateen dimentsioak kontuan hartuta, ohiko diren sarrerak, salmentak, kostuak eta etekinak ere.
3. Zergapekoei dagozkien magnitudeak, indizeak, moduluak edo datuak balioestea, antzeko edo balio bereko kasuetako datuen edo aurrekarien arabera.

Zeharkako estimazioaren metodoa aplikatu ahal denean, 2/2005 Foru Arauaren 153. artikulua aurreikusten duen prozedura jarraituko da.



17. artikulua

Likidazio-oinarria zerga-oinarriari zerga bakoitzari buruzko foru arauan edo dagokion Ordenantza Fiskalean ezartzen diren txikipekak aplikatzearen emaitzako kopurua da.

VII. KAPITULUA SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

18. artikulua

Udalak –bere ahalmenak erabiliz eta Foru Arauei jarraituz– zerga-hobariak eskaini ahal izango ditu udal-zergetan, eta hobari horiek udal-aurrekontuetan bereganatuko ditu.

Horretarako, udal-barrutian aplikatuko diren zerga-onura horiek oro har zehazten dituen akordioa hartuko du Udalak. Akordio hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

19. artikulua


Zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren kaltetan izan gabe, hobari fiskala eman behar denean parte batek egindako eskariari jarraituz, honakoa aurkeztu beharko da:

1. Aldizkako zergak direnean, nahitaezko zerga-aitorpenak aurkezteko dagokion ordenantzak ezarritako epean egin beharko da eskaera, eta egitate zergagarria gauzatzean izango du eragina zerga-onurak.

Zerga-aitorpenerako ezarritako epea igarota egiten bada eskaera, onurak ez ditu aintzat hartuko aitorpena aurkeztu baino lehenago sortutako kuotak.
2. Zergak aldizkakoak ez direnean, zerga-aitorpena egiten denean edo erreklamazio-epearen barruan egingo zaio eskaera Udalari.

20. artikulua

1. Salbuespenak, murrizketak edo onurak ematean nahiz ukatzean, zerga bakoitzari dagokion araudia bete beharko da.
2. Legeak berariaz kontrakoa aurreikusten duenean salbu, erreguzko izaera izango du zerga-onurak emateak; horrenbestez, zerga-onurak eskatzeko, Alkatetzari zuzendutako eskabidea egin beharko da, eta, bertan, eskatzaileak nahikotzat jotzen dituen funtsezko datuak jaso beharko dira.
3. Oro har, zerga-onurek ez dute atzeraeraginik izango; hortaz, zerga lehen aldiz sortzen denetik jarriko dira abian, zerga-onura ematea adostu ostean.
4. Zerga-kudeaketako Zerbitzuak izapidetuko du espedientea. Horretarako, ebazpen-proposamena sortuko du, eta Kontu-hartzailetzak informatuta, Alkatetzari igorriko zaio.
5. Zerga-onurez gozatzeko epea amaitzen denean, iraungitzea bete dela egiaztatzeko prozedura ezarriko du Kontu-hartzailetzak.
6. Hobariak aplikatzeko, bizikidetza-unitatetzat hartuko da etxebizitza berean bizi diren eta ondorengo ahaidetasun-harremanetako baten bidez elkartuta dauden pertsona guztiak biltzen dituenak:
 - Ezkontza edo antzeko harreman iraunkor bat: izatezko bikoteak, bikotekideak, etab.
 - 2. mailara arteko odolkidetasuna titularrarekin: gurasoak, aitona-amonak, aitona-amonak, osaba-izebak, osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak, seme-alabak, bilobak, bilobak, anai-arrebak, ilobak.
 - 2. mailara arteko ezkontza-ahaidetasuna: eskatzailearen bikotekidearen gurasoak, aitona-amonak, seme-alabak, bilobak eta anai-arrebak hartzen ditu barnean.
 - Adopzioa, familia-harrera iraunkorra edo adopzio aurrekoa edo tutoretzakoa.



VIII. KAPITULUA ZERGA-ZORRA

1. ATALA. Karga-tasa eta zerga-zorra

21. artikulua

1. Karga-tasa likidazio-oinarriari kuota osoa kalkulatzeko aplikatzen zaion kopurua, koefizientea edo portzentajea da.
2. Karga-tasak zehatzak edo ehunekoak izan daitezke, eta zerga bakoitzari buruzko foru arauak xedatutakoaren arabera aplikatu beharko zaizkio zerga-oinarriaren unitate, unitate multzo edo tarte bakoitzari.
3. Zerga batean, likidazio-oinarriaren unitate edo tarteei aplikatu ahal zaien karga-tasen multzoari, tarifa esaten zaio.

22. artikulua

Kuota osoa zehazteko, 2/2005 Foru Arauaren 54 eta 55 artikulua ezarritakoa hartuko da aintzat.

23. artikulua

1. Zerga-zorra zerga-betebehar nagusiaren edo konturako ordainketak egin beharren ondorioz sartu behar den kuota edo kopurua da.
2. Horrez gainera, kasu batzuetan ondokoak ere sartu behar dira zerga-zorreetan:
 - a) Berandutza-interesa.
 - b) Aitorpena epez kanpo aurkezteagatik errekarua.
 - c) Ordainarazpen-aldiko errekaruak.
 - d) Legez eska daitezkeen oinarrien edo kuoten gaineko errekaruak, Tokiko Ogasunaren-tzat edo beste entitate publiko batzuentzat direnak.
3. Foru arau honetako IV. tituluan xedaturikoaren arabera ezartzen diren zerga-zehapenak ez dira izango zerga-zorren osagai.

2. ATALA. Zerga-zorra iraungitzea

24. artikulua


1. Edozein pertsonak egin dezake ordainketa, obligazioa betetzeko interesa duen ala ez duen alde batera utzita, ordaintzera behartua dagoenak ezagutua edo onartuta ala jakin gabe.

Zorra ordaintzen duen hirugarrena inoiz ez da legitimaturik egongo ordaintzera behartuta egongo denari dagozkion eskubideak Administrazioaren aurrean erabiltzeko. Hala eta guztiz ere, eskusiboki ordainketa-egintzan bere alde sortutako eskubideak erabil ditzake.

Ordainketak jasotzeko eskumenik ez duten organoei edo horretarako baimenik ez duten pertsonen egiten zaizkien ordainketek ez dute zorduna ordaintzeko beharretik aske utziko, nahiz eta behar ez den hartzaileak bere erantzukizunak izan ditzakeen.
2. Zerga-zorrak ordainketa, preskripzioa, iraungipena, konpentsazioa edo barkamena dela bide azken daitezke, bai eta legezko xedapenetan ezarritako gainerako bideen bitartez ere.
3. Zerga-zorra ordaintzeak, konpentsatzeak edo barkatzeak ordaindu, konpentsatu edo barkatutako zenbatekoa baizik ez du kitatuko.(2/2005 Foru Arauaren honako artikulua: 58-62, 73 eta 77)

25. artikulua

1. Kaudimengabetzat jotzen dira zorra ordaindu behar duten pertsonak, baldin eta zorra ezin bada kitatu zerga-bilketako administrazio-prozeduretan edo konkurtso-prozeduretan pertsona horien kaudimengabeziagatik.
2. Pertsona kaudimengabearen aitorpenak erantzukizuna bideratzeko espedienteak hasteko aukera emango du zorra ordaindu behar duten balizko beste pertsona batzuen kontrako erantzukizun



subsidiarioagatik, baina ez du galaraziko Foru Ogasunak pertsona kaudimengabe zordunaren kontrako egintzak burutzea kobrantzarako administrazio-egintza iraungitzen ez den bitartean.

3. Zordun nagusia eta, hala denean, pertsona arduradun solidarioak eta subsidiarioak kaudimengabetzat jo ondoren, Zerga-bilketaren zuzendariordetzak kreditu kobraezinaren aitortpena egingo du zerga-bilketako organo eskudunak proposatuta.
4. Kreditu baten kobraezintasun aitortpenari esker, kontuetan baja eman ahal izango da, baina horrek ez ditu geldiaraziko bidezkoak diren zerga-bilketako jarduketak.
5. Ondoren, diru-bilketak zorduna kaudimengarri bihurtu dela jakingo balu, kreditu birgaitzea proposatuko lioke altxor-zaintzari.
6. Ordaindu behar duen pertsona kaudimengabetzat jotzen bada, horren kontrako kredituak, aitortpenaren aurretik mugaeguneratu direnak, kobraezintzat joko dira ordaindu behar duen beste pertsonarik ez badago, premiamendu-probidentzia emateari eta jakinarazteari kalterik egin gabe.
7. Kredituak kobraezintzat jo direnean, diru-bilketak behar bezala dokumentatuko ditu espedienteak, eta proposamen bat prestatuko du. Proposamen hori –diru-zaintzaren txostenarekin batera– Kontu-hartzailetzak fiskalizatuko du eta Udal Dekretu bidez onartu beharko da –edota Gobernuaren Batzorderen akordioaren bidez, eskumen hori eskuordetu egin bada.

Prozedurazko legezkotasunaren printzipioak, administrazio-eraginkortasunarena eta proportziozkotasunaren printzipioa elkarrekin bat etortzeko, eskakizun eta baldintza jakin batzuk ezarri dira, eta horiek egiaztatu beharko dira, kredituak kobraezintzat jotzeko proposamenaren aurretik:

1. 500 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duten zorrak pilatzeagatik sortutako espedienteak. Kreditua kobraezintzat jotzen duen proposamena egingo da, honako baldintzak betetzen direnean:
 - a) Espediente betearazlean agertu beharko dute bai Udaleko datu-basean ageri diren helbide guztietako jakinarazpenek, bai eta biztanleen erroldan agertzen den helbideko jakinarazpenak ere.
 - b) Aipatutako helbide horietan jakinarazpenak egin ostean emaitzak negatiboak izan badira, probintziako aldizkari ofizialean kaleratu beharko da iragarki modura.
 - c) Udalerriko banku-erakundeetan funtsak bahitzeko saiakerak emaitza negatiboa izan duela egiaztatu beharko da. Soldatak, alokairuak eta pentsioak bahitzeko saiakerak, orobat, emaitza negatiboa izan beharko du.
2. 500 eurotik gorako zenbatekoa duten zorrak pilatzeagatik sortutako espedienteak. Kreditua kobraezintzat jotzen duen proposamena egingo da, honako baldintzak betetzen direnean:
 - a) Espediente betearazlean agertu beharko dute bai Udaleko datu-basean ageri diren helbide guztietako jakinarazpenek, bai eta biztanleen erroldan agertzen den helbideko jakinarazpenak ere.
 - b) Aipatutako helbide horietan jakinarazpenak egin ostean emaitzak negatiboak izan badira, probintziako aldizkari ofizialean kaleratu beharko da iragarki modura.
 - c) Espedientean egiaztatu beharko da zorduna ez dela subjektu pasibo gisa ageri Ondasun Higiezinaren Zergaren erroldan, ez eta Jarduera Ekonomikoen Zergan edota Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergan ere.
 - d) Udalerriko banku-erakundeetan funtsak bahitzeko saiakerak emaitza negatiboa izan duela egiaztatu beharko da. Soldatak, alokairuak eta pentsioak bahitzeko saiakerak, orobat, emaitza negatiboa izan beharko du.
 - e) Jabetza-erregistroan edo beste erregistro publikoetan zergadunaren izenpean erregistro-tututako ondasunik ez dagoela egiaztatu beharko da.

Alkatetzak honako kasuotan onar ditzake baxa espedienteak, kasu bakoitzerako adierazten diren prozeduren mende:

1. Matrikulazioa 10 urte baino gehiagoko antzinatasunez eginga duten ibilgailuei dagokien Trakzio mekanikodun Ibilgailuei buruzko Udal Zergaren ordainagiriei – Betearazteko Diru-



Bilketak kobrantza kudeaketa egin eta helbide ezezaguna zutelako emaitza negatiboa izan dutenei- behin behineko baxa emango zaie Diru-Bilketan eta Errolda edo kobrantzarako zerrendan, eta hori Ekonomia eta Ogasun Zerbitzuek eta Udal Diru-Bilketak, Trafiko Buruzagitzaren aurrean eskualdatzeak nahiz baxak burutzeko benetakotze frogagiriak eskatzen dituzten zergaduruei, preskribitu ez diren azken lau urteak exijitzeko kontuan hartuak izatearen kalterik gabe.

2. Ondorengo funtsezko datuok (izen-deiturak, NAN/IFK edo helbidea) adierazten ez dituzten zorrak, beharrezkoak baitira bertan agertzen diren zordunak identifikatzeko, eta non aurkitu daitezkeen jakiteko.
3. TAOren eta Zirkulazioko Orotariko Araudiaren arau-hausteei dagozkien ordainagiriak, premiamenduzko probidentzia agindu zenetik bi urte baino gehiago igaro direnean, eta bi saio egin ondoren, jakinarazpena ezin egin izan zaionean.

26. artikulua

1. Zerga Administrazioak zerga-zorra bidezko likidazioaren bidez zehazteko duen ahalmena preskribitu eta iraungi egin daiteke (2/2005 Foru Arauaren 64.artikulutik 72.ra).
2. Preskripzioa eta iraungipena aldi berean gertatzen dira. Hori dela eta, Administrazioak likidazio ego kiaren bitartez zerga-zorra zehazteko duen ahalmena ezin izango da preskripzioa edo iraungipena gertatu ostean erabili.
3. Zerga Administrazioak likidatuta eta autolikidatuta dauden zerga-zorren ordainketa eskatzeko duen ahala preskribitu egin daiteke.
4. Zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren ondoriozko itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzul ketak eta bermeen kostuen itzulketak eskatu eta eskuratzeko zergapekoek dituzten eskubideak ere preskribitu egin daitezke.
5. Irabazitako preskripzioak edo iraungipenak berdin aprobetxatzen dituzte tributu-zorra ordaintzera be hartuta dauden guztiak, Zergen Foru Arau Orokorren 69.artikuluko 8.paragrafoan mankomunatu tako betebeharen kasurako xedatutakoa izan ezik.
6. Preskripzioak eta iraungipenak zerga-zorra iraungiko dute eta ofizioz aplikatuko dira, zorra dagoeneko ordainduta dagoenean ere bai.

27. artikulua

2/2005 Foru Arauaren 64. artikulua 1, 3 eta 4 apartatuak aipatzen dituzten administrazioaren esku menak eta zergapekoen eskubideak, lau urtera iraungiko dira.

28. artikulua


Preskripzio epea, 2/2005 Foru Arauaren 68. artikulua ezartzen dituen arauen arabera hasiko da konta tzen.

29. artikulua

Dagokion likidazioaren bidez zerga-zorra zehazteko preskripzio epea eten egingo da 2/2005 Foru Arauaren 69. artikulua ezartzen duenaren arabera.

30. artikulua

1. Zerga-zorra zehazteko administrazioaren ahalmena, dagokion likidazioa eginez, sei urtera iraungiko da (ZFAOren 70.artikulua).
2. Iraungitze epea eta iraungitze epearen etetea kalkulatzeko, aintzat hartuko dira 2/2005 Foru Arauaren 71 eta 72 artikulua.
3. Hala ere, iraungipenak ez ditu ukituko zergapekoak zerga-arautegiaren arabera itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuen berreskurapena lortzeko duen eskubidea ain tzatesteko beharrezkoak diren likidazio-egintzak eskubide horiek preskribitu gabe dauden artean.



3. ATALA. Zerga-zorraren bermea

31. artikulua

1. Udal-ogasunak lehentasuna izango du ordaindu gabeko zerga-kreditu muga-eguneratuak kobratzeko, Udal-ogasunarekin lehiatzen diren hartzekodunek ez dutenean jabetzako, bahiturako edo hipotekako eskubiderik ez eta Erregistroan behar bezala inskribatutako beste edozein eskubiderik, Udal Ogasunaren zuzenbidean bertan jasotako data baino lehen. Nolanahi ere, 2/2005 Foru Arauaren 79 eta 80 artikuluek ezarritakoa bete behar da.
2. Konkurtso-prozedurek ukituriko zerga-kredituak, are konturako ordainketak egin beharraren ondoriozkoak ere, konkurtsoei buruzko legerian ezarritakoari lotu beharko zaizkio.

32. artikulua

Erregistro publikoren batean inskribatu daitezkeen ondasunek edo eskubideek aldian-aldian ezartzen dituzten zergetan bai eta ondasun nahiz eskubide horien etekin jakinek nahiz ustezkoek ezarritakoetan ere, Udalak lehentasuna izango du beste edozein hartzekodunen edo eskuratzaileraren aurrean; eta hori hala izango da, nahiz eta hartzekodunek edo eskuratzailleek ordaindu ez diren zergak (kobratzeko administrazio-egintza gauzatzen den urte naturalari eta aurrekoari dagozkion zergak) kobratzeko eskubideak inskribatu.

33. artikulua

Legezko xedapen bidez zerga-zorra ordaintzeari lotutako ondasunen eskuratzailleek tributu-zergari ondasun haiekin erantzungo dute modu subsidiarioan, zerga-ekintzaren deribazioa dela bide, zorra ordaintzen ez bada (2/2005 Foru Arauaren 80. artikulua).

34. artikulua

Zerga-zorraren kobrantza zapuztu daitekeela edo kobratzeko eragozpen handiak izango direla pentsatzeko zentzuzko zantzurik badago, Administrazioak behin behineko kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu kobratuko dela bermatzeko (2/2005 Foru Arauaren 81. artikulua).

III. TITULUA – TRIBUTUEN APLIKAZIOA

I. KAPITULUA – Printzipio orokorrak

1. ATALA. Zerga-prozedurak

35. artikulua

Tributuen aplikazio-eremuan ondokoak sartzen dira: Zerga Administrazioak zergapekoei informazioa eta laguntza emateko egiten dituen jarduerak eta tributuak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dituenak, eta zergapekoek euren eskubideez baliatzean edo euren zerga-betebeharrak betetzeko egiten dituzten jarduketak (2/2005 Foru Arauaren 82. artikulua).

2. ATALA. Zergapekoei informazioa eta laguntza ematea


36. artikulua

Zerga Administrazioak zergapekoei beraien eskubideei eta betebeharrei buruzko beharrezko informazioa eta laguntza eman behar dizkie (2/2005 Foru Arauaren 83. artikulutik 90.era).

3. ATALA. Herritarren laguntza tributuen aplikazioan

37. artikulua

Pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek zein pribatuek, eta foru arau honetako 34. artikuluko 3. apartatuan aipatutako erakundeek euren zerga-betebeharren inguruko denetariko datu, txosten, aurrekari eta frogagiriak, zerga-ordainketan eragina izan dezaketenak, eman behar dizkiote Zerga Administrazioari, bai eta beste pertsona batzuekin izan dituzten harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioen ondoriozko guztiak ere (2/2005 Foru Arauaren 91. artikulutik 94 ter.era).




II. KAPITULUA - ZERGEN ARLOKO JARDUKETA ETA PROZEDUREI BURUZKO ARAU OROKORRAK

38. artikulua

Zergak aplikatzeko jarduerak eta prozedurak II Kapituluaren ezarritako arau bereziak erregulatzen dituzte zergak aplikatzeko jarduerak eta prozedurak (2/2005 Foru Arauaren 95. artikulutik 114bis.era). Halaber, aintzat hartuko dira tributu arloko bestelako Foru Arauak eta berauek garatzeko arautegia ere bai.

Osagarri gisa, ZFAOren II.kapituluko 3.atalean prozedura administratiboei buruz ematen diren xedapen orokorrak.

1. Likidazioak 2/2005 Foru Arauan ezarritakoari lotuta jakinarazi behar zaizkie zergapekoei.
2. Jakinarazpenean ondokoak agertu behar dira:
 - a) Zergapekoaren identifikazioa.
 - b) Zerga-zorren zenbatekoa eragin duten elementuak.
 - c) Jakinarazpenaren motibazioa, baldin eta ez badator bat zergapekoak adierazitako datuekin edo hark egindako arauen aplikazio edo interpretazioarekin; horrez gainera jakinarazpena eragin duten gertaerak eta oinarrizko elementuak adierazi behar dira eta Zuzenbideko oinarriak azaldu.
 - d) Balia daitezkeen inpugnazio-bideak, inpugnazioak aurkeztu behar diren organoa eta aurkezteko epea.
 - e) Zerga-zorra ordaindu behar den lekua, epea eta modua.
 - f) Likidazioa nolakoa den: behin-behinekoa edo behin betikoa.
3. Aldizka ordainagiri bidez kobratzen diren zergetan, behin erregistro, errolda edo matrikula egokian alta emateari dagokion likidazioa jakinarazi ondoren, hurrengo likidazioak taldeka jakinarazi ahal izango dira ediktuen bidez (ediktuetan horren berri eman behar da). Zerga-oinarria aitortenaren emaitzakoa baino handiagoa bada, zergadunari jakinarazi behar zaio eta jakinarazpenean aldea zerk eragin duen azaldu behar zaio. Hala ere, aldaketa foru arauak baimendutako errebalorazio orokorraren ondorioz gertatzen bada edo tokiko zerga-arautegiaren arabera zergaren elementuetan aldaketa orokorrak sartzen badira, ez da egongo jakinarazi beharrik.
4. Arau bidez ezartzen den kasuetan ez da egin beharko jakinarazpenik, baldin eta Zerga Administrazioak idatziz ohartarazten badio zergapekoari, ez eta autolikidazioak aurkeztu ondoren egindako itzulketen ondoriozko behin-behineko likidazioetan ere, baldin eta itzultitako kopurua eskatutakoa bera bada.
5. Errolda-gai edo matrikula-gai izan daitezke zergen izaeraren ondorioz egitate zergagarriari jarraitzeko bide ematen dieten zergak.
6. Subjektu pasiboaren aitortenaren bidez nahiz Administrazioaren ikerketa-egintzaren bidez sortuko dira altak, baita Administrazioaren kabuz ere, eta zerga-betebeharra (zergaren Ordenantzaren xedapenak ezarritakoa) sortzen den egunetik aurrera izango dute eragina –preskripzioak izan ezik; hala, hurrengo denboraldiko erroldan edo matrikulan sartuko dira behin betiko.
7. Subjektu pasiboek eman beharko dute baja, eta, hori egiaztatu ostean, erroldatik kenduko dira behin betiko. Baja aurkeztu eta hurrengo denboralditik aurrera edukiko du eragina egintza horrek, Ordenantza bakoitzean ezarritako salbuespenetan izan ezik.
8. Erroldan alta, baja edo eraldaketa eragin dezakeen edozein aldaketa gertatuz gero, horren berri eman beharko diote zergadunek nahitaez Udal-administrazioari, aldaketa hori jazo osteko hurrengo hogeita hamar egun baliodunen barruan.
9. Alkatetza-buruak onartu beharko ditu ekitaldi guztietan erroldak edo matrikulak, eta, onartutakoan, jendaurrean erakutsiko dira, legitimoki interesatuak direnek aztertu, eta erreklamazioak egin ditzaten. Hamabost eguneko epea izango dute egoki irizten dieten erreklamazioak aurkezteko.



10. Erroldak eta matrikulak jendaurrean erakusten direnean, beraz, horietan jasotako kuoten likidazioak emango dira jakitera, interesatuen egintzetarako. Nolanahi ere, egintza horien aurka, administrazioarekiko errekurtsua jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsua jarri daiteke, hilabeteko epean eta jendaurrean erakusteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik hasita.

39. artikulua

1. Zergapekoei egin beharreko jakinarazpenen erregimena administrazio-arau orokorretan ezarri da; nolanahi ere, kontuan eduki behar dira 2/2005 foru arauan eta Ordenantza honetan ezarritako ñabardurak (ZFAOn, 100.artikuluaren, III.tituluko II.kapituluko hirugarren atalean eta 179.artikuluaren 4.paragrafoan) .
2. Interesdunak baliabide telematikoak erabiltzearekin ados dagoela adierazi badu eta modu hori lehenetsi badu, jakinarazpenak telematikoki egin ahal izango dira, eta, gainera, hurrengo atalean (3.ean) jasotzen dena bete beharko da.


Jakinarazpen-sistemak aukera emango du jakinarazpenaren xede den egintza interesdunaren esku noiz eta zer ordutan jartzen den egiaztatzeko, bai eta edukia ikusteko ere. Une horretatik aurrera, jakinarazpena eindakotzat joko da ondorio guztietarako.

Jakinarazpena eskura jarri dela egiaztatzen bada eta hogeitaz egun natural igarotzen badira edukira sartu gabe, jakinarazpena ezetsitatzeko joko da, ZFAOren 109.artikuluaren 2. paragrafoan aurreikusitako ondorioekin, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta egiaztatzen bada teknikoki eta materialki ezinezkoa dela jakinarazpena eskuratzea.

3. Erreglamendu bidez, Zerga Administrazioak berarekin komunikatzeko betebeharra ezarri ahal izango du, baliabide elektronikoak bakarrik erabiliz. Interesdunak pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen taldeak izan daitezke, eta baliabide elektronikoak bakarrik erabiltzeko aukera izango dute baldin eta, gaitasun ekonomikoagatik edo teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik, bermatuta badute behar diren baliabide teknologikoetarako irispidea eta eskuragarritasuna.
4. Interesdunak eskatuta hasten diren prozeduretan, jakinarazpena zergapekoak edo beraren ordezkariak berariaz adierazitako tokian egingo da, eta halakorik adierazi ezean, bataren edo bestearen zerga-egoitzan.
5. Ofizioz hasten diren prozeduretan, jakinarazpena zergapekoaren edo beraren ordezkariaren zerga-egoitzan, lantokian, jarduera ekonomikoa egiten duen tokian edo jaso-agiria biltzeko aukera ematen duen beste zeinahi tokitan egin ahal izango da. Jakinarazitako egintza jaso zergapekoak edo ordezkariak jaso izana egiaztatu ahal izateko lekua izan beharko da.
6. Jakinarazpena zergapekoak edo beraren ordezkariak berariaz adierazitako tokian egiten bada, edo bataren edo bestearen zerga-egoitzan, eta jakinarazpena heltzean interesduna ez badago, bertan dagoen normarik jaso ahal izango du, nor den azaldu ondoren, bai eta jakinarazpen-tokia edo zergapekoaren edo ordezkariaren zerga-egoitza dagoen eraikineko auzokideen edo jabeen erkidegoaren enplegatu batek ere.

Jakinarazpena bide telematikoen bitartez egiten bada, zergapekoak ez eze, beste hauek ere jaso ahal izango dute: haren ordezkariak edo aitortuak, autolikidazioak, eskariak eta zerga-eragina duen beste edozein agiri aurkeztu eta kontsultatzeko zergapekoak ordezkari izateko baimena jaso duten pertsona fisiko zein juridikoak.

7. Interesdunak edo beraren ordezkariak jakinarazpena jaso nahi ez badu ere, lege-ondoreetarako egintzat joko da.
8. Zerga-egoitzan edo interesdunak adierazitako tokian jakinarazteko bi ahalegin, gutxienez, egin ondoren zergapekoari edo beraren ordezkariari ezin bazaio helarazi jakinarazpena Zerga Administrazioari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, espedientean jakinarazpen-ahaleginen ingurua barrak adieraziko dira. Jasotzailea aipatu egoitzan edo tokian ezezaguna bada, ahalegin bat nahikoa izango da. Nolanahi ere, ohartxo bat utziko zaio subjektuari (espedientean eraginik izango ez duena), notifikazio ofiziala Udaleko Erregistroan jaso dezan.



9. Hala gertatzen denean, interesdunari edo beraren ordezkariari zitazioa egingo zaio bertaratuta jakinarazteko; horretarako iragarkiak argitaratuko dira leku hauetan:

a) Zerga Administrazioaren egoitza elektronikoan, Herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateko araudian ezarritako baldintzetan.

b) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

10. Ezagutzen den azken egoitza Durangotik kanpo egonez gero, iragarkia ezagutzen den azken zerga-egoitzari dagokion udaletxean ere jarri ahal izango da. Ezagutzen den azken egoitza atzerrian badago, iragarkia dena delako herrialdearen kontsulatuan edo enbaxadaren kontsulatu-sailean jarri ahal izango da.

11. Zerga Administrazioak baliabide informatikoen, elektronikoen eta telematikoen bidez jar ditzake iragarki hauek, zerga-arautegian ezartzen denari lotuta.

12. Iragarkia egoitza elektronikoan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, egiteko dau den jakinarazpenen zerrenda agertuko da eta ondokoak adieraziko dira: zergapekoa edo beraren ordezkaria; jakinarazpenak eragin dituen prozedura; izapidetzeko eskumena duen organoa; jasotzailea nora eta noiz joan behar den jakinarazpena jasotzera. Interesduna iragarkia egoitza elektronikoan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik egutegiko hamabost egun pasatu baino lehen bertaratu beharko da. Aldi horretan bertaratzen ez bada, jakinarazpena epearen mugaegunaren biharamunean egintzat hartuko da lege-ondore guztietarako.

13. Zergapekoa edo beraren ordezkaria jakinarazpena jasotzera bertaratu ez eta ondorioz prozedura baten hasiera edo beraren izapideetako bat jakinarazitzat jotzen bada, prozeduraren hurrengo jarduketak eta eginbideak ere jakinarazitzat joko dira eta bere hartan mantenduko da prozeduran zehar noiznahi bertaratzeko eskubidea. Hala ere, prozeduran ematen diren likidazioak eta bahitutako ondasunak besterentzeko erabakiak ZFAOn ezarritakoaren arabera jakinarazi beharko dira.

Dokumentua edo jakinarazpena Posta-zerbitzuak edo Udaleko jakinarazpen-egileak entregatu ahal izango du, baita Udalak jakinarazpenak emateko kontratatutako enpresako langileek ere, laguntza teknikoko kontratuak arautzeko 1005/1974 Errege Dekretuko 3.c artikuluan baimendutakoarekin bat.

III. KAPITULUA - ZERGAK KUDEATZEKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK

40. artikulua


Zergen kudeaketa esaten zaio ikuskapen eta bilketa eginkizunetan sartzen ez diren zergak aplikatzeko administrazio-jarduketen multzoari ((2/2005 Foru Arauaren 115.artikulutik 133.ra).

IV. KAPITULUA – IKUSKAPENEN JARDUERAK ETA PROZEDURAK

41. artikulua

Zerga-ikuskapena honako administrazio-eginkizunak gauzatzean datza:

1. Zerga-betebeharren egitateak ikertzea, Administrazioak ezagutzen ez dituenen berri jakiteko.
2. Zergapekoek aurkeztutako aitorpenen eta autolikidazioen benetakotasuna eta zehaztasuna egiaztatzea.
3. Zergen ezarpenarekin zerikusia duten informazioa lortzeko jarduerak burutzea, foru arau honetako 92. eta 93. artikuluetan ezarritakoaren arabera.
4. Zerga-betebeharrak zehazteko beharrezkoa denean, eskubideen, errenten, ekoizkinen, ondasunen, ondareen, enpresen eta gainontzeko elementuen balioa egiaztatzea, 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorreko 127. eta 128. artikuluetan xedatutakoa aplikatuta.
5. Zerga onurak edo pizgarriak aplikatzeko eta zerga-itzulketak lortzeko behar diren betekizunak, eta zerga-erregimen bereziak ezarri ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla frogatzen dituzten egiaztapenak.



6. Ikuskapen-jarduketak direla-eta zergapekoei euren eskubide eta betebeharren inguruko informazioa ematea, eta betebeharrak nola bete behar dituzten azaltzea.
7. Egiaptapen- eta ikerketa-jarduketan eta erregularizazio-jarduketan ondoriozko zerga-likidazioak egitea zergapekoak bertaratu gabe.
8. Herri Administrazioako beste organo batzuei aholkuak zein txostenak ematea, eta foru arau honetako 163. artikuluan aipatutako itzurpenaren aurkako klausula aplikatu ahal izateko txostena ematea.
9. Zergen arloko behin betiko zein behin-behineko esku-hartzeak egitea (berariazko arautegia dute).
10. Beste xedapen batzuetan ezartzen direnak edo agintaritza eskudunak agintzen dituenak.

Ikuskapeneko jarduketa eta prozedurei dagokienez, aintzat hartuko da 2/2005 Foru Arauaren 135. artikulutik 163. ra ezarritakoa eta, halaber, urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-Ikuskaritza araudia erregulatzen duena.

V KAPITULUA – ZERGA-BILKETAKO JARDUERAK ETA PROZEDURAK

42. artikulua

Zerga-bilketa zerga-zorrak kobratzeko administrazio-eginkizunak burutzea da.

Hauexek dira zerga-bilketako eginkizunak:

1. Zerga-betebeharren ordainketa ahalbideratzeko eta errazteko jarduketak egitea.
2. Zorra kobratzeko edo hura ez ordaintzearen ondoriozko administrazio-erantzukizuna edo erantzukizun zibil edo penala eskatzeko egintzekin zerikusia duen informazioa lortzeko jarduketak egitea.
3. Zordunaren ondarearen aurkako jarduketak egitea, haren ondasunak eta eskubideak exekutatzea eta, behar izanez gero, kautelazko neurriak hartzea.
4. Zergapekoei zerga-bilketako prozedurekin lotutako jarduketei buruzko informazioa ematea eta beraien eskubideak eta betebeharrak azaltzea eta betebeharrak horiek nola bete behar diren argitzea.


Zerga-bilketako jarduketa eta prozedurei dagokienez, aintzat hartuko da 125/2019 Foru Arauaren 164. artikulutik 182. ra ezarritakoa eta, halaber, 36/97 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-bilketa araudia erregulatzen duena.

43. artikulua

1. Udal-administrazioak zerga-zorra ordaintzeko epea atzeratu edo zatitu ahal izango du, obligaziodunen eskariz eta ondorengo epeak aintzat harturik.

9 hilabetera arte diruzainak hala adierazita	$\geq 100,00 \leq 3.000,00$ euro
15 hilabetera arte diruzainak hala adierazita	$\geq 3.000,01 < 8.000,00$ euros
24 hilabetera arte alkateak edo antolaketa saileko alkateorde delegatuak hala adierazita	$\geq 8.000,00$ euro

2. Ez da luzapenik edo zatiketarik egingo 100 eurotik beheragoko zorretan. Kasu berezietan, eta gorabehera justifikatuak jasotzen dituen gizarte aholkularitza zerbitzuaren edo udaleko txostenaren bitartez, alkateak (edo, hala badagokio, antolaketa saileko alkateorde delegatuak), 100 eurotik beherako zorren epeak atzeratu edo zatitu ahalko ditu.
3. Ordainketak geroratzen edo zatikatzen direnean, kopuru horiei indarrean dagoen berandutzaiko interesa gehituko zaie beti. Salbuespena ondoko atalean zehaztutakoa izango da.
4. Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 10.3. artikuluan jasota dagoenez, ez da berandutza-interesik eskatuko borondatezko epearen barruan ordainketa geroratzeko




edo zatikatzeko eskatu eta aldeko erabakia ematen denean, ordenantzan ezarritako baldintzen eta gainerako inguruabarren arabera, baldin eta zorrak aldi aldi muga-eguna bada eta taldea jakinaraztekoak badira, eta beren zenbateko osoa sortu diren ekitaldi berean ordaintzen bada.

5. Ordainketak geroratzeari edo zatikatzeari uko egiten bazaio, borondatezko epea amaitzen denetik ebazpen ukatzailea ematen den arte igarotako denbora hartuko da kontuan, berandutzako interesak kalkulatzeko.
6. Geroratze eskabidearen ebazpena baino lehen ordaintzen badira zorrak, zorraren ordainketa atzeratu deneko epealdiagatik kalkulatuko dira berandutze-korrituak, ZFAOko 26.34 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.
7. Geroratzea edo zatikatzeari onartzen den kasuetan, bai eta geroratzea edo zatikatzeari ukatzen den kasuetan ere, berandutzako interes-tasa hori sortzapena hasten den unean legez indarrean dagoena izango da, eta epe osorako aplikatuko da.
8. Geroratzeak daudenean, baldin eta epea mugaeguneratzen bada eta ordainketa osorik egiten ez bada, bilketarako prozedurak jarraituko du, eta hala denean, ordainarazpen-aldia hasi eta premiamendu-probidentzia emango da ordaindu gabeko zorragatik. Horrez gain, bereahala betearaziko da ZFAOren 60.3 artikuluan xedatu dena aplikatuta.

Zatikatzeari, mugaeguneratzen direnean epe bat baino gehiago badago ordaintzeko, mugaeguneratutzat joko dira ordaintzeke dauden zatikatzeari, eta geroratzeekin moduan jotzeko da.

44. artikulua

1. Ordainketa geroratze edo zatikatzeko eskariak ondoko datu hauek jasoko ditu ezinbestean:
 - a) Izen-deiturak, sozietatearen izena, eta identifikazio fiskaleko zenbakia; eta, kasuan kasu, ordezkariarena ere bai.
 - b) Geroratu nahi diren zorraren informazioa, kopurua, zenbatekoa, ekitaldia eta aldia adieraziz. Epe exekutiboko zorrak badira, eskaerak aldi horretako zor osoa jaso beharko du. Geroratze eskatu den zerga-zorra, eta Udal-administrazioak egindako ordainketa-errekerimendua.
 - c) Geroratzea eskatzeko zergatiak.
 - d) Eskatutako geroratze edo zatikatzeari epeak eta gainerako baldintzak.
 - e) Eskaintzen den bermea, luzatuko den epeari dagokion zenbatekoa 8.000,00 euroko baino handiagoa denean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Araudian 35.artikuluan eta hurrengoetan jasotakoarekin bat etorriz.
 - f) Epeak kobratzeko banku-helbideratzearen agindua; zordunketa egin behar duen zerga-bilketako erakunde laguntzailean zabalduko kontuaren IBAN kodea adierazi behar da. Helbideratze-kontua bakarra izango da geroratuta edo zatikatzeari dauden zor guztietarako. Kontu hori aldatzeko, eskabidea aurkeztu beharko da epea amaitu baino hamabost egun lehenago, gutxienez.
 - g) Eman beharreko dokumentazioa:
 - Pertsona fisikoek: ondasunen zinpeko aitorpena, ogasun-aitorpena, banku-txostenak (azken urteko banku-kontuen kopia)
 - Pertsona juridikoek: azken hiru urteotako ustiapeneko balantzeak eta kontuak (erregistratuak, beharrezkoa bada), etorkizuneko finantza-plana eta bideragarritasun-plana.
2. Kreditu-erakunde edo elkar bermatzeko sozietate baten abal solidarioa edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria eskaintzen denean berme gisa, erakunde horiek berariaz hartutako konpromiso ezeztatzeko hau aurkeztu beharko da eskabidearekin batera: geroratzea onartzen bada behar den abala formalizatzeko konpromisoa.



3. Abal hori lortzea ezinezkoa dela edo abal horren bidez enpresaren bideragarritasuna estuasun larrian jartzen dela justifikatzen denean, finantzen zuzendariordetzak ondoko bermeetakoren bat onartu ahal izango du:
 - a) aldibakarreko higiezin hipoteka,
 - b) aldebakarreko higigarrien hipoteka,
 - c) aldebakarreko bahitura (eskualdatzeduna edo eskualdatzerik gabea) edo
 - d) Nahikotzat jotzen den beste edozein (* * *).

Ez da bermerik eskatuko, geroratutako zorrak 8.000 eurotik beherakoak direnean.

Abala ez den bestelako berme bat eskaintzeko eskatzailearen arrazoiak nahikotzat jotzen ez direnean edo eskarian akats konpongarriren bat hautematen denean, izapideez arduratzen den Organoak horren berri emango dio eskatzaileari, eta hamar eguneko epea eskainiko dio 1. paragrafoan xedatutakoa bete dezan; orobat, ohartaraziko dio horrela egiten ez badu eskariari uko egingo zaiola.

Alkatea (edo, hala badagokio, antolaketa saileko alkateorde delegatuak) bermea ez eskatzea onartu dezakete beharizana ondo dokumentatuta badago.

4. Luzapen-eskariak hilabete epean ebatzi beharko dira.
5. Luzapen-espedienteen ebazpena alkateak edo diruzainak egingo du.

45. artikulua

1. Aurreko artikuluetan adierazitako dokumentu-eskakizunak eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira edo, bestela, dokumentuak falta direla jakinarazten denetik hurrengo hamar egunetan –nolanahi ere, salbuespen gisa, behin betiko fidantzamendua emateko, hilebeteko epea egongo da, ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko baimen-akordioaren jakinarazpenetik aurrera.
2. Epe hori igarota, bermea ez bada gauzatzen, baimen-akordioa indargabetu egingo da, eta Bizkaiko Zerga-Bilketa Araudiaren 34.artikuluari aurreikusitako eraginak izango ditu.
3. Bermea kreditu-erakundearen abal solidarioa, elkarrekiko berme sozietatearen abal solidarioa edo kautio aseguruaren ziurtagiria bada eta zorra ordainketarako borondatezko epearen barruan badago, bermatu beharreko zenbatekoa ordaintzeko dagoen kuota edo isuna gehi horren ehuneko 5 izango da ordainarazpen-errekargu kontzeptuan, dagozkion berandutze-korrituak (ematen den geroratze-ari dagozkionak) gehituta. Epea bi urtekoa izango da.
4. Zor bermatua osorik ordaindu dela egiaztatu ondoren kitatuko dira bermeak. Berme partzialak kitatzeko, berme hori zeukan zorra kitatu beharko da. Bermeak kitatzeko, Diruzaintzaren ebazpena besterik ez da beharko, eta horren bidez ofiziozko izapideak abiaraziko dira.


46. artikulua

Zerga-zorren borondatezko epea honela zenbatuko da:

1. Likidazioaren subjektu pasiboari zuzenean egindako notifikazioa, indibidualki egiten denean edo aipatutako likidazioa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunetik, ezinezkoa denean zergapekoari zuzenean jakinaraztea.
2. Notifikazio kolektiboa behar duten zergen ordainketari dagokionez, dagokion Ediktuan ezartzen denean. Ediktua, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Udaleko iragarki taulan ere bai.
3. Autolikidazioen kasuan, sortzapen-datatik zenbatuta.

47. artikulua

1. Zorrak eskudirutan ordainduko dira, eta jarraian zehaztuko diren bitartekoak erabiliz ordaindu ahalko da, zor bakoitzarentzat Bizkaiko Zerga-bilketako Araudiak eta bakoitzari dagokion Foru Arauak jarritako baldintzekin eta eran.
2. Eskudirutan ordaintzeko, ondoko bideak erabili ahal izango dira:



- a) Legezko dirua.
 - b) Finantza-erakundearen kontura igorritako txekia.
 - c) Banku-helbideratzea.
 - d) Kontura egindako zordunketa
 - e) Bakura egindako transferentzia.
 - f) Kreditu eta debitu txartelak
 - g) Ordainketa-pasabidea
 - h) Udalak baimendutako beste edozein.
3. Udaleko zerga-bilketa erakunde laguntzaileen edo baimendutako beste pertsona edo erakunde batzuen bidez egingo da. Hauexek dira zerga-bilketan udalaren erakunde laguntzaileak: Kutxa-bank, Caixabank, Laboral Kutxa eta Banco Santander Central Hispano eta Caja Rural Vasca
4. Jakinarazpen kolektiboz egindako aldian aldiko zergak banku-helbideratzeen bidez ordaindu ahalko dira.
5. Ezingo da ordainketa bererako ordaintzeko modu bat baino gehiago erabili.

48. artikulua

Zerga-zorrak edo zuzenbide publikoko bestelakoak borondatezko epe barruan ordaintzen ez badira, eta luzapenik edo zatiketarik eskatu ez bada, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergei buruzko Foru Arauak eragin ditzakeen bestelakoen efektuen kaltetan izan gabe, zergapekoaren izan ditzakeen zor luzatu eta zatitu guztiak ordaindu beharra ekarriko du, eta bertan behera geldituko dira borondatezko epearen barruan eman zitzaizkion luzamenduak edo zatiketak.

IV. TITULUA – ZEHATZEKO AHALA

49. artikulua

Zehatzeko ahala administrazio arloko printzipio arautzaileen arabera betearaziko da, 2/2005 Foru Arauan eta zergei buruzko gainontzeko arauetan ezarritako berezitasunekin.

Zehazki, legezkotasun, tipikotasun, erantzukizun, proportziotasun eta ez pilatzeko printzipioak aplikatuko dira. Atzera eragingarritasun printzipioa orokorrean aplikatuko da, foru arau honetako 9. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa kontuan hartuz.

50. artikulua

Foru arauetan edo legeetan arau-hauste gisa tipifikatutako ekintza edo omisioren bat egiten duten 2/2005 Foru Arauko 34. artikuluko 3. apartatuan aipatutako pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak izango dira arau-hausleak. Zerga arau-hauste eta zehapenei dagokienez, aintzat hartuko da 2/2005 Foru Arauko 183. artikulutik 219.ra; eta, halaber, ekainaren 21eko 100/2005 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko xehapen araudia erregulatzen duena.

V. TITULUA – ADMINISTRAZIO-BIDEAN EGINDAKO BERRIKUSPENA

51. artikulua

Zergak aplikatzeko egintza eta jarduketak eta zerga-xehapenak ezartzeko egintzak berrikusi ahal izango dira, eta honetarako aintzat hartuko da 2/2005 Foru Arauaren 220. artikulutik 247.ra ezarritakoa.

Berraztertze errekurtsoa errekurritutako egintza agindu duen organoari aurkeztuko zaio, eta ez du etengo aurkaraturiko egintzaren betearazpena, horrek dakartzan legezko ondorioekin, ezta kuoten edo likidaturiko eskubideen, interesen eta errekarguen bilketa ere, salbu beharrezko bermeak aurkezten badira.

Hala ere, berraztertze errekurtsoa garaiz eta behar den eran jartzean, eten egingo da aurkaraturiko egintzaren betearazpena inolako bermerik jarri gabe, baldin eta zorra borondatezko ordainketa-epearen



barruan badago edo errekurtsua premiamendu probidentziaren aurka jarri bada. Bi kasuotan, betiere, borondatezko ordain-epea amaitzen den unean zor den kopurua 5.000€ baino gutxiagokoa bada.

Aurkaratzeak zerga-zehapen bati eragiten badio, betearazpena automatikoki etengo da, bermerik aurkeztu beharrik gabe.

VI TITULUA - ORDENANTZAK APLIKATZERAKOAN BALIATUKO DEN UDALERRIKO BIDE PUBLIKOEN SAILKAPENA.

52. artikulua

Ordenantzak aplikatzeko, kontuan izanda horietan kaleen kategoria ezinbestekoa dela kasuan kasuko tarifa zehazteko, Udalerriko bide publikoak HIRU KATEGORIATAN sailkatu dira: 1, 2, eta 3.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA


Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskaritza Ordenantza honetan erregulatutakoa hartuko du Udalak arautzat eta, halaber, Ordenantzak biltzen ez duenerako, Foru Arauek ezarritakoa hartuko du aintzat. Honela, organo eta karguen ekibalentzia hau erabiliko da:

Foru Arautegian egindako erreferentziak	Honakoei dagozkie:
Foru Ogasuna	Toki Ogasuna
Ogasun eta Finantza Saila eta Ogasun eta Finantza Foru Diputatua	Alkatetza
Ogasun eta Finantza Foru Diputatuaren menpean dauden organoak eta karguak	Antolaketa arloko zinegotzi delegatua
Diruzaina	Diruzaintza
Foru Erakunde Autonomoak	Udaleko Erakunde Autonomoak
Foru Aldundia	Durangoko Udala

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Hauek izango dira erroldaren mendeko tasak eta zergak onartzeko, horiek jendaurrean erakusteko eta borondatez ordaintzeko datak:

	Onarpena	Erakustaldia	Borondatezko ordainketa
Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga	Alkatetza-dekretua	Urtarrilaren 31tik otsailaren 28ra	Martxoaren 2tik maiatzaren 4ra (helbideratzea eginda dutenei apirilaren 8an sartuko zaie kontuan)
Zaborra eta estolderiak	Alkatetza-dekretua	Seihileko naturalaren bosgarren hilabetearen (maiatza eta azaroa)	1. seihilekoa: Ekainaren 1etik uztailaren 6ra (helbideratzea eginda dutenei ekainaren 8an sartuko zaie kontuan) 2. seihilekoa: Abenduaren 1etik urtarrilaren 11ra (helbideratzea eginda dutenei abenduaren 4an sartuko zaie kontuan)
Auto-taxia	Alkatetza-dekretua	Otsailaren 28tik martxoaren 31ra	Apirilaren 1etik ekainaren 5era (helbideratzea eginda dutenei)




			maiatzaren 8an sartuko zaie kontuan)
Autoen pasabideak	Alkatetza-dekretua	Otsailaren 28tik martxoaren 31ra	Apirilaren 1etik ekainaren 5era (helbideratzea eginda dutenei maiatzaren 8an sartuko zaie kontuan)
Ondasun higiezinaren gaineko zerga	Alkatetza-dekretua	Uztailaren 30etik abuztuaren 31ra.	Irailaren 1etik urriaren 31ra (helbideratzea eginda dutenei urriaren 8an sartuko zaie kontuan)
Ekonomia jardueren gaineko zerga	Alkatetza-dekretua	Irailaren 1etik 30era	Urriaren 1etik abenduaren 4ra (helbideratzea eginda dutenei azaroaren 6an sartuko zaie kontuan)
Terrazak	Alkatetza-dekretua	Urriaren 1etik 31ra	Azaroaren 2tik abenduaren 31ra (helbideratzea eginda dutenei abenduaren 2an sartuko zaie kontuan).

Ezarritako egunak baliogabeak badira, atzeratu egingo dira hurrengo lehen baliodun egunera.

Gorabehera bereziak badira tarteko, epeak aldatu egin daitezke alkatetza dekretu bidez, eta aldez aurretik justifikatu eta gero, eta dagokion publikizitatea emanaz.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onartu da eta 2024ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean; ordenantza aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte iraungo du indarrean.



1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek, lurralde historikoaren toki-ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauak eta zerga hau arautzen duen 4/2016 Foru Arauak aurreikusten dutenarekin bat etorritik, ogasun higiezinaren gaineko zerga ezartzen du.

2. artikulua

1.- Ordenantza udalerrri osoan aplikatuko da.

2.- Ordenantzan bereziki arautu ez diren arloak foru arau honi jarraiki xedatuko dira: Maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua, Ondasun Higiezinaren zergari buruzkoa.

3.- Higiezin bat udal-mugarte batean baino gehiagotan badago, zerga honen ondorioetarako, udalerrri horietako izango da, udalerrri bakoitzean duen azalera kontuan hartuta.

II. IZAERA, ZERGA-EGITATEA ETA BALDINTZA EZ LOTESLEAK.

3. artikulua

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ondasunen higiezinaren gaineko zuzeneko zerga da eta udalerrriko higiezinaren balioa kargatzen du. Zerga honen zerga-egitatea hiri zein landa-ondasun higiezinaren eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko eskubide hauen titulartasuna da:

- a) Ondasun higiezinaren edo haiek afektatuta dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio-emakida.
- b) Azalera-eskubide erreala.
- c) Gozamen-eskubide erreala.
- d) Jabetza-eskubidea.

2. Aurreko zenbakian definitutako zerga-egitateetako bat gertatuz gero, bertan ezartzen den hurrenkeran, kasuan kasuko landa edo hiri-ondasun higiezina ez da egongo zenbaki horretako gainerako modalitateen kargapean.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren kasuan ere hurrenkera horixe aplikatuko da, higiezinaren gaineko emakida-eskubideek higiezinaren luze-zabala agortzen ez duten kasuan izan ezik; izan ere, kasu horretan, zerga-egitatea sortuko da baita emakidari afektatuta ez dagoen higiezinaren zatiaren gaineko jabetza-eskubideagatik ere.


3. Zerga honen ondoreetarako, Higiezinaren Foru Katastroan (maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Araua) hala deskribatzen direnak hartuko dira hiri eta landa-ondasun higiezintzat zein ezaugarri bereziko ondasun higiezintzat.

4. Honako hauek ez daude zerga honen menpe:

- a) Errepideak, bideak, gainerako lurreko bideak nahiz Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko ondasunak zein jabari publiko hidraulikoko ondasunak, baldin eta erabiltzaileentzat aprobetxamendu publiko eta doakoa badute.
- b) Udalen jabetzako ondasun higiezin hauek, udalerrrian bertan kokatuta badaude:
 - Erabilera publikoari afektatutako jabari publikoko ondasunak.
 - Udalak berak zuzenean kudeatzen duen zerbitzu publiko bati afektatutako jabari publikokoak, hirugarren bati kontraprestazio bidez lagatako higiezinak direnean izan ezik.
 - Ondare-ondasunak, hirugarren bati kontraprestazio bidez lagatako higiezinak direnean izan ezik.

4. artikulua

1. Katastroaren ondorioetarako, hauek dira hiri-ondasun higiezinak:



a) Hiri-lurzorua, eta honako hau hartuko da hiri-lurzorutzat:

- Hirigintza-plangintzan hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzorua.
- Hirigintza-plangintzan lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatutako lurzorua.
- Hirigintza-plangintzan lurzoru urbanizagarri sektorizatu-gabe gisa sailkatutako lurzorua, sektorizatzeko plana onartzen den unetik aurrera.
- Hauek dituzten lurrak: bide zolatuak edo espaloi-zintarriak, eta, gainera, estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta argiteria publikoa ere badituztenak.
- Hiri-eraikuntzek okupatutako lurzorua.

Tratamendu bera izango dute nekazaritza arloko legedian xedatutakoaren kontra zatikatzen diren lurrek, baldin eta zatikatze horrek nekazaritza-erabilera hutsaltzen badu.

b) Hiri-eraikuntzak: halakotzat joko dira hurrengo artikuluan berariaz landa-izaerakotzat kalifikatzen ez diren eraikuntza guztiak.

2. Aurreko zenbakian ezarritakotik kanpo geratuko dira ezaugarri bereziko ondasun higiezin batean sartuta dauden lurzoruak eta eraikuntzak. (3/2016 Foru Arauaren 9.artikuluan zehaztutako ezaugarriak).

5. artikulua

1. Katastroaren ondorioetarako, hauek dira landa-ondasun higiezinak:

a) Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera hiri-lurzoru ez diren lurzoruak.

b) Landa-izaerako eraikuntzak. Hauek hartuko dira horrelakotzat: nekazaritza, abeltzaintza, arrain-hazkuntzako edo basogintzako eraikinak eta instalazioak, landa-lurretan badaude eta jarduera horiek garatzeko ezinbestekoak badira.

Aurrekoa gorabehera, halako jardueraren bat garatzeari lotuta dauden eraikinak hiri-ondasun higiezinatzat hartuko dira, baldin eta eraikinok bizitegi- edo turismo-erabilera duen elementuren bat badute.

2. Aurreko zenbakian ezarritakotik kanpo geratuko dira ezaugarri bereziko ondasun higiezin batean sartuta dauden lurzoruak eta eraikuntzak, alegia, Bizkaiko lurralde historikoaren higiezinaren foru katastroaren, maiatzaren 18ko, 3/2016 Foru Arauak erregulatzen dituenak.

III. SALBUESPENAK

6.artikulua


Honako ondasun higiezin hauek salbuetsita daude:

- a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Bizkaiko Lurralde Historikoaren edo bertako toki-erakundearen jabetzakoak direnak, baldin eta zuzen-zuzenean afektatuta badaude nazio-defentsari, herriarraren segurtasunari eta hezkuntza zein espetxe-zerbitzuei.
- b) Auzo-ondasunak eta amankomuneko auzo-mendiak.
- c) Erregelamenduz ezarritako hazkunde moteleko espezieekin landatutako mendien azalera, baldin eta haien aprobetxamendu nagusia egurra edo kortxoa bada, betiere arbolen dentsitatea espezie bakoitzaren kasuan berezkoa edo normala dena bada.

Basoen administrazioak onartutako antolamendu-proiektuen edo plan teknikoaren arabeko baso-berritzeak edo zuhaiztien berritzeak egiten diren mendien azalera. Salbuespen honek hamabost urte iraungo du, salbuespenerako eskabidea egiten den zergaldiaren hurrengotik zenbaturik, beti hazkunde arineko espezieak ez badira.

d) Eliza Katolikoaren higiezinak, Espainiako estatuak eta Egoitza Santuak 1979ko urtarrilaren 3an sinatutako Gai Ekonomikoei buruzko Akordioan ezarritakoaren arabera. Elkarte konfesional ez-katolikoaren higiezinak, baldin eta elkarteok legez aintzatetsita badaude, Estatuak halako elkarteekin sinatutako lankidetzak-akordioetan ezarritakoaren arabera —akordio horiek Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluan aipaturikoak dira-.

e) Espainiako Gurutze Gorriaren higiezinak eta erregelamenduz zehazten diren antzeko beste erakunde



batzuenak.

- f) Atzerriko gobernuen higiezinak, haien ordezkari diplomatikoek edo kontsulatuetaoek edo haien erakunde ofizialek erabiltzeko direnean, baldin eta elkarrekikotasuna badago edo egoera hori indarrean dauden nazioarteko hitzarmenekin bat badator.
 - g) Indarrean dauden nazioarteko hitzarmenak direla bide salbuespena aplikatu behar zaien organismo edo erakundeen higiezinak.
 - h) Trenbideek atzemandako lurak eta lur horietan dauden eraikinak, baldin eta geltokiak edo biltegiak badira edo lineak ustiatzeko ezinbestekoa den zerbitzuren baterako behar badira.
 - i) Ez daude salbuetsita ostalaritzako, ikuskizunetako, merkataritzako eta aisialdirako establezimenduak, ez eta enpleguak bizitzeko diren etxeak, zuzendaritza-bulegoak eta fabrika-instalazioak ere.
 - j) Euskal Herriko Unibertsitatekoak.
 - k) Udalei kontraprestazio barik lagatako ondasun higiezinak
- Era berean, eskaria egin ostean, salbuetsita egongo dira:

a) Monumentu izaera duten ondasun higiezinak (Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. paragrafoaren a) atalean adierazitakoak). Salbuespen horren barnean daude bai kultura-ondasun kalifikatuak bai inbentariatuak, betiere, aipatutako legean ezarritako eskakizunak betetzen badituzte.

Salbuespen izango dira, orobat, monumentu-multzo baten zati diren ondasun higiezinak (Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. paragrafoko b idatzatzen aipatutakoak). Salbuespen horrek, ordea, babes bereziko edo babes ertaineko erregimenaren barnean dauden higiezin kalifikatuak edo inbentariatuak hartuko ditu aintzat, betiere lege horrek zehaztutako eskakizunak betetzen dituzte.

Kultura-ondasuntzat –kalifikatua nahiz inbentariatua– aitortutako arkeologia-guneren baten barnean dauden ondasun higiezinak (7/1990 Legearen 44. artikuluan jasotakoak) ere salbuetsi egingo dira, betiere, esku-hartze arkeologikoren bat egin ostean, gune horietan topatutako arrastoak bertan uzteko beharra adierazten badu Eusko Jaurlaritzak, eta, ondorioz arrasto horiek ezin badira ezabatu edo lekuz aldatu.

b) Hezkuntza-itunen araubidean dauden ikastetxe pribatuak, harik eta ikastetxe itundu izaera hori galdu arte.

c) Gizarte-jarduerak egiteko baino ez diren ondasun higiezinak, baldin eta delako salbuespen hori kasu bakoitzean dagokion udalak erabaki badu eta kontuan hartuta, betiere, zer ezartzen den Irabazizkoak ez diren erakundearen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko 2004ko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauan.


d) Ondasun Higiezinaren Zerga arautzen duen 4/2016 Foru Arauaren 3.4 artikuluko ezarritakoaren babesean eta zergaren diru-bilketa kudeaketari dagozkion eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak aintzat hartuta, 6,00 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duten hiri-higiezinak salbuetsita daude, eta gauza bera lurralde historikoaren aurrekontu orokorren foru arauak aurretik eguneratu dituen zenbatekoak.

IV. SUBJEKTU PASIBOA

7. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak hauek dira, zergadun gisa: pertsona fisikoak eta juridikoak, Zergei buruzko Foru Arauaren 34. artikuluko 3. zenbakian aipatutako erakundeak eta testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenak, baldin eta zerga honen zerga-egitatea den eskubide baten titular badira.

Emakidadun bat edo batzuk badira zergadun, emakidadun bakoitza bere kuotaren arabera izango da zergadun, eta, kuota erabakitzeko, kontuan hartuko da zer katastro-balio dagokion emandako azalerari eta zer katastro-balio dagokion emakida bakoitzari zuzenean lotutako eraikinari. Emakidadunek Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren 3/2016 Foru Katastroari buruzko Foru Arauan aipatzen diren deklarazioak egiteko betebeharra badute ere, ondasun higiezina afektatuta edo atxikita dagoen ente edo erakunde



publikoak edo ondasunaren administrazio eta kudeaketaren ardura duenak emakidei buruzko informazioa eman beharko dio Ogasun eta Finantza Sailari, erregelamenduz ezartzen diren modu eta baldintzetan.

Jabea zergaduna bada emakidek ukitzen ez duten azalera delaeta, aurreko paragrafoan aipatzen den ente edo erakundeak haren ordezk gisa jardungo du, eta ezingo dio zergadunari jasanarazi berak ordaindutako zerga-zorraren zenbatekoa.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa aplikatu behar bada ere, subjektu pasiboak ahalmena izango du berak jasandako zerga-zama beste batzuei jasanarazteko, zuzenbide erkideko arauari jarraituz.

Udalak dagokieo kuota likidoaren zatia jasanaraziko die zergaren subjektu pasibo izan ez arren jabari publikoko ondasunak edo ondare-ondasunak kontraprestazio bidez erabiltzen dituztenei, eta azken horiek behartuta daude adierazitako kuota hori jasatera. Bada, bakoitzari jasanarazi beharreko kuota kalkulatzeko, kontuan hartuko da zer katastro-balio dagokion erabilitako azalerari eta zer katastro-balio dagokion erabilera-eskubidearen errentari edo lagapen-hartzaile bakoitzari zuzenean lotutako eraikinari.

3. Ondasun higiezinak pro indiviso badagozkie pertsona askori, katastroko titulartasuna bakoitzari dagokion kuotaren arabera esleituko zaio erkide, kide edo partaide bakoitzari eta, hala denean, haiek guztiek osatutako erkidegoari; erkidego hori identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez adieraziko da.

Kasu horretan, zerga-kuota zatitzea eskatu ahal izango da, baina, horretarako, behar-beharrezkoa da ordaintzera behartuta dauden guztien datu pertsonalak eta helbide fiskalak ematea.

Zerga-kuota ezingo da zatitu baldin eta zatiketaren ondorioz kuotak 6,00 euro baino txikiagoak badira.

4. Ez da zerga-kuota zatituko eta likidazio bakarra egingo da beti, higiezinaren titulartasunaren kasu haue-
tan: irabazpidezko ondasunen ezkontza-eraentzan edo ondasunen foru-komunikazioan dauden ezkontide biei edo izatezko bikote bateko kide biei —itundu duten ekonomia- eta ondare-araubidea aurrekoetako edozein dela— badagokie.

5. Zerga honen zerga-egitate diren eskubideen titulartasuna aldatzen bada, edozein arrazoi dela-eta, es-
kubideon xede diren ondasun higiezinak zerga-kuota osoa ordaintzeko erabili beharko dira, erantzukizun subsidiarioaren araubidean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 42. arti-
kuluko 1. Zenbakiko d) letran ezarritakoaren arabera.

Horretarako, notarioek informazioa eskatuko diete bertaratuei, jakiteko ea bere aurrean eskuetsiko dituz-
ten dokumentuen bidez eskualdatzen duten higiezinaren zerga hau dela-eta ordaindu gabeko zorrik dagoen
eta ohartaraziko diete ezen ondasunok zerga-kuota ordaintzeko erabili beharko direla.

6. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 34. artikuluko 3. zenbakian aipa-
tutako erakundeetako partaide-kide edo titular-kideek solidarioki ordainduko dute zerga honen kuota,
bakoitzak bere partaidetzari dagokiona, Higiezinaren Foru Katastroan hala inskribatuta badaude. Katastroan
inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko da beti.

V. ZERGA-OINARRIA

8. artikulua

1. Zerga honen zerga-oinarria ondasun higiezinaren katastro-balioa izango da, zeina Bizkaiko Lurralde Histo-
rikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauan arautzen den (maiatzaren 18ko 3/2016 Foru
Araua).


2. Katastro-balioa higiezinaren balio fiskal bat da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak modu objektiboan zehaztuko
du, Higiezinaren Foru Katastroan jasota dauden datuak oinarri hartuta.

3. Katastro-balioa ezin da inoiz merkatu-balio probablea baino handiagoa izan, balio hori hau izanik: kar-
garik gabeko higiezin bat alderdi independenteen artean eta merkatuko baldintza arruntetan eskualdatuz
gero ordain litekeen preziorik probableena. Horretarako, Ogasun eta Finantzarako foru diputatuak foru
aginduz finkatuko du merkatuaren erreferentziako koefiziente bat mota bereko ondasunetarako.

4. Salmenta-prezioa Administrazioak mugatuta duten ondasun higiezinaren kasuan, katastro-balioa ezin da
inoiz prezio hori baino handiagoa izan.

9. artikulua

1. Ondasun higiezinaren katastro-balioa lurzoruaren balioak eta eraikinenak osatuko dute.



2. Katastro-balioa zehazteko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Higiezinaren kokalekua, lurzoruari eragiten dioten hirigintzako inguruabarrak eta ekoizpenerako duen gaitasuna.
- b) Eraikinen exekuzio materialeko kostua, kontrataren mozkinak, ordainsariak eta eraikuntza kargatzen duten tributuak, eraikinen erabilera, kalitatea eta antzinasuna.
- c) Ekoizpen-gastuak eta sustapeneko enpresa-jardueraren mozkinak, edo, halako sustapenik ez badago, kasu horri dagozkion bestelako faktoreak.
- d) Merkatuko inguruabarrak eta balioak.
- e) Erregelamenduz zehazten den beste edozein faktore esanguratsu.
- f) Bai eta ondasun higiezinaren azalera ere.

3. Ondasun higiezinaren balioa zehazteko erregelamenduz zehazten diren arau teknikoek jaso egin behar dituzte, arestian azaldutako irizpideekin bat eta ondasun higieziari eragiten dieten ezaugarri intrintseko eta estrintsekoen arabera, haien katastro-balioa zehaztea ahalbidetzen duten kontzeptuak, erregelak eta gainerako faktoreak.

10. artikulua

Katastro-balioa higiezinaren balio fiskal bat da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak modu objektiboan zehaztuko du, Higiezinaren Foru Katastroan jasota dauden datuak oinarri hartuta.

Hiri- zein landa-ondasun higiezinaren eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren datuen multzoak osatzen du Higiezinaren Foru Katastroa, ondasunon ezaugarri fisiko, ekonomiko eta juridikoekin. Bertan, haien azalera, kokapena, mugak, laborantza motak edo aprobetxamenduak, erabilera edo xedea, eraikinen kalitatea, irudikapen grafikoa, katastro-balioa eta katastroko titulartasuna islatuko dira. Katastroko erreferentziak ere jasoko ditu, katastroko ondasun higiezinaren identifikazio-kode gisa. Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroaren 3/2016 Foru Arauaren I.tituluan aurreikusitako eran egingo da.

Aipatutako katastro-balioak, kasuan kasu, errebisatu, aldatu edo eguneratu ahalko dira Bizkaiko lurralde historikoaren higiezinaren foru-katastroaren, maiatzaren 18ko, 3/2016 Foru Arauaren V.kapituluko II.tituluan aurreikusten duenaren arabera.

VI. KUOTA, SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

11. artikulua

1. Zerga honen kuota osoa kalkulatzeko, zerga-oinarriari dagokion karga-tasa aplikatu behar zaio.
2. Kuota osoa murriztetik lortzen da kuota likidoa, hala badagokio, aurreikusitako hobarien zenbatekoa murriztuko zaio.
3. Hiri-izaeradun ondasunei aplikagarri zaien ondasun higiezinaren gaineko zergaren karga-mota %0,2349an 0,265%. finkatuko da.

Nolanahi ere, ondorengo karga-tasak ezartzen dira hiri-erabileraren arabera berezituak, betiere, hiri-izaeradun ondasun higiezinaren baloraziorako katastro-arauak ezartzen dituen erabilerak aintzat hartuta.

- Industria-erabilerarako (I) karga-tasa hauxe da: 0,944%.
- Merkataritza-erabilerarako (C) karga-tasa hauxe da: 0,633%.
- Gainerako erabileretarako, bizitegi-erabilera (V) eta beste erabilera batzuk (Y) izan ezik, beraien tipo aplikagarria 11.3 artikuluan finkatuko delarik, karga-tasa hauxe da: 0,500%.

Halaber, honako tipo hauek ezartzen dira hiri-izaeradun ondasun higiezinarentzat, betiere, ondasun higiezinaren baloraziorako katastro-arauak ezartzen dituen erabilerak aintzat hartuta. Erabilera bakoitzerako katastro-balioa ondorengo koadroan jasotzen da:



ERABILERAK	KATASTRO BALIOA	KARGA TASA
INDUSTRIALA (I)	225.000€	% 1,944
MERKATARITZAKOA (C)	140.000 €	% 1,440
BIZITEGIKO (V) eta (Y)	195.000€	% 0,328
GAINERAKO ERABILERAK (V) eta (Y) izan ezik	290.000€	% 1,000

Ondasun higiezinak erabilera ezberdinak badituzte eraikigarritasun- edo menpekotasun nagusiaren erabilerrari dagokion tipo ezarriko da.

4. Nekazaritza izaerako ondasun higiezinak gaineko zergaren karga-tasa %0,115(e)an ezarriko da.
5. Lurralde historikoaren higiezinak foru-katastroaren 3/2016 Foru Arauaren aldi baterako xedapen bakarra aplikagarri zaien izaera berezidun ondasun higiezinak %0,80 tasa-karga aplikatuko zaie.

12. artikulua

1. Obra berri bat egiteko alta izendapena duten interesatuak, hala eskatzen badute, urbanizazio, eraikuntza eta sustapenerako Enpresen jardueraren xede diren ondasun higiezinak zergaren kuota osoan %50eko/100 m²ko hobaria izango dute, bai obra berria denean edo zaharberritze-lanak egiten direnean, baldin eta ibilgetuaren ondasunen artean ez badaude.

Aipatutako hobaria jaso ahal izateko interesatuak ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

- Zuinketa-aktaren egiaztatzea
- Enpresaren jardura urbanizazio, eraikuntza edo higiezinak sustapenerako denari buruzko egiaztatzea. Berau, sozietatearen estatutuarekin agertu behar da.
- Higiezinak inmozitatuaren barruan ez dagoenari buruzko egiaztatzea. Berau, sozietatearen administrazioaren egiaztatze bidez egongo da.

Hobari hori obrei ekin eta hurrengo zergalditik hasi eta obrak amaitu eta hurrengo zergaldira bitartean jaso ahal izango da, baldin eta aldi horretan urbanizazio- edo eraikuntza-obrak egiten badira.

2. %50eko hobaria lortzeko eskubidea izango dute babes publikoko etxebizitzak gaineko zergaren kuota osoan eta honen antzekoak direnetan, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren araudiarekin bat badatoz, behin betiko kalifikazioa lortu eta hurrengo hiru zerga-aldietan.


Aipatutako hobaria interesatuak eskatzen badu emango da. Eskaria, hiru zerga-aldiak amaitu baino lehen egin ahal da, eta eskaria egin deneko hurrengo zerga-alditik izango du eragina.

Hobaria jaso ahal izateko, interesatuak, ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar dute:

* Babes publikoko etxebizitzaren kalifikazioari buruzko egiaztatzearen fotokopia.

3. %95eko hobaria lortzeko eskubidea izango dute nekazal kooperatibetako eta ustiaketa komunitarioko landa-ondasunen kuota osoan eta, hala balegokio, zergaren errekaruan, baldin eta urriaren 14ko Kooperatiben Araudi fiskalari buruzko 9/1997 Foru Agindua betetzen badute.

4. %50eko hobaria izango dute ondasun higiezinak zergaren gaineko kuota osoan, "Etxebizitza hutsa programan" sartzen direnak, Eusko Jaurlaritzaren, abenduaren 30eko, 316/2002 Dekretuak arautzen duena. Halaber, etxebizitzak alokairua gazteen artean sustatzeko asmoz, %50eko hobaria izango dute Udalak espresuki onartutako dekretoak jasotako etxebizitzak. Hobariok ez dira bateragarriak izango, eta honek esan nahi du bietako bat bakarrik jaso daitekeela.



5. %50eko hobaria izango dute ondasun higiezinaren zergaren gaineko kuotan, energi iturri berriztagarrien aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatu dituzten ondasun higiezinak, beti ere hauek Eraikuntzari buruzko Kode Teknikoa (EKD) lege indarrean sartu baino lehen eraiki baziren.

Hobaria jaso ahal izateko, eraikin inguru osoari eskaera energetikoaren murriztapen bat eragiten dion eta baldintza hauek bete dituen interbentzio orokor bat suposatu behar du: EKD-DB-HE1-ek ezarritako energi berriztagarriaren kopuruak errespetatzea, Eraikinetako Instalakuntza Termikoen Erregelamenduari (EITE) egokituta egotea, EKD-DB-HE3-k ezarritako argi-instalakuntzen eraginkortasun energetiko maila eta EKD-DB-HE4-k ezarritako eguzki-energia bidezko osasun ur bero ekarpen maila bete behar ditu eta azkenik EKD-DB-HE5-k jasotako energi fotovoltaiko kontribuzio minimoa bete.

Hobaria jaso ahal izateko, interesatuek eskaria aurkeztu behar dute. Aurretik aipatutako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen duen dokumentazioa eskariari erantsi behar diote.

Hobariak, eskaria egiten den urtealdi bereko zerga kuotan izango du bakarrik eragina, betiere, padroia igorri ez bada eta, hala balitz, hurrengo urtean egingo litzateke.

6. %60eko hobaria izango dute ondasun higiezinaren zergaren gaineko kuotan, legeriaren eta hirigintzako planen arabera nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza edo arrantzaren arloko edo antzeko arloren bateko oinarritzko jarduerak nagusi izateagatik edo lotura izateagatik bereizita dauden eta udalerriko herri-gune sendotuetan baino zerbitzu gutxiago dituzten herri-guneetan hiri-lurreko ondasunetarako, baldin eta herri-gune horietako inguruabar ekonomikoak aintzat hartuz babes berezia behar dutela uste bada.

7. Ondasun higiezinak bizitegi-erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, Durangoko Udalak %50eko erre-kargua ezarriko du zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Bizitegi-erabilera duen ondasun higiezinak hartuko da, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatuta badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela Ondasun Higiezinaren Zergaren sortzapen datan. Nolanahi ere, ez da erre-kargua aplikatuko ohiko bizileku gisa erabiltzen ez diren bizitegi erabilera-ondasun higiezinak, betiere, honako inguruabar hauek ematen badira:

a) Ostatatze, pentsio, ostatu eta antzekoen gisa erabiltzen direnak.

b) Erakunde publikoren baten esku utzitakoak alokatu ditzan.


d) Hirugarren adinekoen egoitzetan erroldaturiko pertsonen titulartasuna duten etxebizitzak. Errekargua ez eskatzea egoitzara sartu aurretik egoiliarren ohiko etxebizitza zen etxebizitzari bakarrik aplikatuko zaio. Hori egiaztatzeko, egoitzaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, sarrera-data adierazita. Halaber, erre-kargu honetatik salbuetsita geratuko dira menpekotasun egoera egoteagatik beste etxebizitza batera desplazatu behar diren pertsonen etxebizitzak, betiere, pertsona horiek badira etxebizitzaren titularrak. Halaber, salbuetsita geratuko dira menpekotasun egoeran dauden pertsonen arretaz arduratzen direnak edo ezkontideak, bikoteak edo odolezko ahaideak direnak ahaidetasun hirugarren mailara arte.

e) Gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituztela frogatzen duten etxebizitzak. Eskatuko diren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan ezarritakoak izango dira. Horretarako, ondasun higiezinaren jabeak txosten tekniko bat aurkeztu beharko du, eskumena duen teknikariak sinatuta (arkitektoa), etxebizitzak bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituela eta bete ezin dituela frogatzen duena.

f) Transmisio bidean dauden etxebizitzak, betiere, transmisioaren sortzapen-dataren aurreko urtealdiari badagokio.

g) Zergaren hobariren bat jaso dezaketenak.

h) Udalaren ekonomia jardueren gaineko zergaren matrikulan alta emanda dauden jarduerari dagozkienak.



i) Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 9 hilabete baino gehiago errentan emanda egon diren etxebizitzak (errentan emandakoak bakarrik, ez dira barne hartzen erabilera-lagapenak). Dokumentazio hau aurkeztu beharko da, aplikatu ahal izateko:

1. Interesdunak sinatutako eskabidea.
2. Behar bezala datatutako eta sinatutako alokairu-kontratua. Kontratu horretan jaso beharko da higiezinak etxebizitza-erabilera izango duela xede edo erabilera gisa.
3. Zergaren sortzapenaren aurreko urteko errentak kobratu izanaren banku-ziurtagiriak. Alokairu-kontratu horien berri emango zaio Bizkaiko Foru Ogasunari.

j) Herentzia baten parte diren etxebizitzak, titularra hil eta 2 urteko epean. Heriotza-ziurtagiria aurkeztuz egiaztatuko da egoera hori.

k) Formalki aurre-egoeran deklaraturako eraikinetan kokaturako etxebizitzak.

l) Hiri-katastroan bi erregistro-finka independente osatzen dituzten etxebizitzak, baldin eta etxebizitza bakar gisa erabiltzen badira. Nolanahi ere, inguruabar horretatik kanpo geratuko dira etxebizitza bakarrean Administrazioari argitu gabeko taldekatze-lanak edo -jarduketak. Udal-zerbitzu tekniko eskudunek egingo dute inguruabar horren balorazio-txostena.

m) Lurzoru urbanizaezinean nahiz lurzoru urbanizagarrian kokaturako etxebizitzak.

n) Hirigintza aldetik antolamenduz kanpokotzat kalifikaturako eraikinetan kokaturako etxebizitzak.

o) Ohiko bizilekua ez izan arren, zerga sortu aurreko ekitaldian gutxieneko kontsumo hau egiaztatzen duten etxebizitzak:

a) 0,21 metro kubiko edo gehiagoko ur-kontsumoa etxebizitza eta hilabete bakoitzeko, edo 2,47 metro kubiko edo gehiagoko ur-kontsumoa etxebizitza eta urte bakoitzeko.

b) Etxebizitza bakoitzeko 24 kilowatt orduko edo gehiagoko elektrizitate-kontsumoa, eta etxebizitza eta urte bakoitzeko 291 kilowatt orduko edo gehiagoko elektrizitate-kontsumoa.

p) Mendekotasun-balorazioaren bidez egiaztatutako zaintza pertsonaleko beharrengatik zaintza horren erantzule den senideren baten etxebizitzan bizi diren eta errolatuta dauden pertsonen titulartasuneko etxebizitzak. Salbuespen hori bakarrik aplikatuko zaio mendekotasuna duen pertsonaren ohiko etxebizitza den etxebizitzari, familia-etxebizitzara lekualdatu aurretik.

Errekargu hau aplikatzerako orduan kontuan hartuko dira etxebizitzaren eranskinak, betiere, eranskinak eta etxebizitza finka bakar modura agertzen badira erregistratuta.

Durango Udalak, ofizioz, zerga honetako subjektu pasiboen zerrenda aterako du, hau da, ohiko egoiliar moduan erregistratuta ez dauden bizitegi erabilerako ondasun higiezinaren titularrena.

Errekarguaren berri jakinaraziko zaie subjektu pasibo bakoitzari dagokion administrazio-prozedura tramitatu eta gero. Ebazpen honen aurka egokien deritzen errekurso edo erreklamazioak aurkez ditzakete indarrean dagoen araudiak ezartzen duen eran.


Errekargua ez aplikatzea eskatzeko epea honako hau izango da:

a) Aurreko ekitaldian errekkargua izan duten ondasun higiezinentzat abuztuaren 31ko esposizio-epea amaitu arte.

b) Aurreko paragrafoko jakinarazpena jasotzen duten ondasun higiezinak, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

8. Zergaren kuotaren % 90eko hobaria izango dute indarrean dagoen legeriaren arabera kategoría orokorreko zein bereziko familia ugariaren titular diren subjektu pasiboen ohiko etxebizitza osatzen duten higiezinak, baldin eta familia-errentak dagokion ekitaldirako finkaturako lanbide arteko gutxieneko soldata halako 4,5 gainditzen ez badu.

Hobaria aplikatzeko oinarri moduan hartzen den familia-errenta kalkulatzeko, familia-politiken esparruko familia-errentaren estandarizatzeko-sistemari buruzko, uztailaren 24ko, 154/2012 Dekretuak ezarritako kalkulak hartuko dira kontuan.



Subjektu pasiboa Durangoko etxebizitza baten baino gehiagoren titularra bada, hobaria familia-unitatearen edo haren zati handienaren ohiko etxebizitzari baino ez zaio aplikatuko, eta haren Gutxieneko Balio Egozgarria ez da 300.000 eurotik gorakoa izango.

Subjektu pasiboa eta familia unitateko gainerako kideak Durangon erroldatuta egon behar dira euren ohiko etxebizitzan, arbasoen banaketa kasuetarako familia ugarien gaineko araudiak ezartzen duenaren kaltetan izan gabe. Hobaria jasotzeko eskari-orria eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar da:

- a) Subjektu pasiboaren IFZ edo AIZren fotokopia
- b) Familia ugaria tituluaren fotokopia, Bizkaiko Foru Aldundiak emana eta, legediaren bat etorriz, indarrean dagoena.
- c) Ogasunaren errentaren behin-behineko likidazioa, zerga-oinarri orokorra eta aurrezkia bereizita.

Hala ere, berariaz aipatu beharko dute dibertsitate funtzionala duten familia-unitateko kideak daudela, halakorik izanez gero, eta behartuta egongo dira hobari honen baldintza eta betekizunetan gertatzen diren aldaketak jakinaraztera, eta, nolanahi ere, aldaketak gertatu diren hurrengo ekitalditik aurrera izango dituzte ondorioak.

Hobari hori baliatu ahal izateko, subjektu pasiboak hobari hori ematea eskatu beharko du ondorioak dituen zergaldiaren aurreko ekitaldian. Hala ere, onura fiskala ekitaldi bakoitzeko urtarilaren 15a baino lehen eskatzen denean, onura fiskala eskatzen den ekitaldirako emango da, baldin eta tributua sortzen den egunean hura baliatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen badira.

9. Zergaren kuota osoan % 90erainoko hobaria jasotzeko eskubidea izango dute, artikulua honetan arautzen diren baldintzak betez gero, egoera ahulean dauden subjektu pasiboen ohiko etxebizitzek, beti ere kotizazio gabeko pentsio hartzaile, diru-sarrerak bermatzeko errentadunek edo bizitzeko gutxieneko diru sarrera jasotzen dutenek, ondoren zehazten den taularen arabera.

Hobari hori aitortzeko, guraso bakarreko familiatzat hartuko da soilik gurasoa, zergaren subjektu pasiboa baldin bada, eta harekin bizi diren seme-alabek osatutako bizikidetza-unitatea, 23 urtera artekoa, horiek ekonomikoki pertsona bakar horren mende daudenean. Ez dira inola ere guraso bakarreko familiatzat hartuko ebazpen judizial bidez zaintza eta jagoletza partekatua ezarrita dutenak

Subjektu pasiboa	Hobariaren zenbatekoa
Ohikoa	70%
Guraso bakarreko familiak	90%

Ohiko etxebizitzatzat hartuko da subjektu pasiboak erroldatuta dauden etxebizitza. Hobari honetaz baliatu ahal izateko, subjektu pasiboak eragina duen zergaldiaren aurreko ekitaldian eskatu beharko du hobaria.

Oro har, hobariak eskatzeko epea maiatzaren 31n amaituko da, hobari bakoitzak ezar ditzakeen epeei kalterik egin gabe.


13. artikulua

1.- Zerga zergaldiko lehen egunean sortuko da.

2.- Zergaldia urte naturala da.

3. Higiezinaren Foru Katastroari deklaratu edo komunikatu behar zaizkion egitate, egintza edo negozioak katastroan ondorioak sortzen dituzten unearen osteko zergaren sortzapena gertatzen den unean izango dira eraginkorrak, baina eraginkorrak izateko ez dago zertan haiei dagozkien administrazio-egintzen jakinarazpena egin behar.

Katastro-balioak berrikusteko edo aldatzeko prozeduren ondorioz emandako egintzak Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Araua zehazten den baldintza beretan izango dira



eraginkorrak.

VII. ZERGAREN KUDEAKETA

14. artikulua

1. Zerga kudeatzeko orduan katastro-eroldan dagoen informazioa erabiliko da. Erroldak honakoak jasoko ditu: ondasun higiezinaren izaera, ondasun higiezinaren gaineko zerga subjektu pasibo moduan agertzen diren katastroen titularrak, katastro-balioak eta katastro-erreferentzia. Durangoko Udalak urtero egingo du errolda, halaxe ezartzen baitu higiezinaren foru katastroaren araudi erregulatzailerak.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak urtero egingo du errolda, eta Durangoko Udalaren esku egongo da hamabost eguneko epean. Interesatuei erroldaren berri emango zaie Bizkaiko Foru Aldundiaren Internet orriaren bidez eta dagozkion prozedura elektronikoen bitartez.

3. Katastroko errolda jendaurrean jartzeko epea amaituta eta errekursoak eta/edo erreklamazioak ebatzita, udalek ordainagiriak prestatuko dituzte eta ordainagiritan jasoko diren likidazioak biltzen dituzten kobrantza-zerrendak onartuko dituzte.

4. Subjektu pasibo bati dagozkion zerga honen kuotak kobrantza-dokumentu bakarrean taldekatu ahal izango dira, baldin eta Durangoko udalerrian dauden landa-ondasunei badagozkie.

15. artikulua

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga kudeatu, ikuskatu eta — hala borondatezko epean nola epe exekutiboan— biltzeko ahalmenak zein zerga-kudeaketa bidean emandako egintzak berrikusteko ahalmena Durango Udalari dagozkio, hurrengo 3. Zenbakian ezartzen denaren kaltetan izan gabe.

2. Hain zuzen ere, udalei dagokie bai salbuespenak eta hobariak aitortzea eta ukatzea, bai zerga-zorraz zehazteko likidazioak egitea, bai kobrantza-dokumentuak jaulkitzea, bai zor ez diren sarreraren itzulketarako espedienteak ebatzea, bai egintza horien guztien aurka jartzen diren errekursoak ebatzea, bai eta gai horietan guztietan zergadunari laguntza zein aholkuak emateko beharrezkoak diren jarduketak egitea ere.

Aurreko paragrafoan esandakoaren kaltetan izan gabe, salbuespen eta hobarien emakida eta ukatzearen gaineko ebazpena Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi behar zaio.

3. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio errolda egitea eta balioen ponentzia garatzea eta onartzea, betiere, lurzorua mugaketa egin eta gero. Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio katastro-balioak finkatzea, errebisatzea, aldatzea eta eguneratzea.

4. Edozelan ere, aurreko eginkizunak Udalari delegatu ahal dizkio Bizkaiko Foru Aldundiak araudiak ezartzen duen eran.

5. Higiezinaren katastroen eraketa, zainketa, errebisioa eta gainerako eginkizunak Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenekoak izango dira, eta katastro- eta balorazio-zerbitzuak bideratuko ditu, zuzenean, edo lankidetzaren bidez, betiere, araudiak ezartzen duen eran.


6. Katastroen ikuskerak Bizkaiko Foru Aldundiak egingo du, Udalekin egin daitezkeen lankidetzaren bidez, kaltetan izan gabe eta, betiere, araudiak ezartzen duen eran.

16. artikulua

Durangoko udalerriko mugapean edo jurisdikziopean dauden notarioek, erregistratzaileek, organoek edota agintari judizial edo administratiboek (ondasun higiezinaren eraldaketak —ordenantza honetan eta 3/2016 eta 4/2016 Foru Arauetan erregulatutakoak— aditzera ematen dituzten egintzak, negozioak edo prozedurak euren aurrean aurkeztu ohi dira) katastro-zenbaki finkoa duten ondasun higiezinaren katastro-identifikazioa eskatu beharko dute. Hiriko ondasun higiezinaren, poligonoaren katastro-erreferentzia jaso beharko da; landako ondasunetan, berriz, partzelaren katastro-erreferentzia, betiere, erregelamenduz ezarritako moduan. Eta horren guztiaren helburua izango da eragin errealeko egintzen edo negozioen eta hiriko nahiz landako higiezinaren katastroaren arteko koordinazioa bermatzea.

17. artikulua

1. Edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatu, eta Bizkaiko lurralde historikoaren zerga orokorren, martxoaren 10eko, 2/2005 Foru Arauaren 34 artikuluen 3. atalak aipatzen dituen edozein




erakunde, derrigortuta dago aipatutako Foru Arauaren 92. artikulua ezartzen duen lankidetzaren betetzera zergekin zerikusia duten datu, txosten edo aurrekariari dagokienez, alegia, beste pertsona batzuekiko harreman ekonomiko, profesional edo finantzakoei badagozkie eta, betiere, ondasun higiezinaren gaineko zerga-eroldaren edo higiezinaren katastroaren datu fisikoak, ekonomikoak eta juridikoak eratzeko, mantentzeko eta eguneratzeko interesgarri badira.

2. Herri administrazioek, gainerako herri-erakundeek, fede-emaile publikoak eta, oro har, funtzio publikoak egiten dituztenek, Durangoko Udalak errolda eratzeko eta mantentzeko eska dakizkiekeen datu eta aurrekariak eman beharko dizkiote Durango Udalari, betiere, Bizkaiko lurralde historikoaren zerga orokorren gaineko, martxoaren 10eko, 2/2005 Foru Arauak aurreikusten dituen terminoetan.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau publikatu eta hurrengo egunean egongo da indarrean, eta indarrean jarraituko du, aldatu edo indargabetu arte.



2. EKONOMIA-JARDUEREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua

Udal honek –Lurralde Historikoaren Tokiko Ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauan nahiz zergaren 6/1989 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera– ekonomia-jardueren zerga eskatzen du, ordenantza honen bat (bertan jasotzen dira indize aplikagarrien koefizienteak eta eskala adierazten dituzten eranskinak.

2. artikulua

Udalerri osoan aplikatuko da Ordenantza hau.

Ordenantza honetan erregulatzen ez denari dagokionez, Ekonomia Jardueren Zerga arautzen duen, ekainaren 30eko, 6/1989 Foru Arauak aurreikusten duena hartuko da aintzat.

II. IZAERA ETA EGITATE ZERGAGARRIA

3. artikulua

1. Izaera errealeko zerga zuzena da ekonomia-jardueren gaineko zerga.
2. Udalerrian jarduera enpresarialak, profesionalak edo artistikoak egitetik sortzen da ekonomia-jardueren gaineko zergaren egitate zergagarria, eta berdin dio jarduera horiek lokal jakin batean egiten diren ala ez, edota zergaren tarifetan zehaztuta datozen ala ez.
3. Jarduera hauek hartuko dira aintzat zerga honetan: abeltzaintzako enpresa-jarduerak –independenteak direnean–, meatzaritzakoak, industriakoak merkataritzakoak eta zerbitzuetakoak. Ez dira, beraz, bertan sartuko nekazaritza-jarduerak, menpeko abeltzaintza-jarduerak, basogintza-koak eta arrantzakoak, eta ez dira zergapeko egitza izango.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoari dagokionez, abeltzaintza independentetzat joko da ondoko kasuetan jasotako abelburuen taldea:

- a) Jabeak nekazaritzarako edo baso-ustiapenerako erabiltzen ez dituen lurretan bazkatzen edo elikatzen duenean ganadua.
- b) Ganadua landa-finketatik kanpo ukuiluratzen denean.
- c) Ganadua ibiltaria denean edo lekuz aldatzen denean.
- d) Ganadua batik bat hazkuntza-finkatik kanpo ekoiztutako pentsuekin elikatzen denean.

4. artikulua


1. Jarduera enpresarial, profesional edo artistikotzat jotzen da ekoizpen-baliabideak eta giza baliabideak –biak edo bietakoren bat– jarduera-egilearen kontu doazenean, ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko edo banatzeko jardueretan esku-hartzeko asmoz.
2. Kargatutako jardueren edukia zergaren tarifetan zehazten da.
3. Kargatutako jarduerak egiten direla frogatzeko, Zuzenbidez onargarri den edozein bide erabili ahal izango da, eta, bereziki, Merkataritza Kodeko 3. artikuluan jasotako bideak.

III. EZ LOTESLEAK.

5. artikulua

Zerga honetan, ondoren datozen jarduerak ez dute egitate zergagarrikerik izango:

1. Enpresen aktibo finkoan sartutako ondasunak besterentzea, ondasun horiek ibilgetu gisa behar bezala inbentariatu badira eskualdatu baino bi urte lehenago; eta ondasunak saltzea (saltzaileak modu partikularrean eta pribatuan erabilitakoak), betiere, denboraldi berean baliatu baditu.
2. Banakoen lanengatik edo zerbitzu profesionalengatik ordaintzen diren produktuak saltzea.
3. Establezimendua apaintzeko edo dotoretzeko helburu bakarra duten artikulua erakusgai jartzea. Aitzitik, zergapekoa izango da bezeroentzako opari-artikuluen erakusketa egitea.



4. Txikizkako salmentetan jarduera edo eragiketa bakar eta bakartu bat egitea.

IV. SALBUESPENAK.

6. artikulua

1. Zergatik salbuetsita geratuko dira:


- a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta Tokiko Erakundeak nahiz horien izaera administratiboko organismo autonomoak.
- b) Nazioarteko itun edo hitzarmenen arabera, salbuestekoak diren subjektu pasiboak.
- c) Gizarte Segurantzako kudeaketa-erakundeak baita indarrean dagoen legediaren arabera eratutako mutualitateen eta montepioen kudeaketa-erakundeak.
- d) Batetik, Ikerketako organismo publikoak; bestetik hainbat erakunderen funtsen bidez erabat ordaindutako maila guztietako ikastetxeak (erakunde horien artean daude Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Foru Aldundia, Tokiko Erakundeak eta fundazio ongileak edo erabilera publikokoak), eta, azkenik, irabazi asmorik gabeko maila guztietako ikastetxeak –hezkuntza-ituneko erregimenean daudenak–, edota euren ikasleei liburuak edo idazmahaiak tresnak eskaintzen dizkietenak edo pentsio-erdiko zerbitzua edo barneko zerbitzua ematen dutenak, eta, salbuespen gisa, hezkuntza-materialeko tailerretako produktuak saldu arren, salmentaren zenbateko hori norbanakoek edo hirugarren batzuek eskuratu beharrean, lehen-gaiak erosteko edo zentroa mantentzeko soilik erabiltzen bada.
- e) Urritu fisikoen nahiz psikikoen edota sentimen urrituen erakundeak eta fundazioak, irabazi asmorik gabekoak direnean eta jarduera pedagogikoak, zientifikoak, laguntza ematekoak eta enplegua bilatzekoak garatzen dituztenean minusbaliatuak hezteko, birgaitzeko, irakasteko eta zaintzeko. Salbuetsita geratuko dira gainera, helburu horietara bideratutako tailerretako produktuak saldu arren, salmentaren zenbateko hori norbanakoek edo hirugarren batzuek eskuratu beharrean, lehen-gaiak erosteko edo zentroa mantentzeko soilik erabiltzen bada.
- f) Gurutze gorria eta erreglamendu bidez zehaztutako antzeko erakundeak.
- g) Zergagarria den jarduera horretan hasi berri diren subjektu pasiboak salbuetsita egongo dira zerga horren lehen bi zerga-aldietan.

Era berean, honako kasu hauek ez da jarduera hasi berritzat hartuko:

- 1. Aurretik jarduera bera beste titularitate baten pean garatu denean (halaxe gertatzen da, besteak beste, enpresek bat egiten dutenean, banatzen direnean eta beste jarduera-adar batzuk gehitzen dituztenean).
 - 2. Subjektu pasiboa sozietate-talde bateko kide denean (Merkataritza Kodearen 42.artikuluaren arabera), salbu eta taldea osatzen duen enpresetako batek aurretik garatu ez duen jarduera berri bat denean.
 - 3. Jarduera horretan lehenago jarduera bera egin duten enpresek % 25etik gorako partaidetza dutenean. Aurreko puntuetan xedatutakoa betetzeko orduan, jarduera bera garatzen dela ulertuko da jarduera hori zergaren tarifetan talde berean sailkatuta dagoenean.
- h) 2.000.000 eurotik beherako eragiketa-bolumena daukaten subjektu pasiboak. (Nolanahi ere, ekonomia jarduera guztiek egon behar dute alta emanda aipatutako zergan).

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena ezarri zuten iraukorrean dihardutenei soilik aplikatu ahalko zaie, baldin eta beraien eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa bada.

Salbuespen horren barnean sartzeko, bestalde, subjektu pasiboen parte-hartzea –zuzeneko nahiz zeharkakoa– ez da izango 100eko 25 baino handiagoa, enpresa horien eragiketa-bolumenek ez dutenean betetzen idatz-zati honetan aurreikusitakoa. Nolanahi



ere, horietan, salbuespen dira arrisku-kapitaleko funtsak edo sozietateak eta enpresa-sustapeneko sozietateak (ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoaren, 59. eta 60. artikuluetan hurrenez hurren jasotakoak), sozietate horien gizarte-helburua betetzetik sortzen denean parte-hartzea.

Letra honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1. Eragiketa bolumena Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 2. artikuluko 7. idatz-zatian ezarritakoaren arabera kalkulatu da.
 2. Sozietateen gaineko Zergaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboaren eragiketen bolumena hauxe izango da: aitorpena zerga-zorra sortu den urtearen aurreko urtean aurkeztu beharreko zergaldikoa. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako sozietate zibilen eta erakundeen eragiketen bolumena zerga honen ziozko zorra sortu den urtearen azken aurreko urtekoa izango da. Zergaldia urtebete baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da.
 3. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko hark egindako jarduerak ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Erakundea, Merkataritzako Kodearen 42. artikulua arabera, sozietate talde bateko kidea bada, lehenago aipatu magnitudeak talde horretako erakundeen multzoari egokituko zaizkio.
 4. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapekoen eragiketen bolumena Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkor guztiei egotzi ahal zaiena izango da.
- i) Irabazi asmorik gabeko entitateak salbuetsita egongo dira Ekonomia Jardueren Zergaren, otsailaren 24ko, irabazi asmoa duten entitateen erregimen fiskalari buruzko 4/2019 Foru Arauaren 9. artikulua aipatzen dituen ustiapen ekonomikoei dagokienean. Nolanahi ere, aipatutako entitateek alta-aitorpena aurkeztu beharko dute zerga honen matrikulan eta, halaber, baja-aitorpena aurkeztu behar dute beren jarduerak eten badute. Salbuespen hau aplikatzeko behar beharrezkoa da irabazi asmorik ez duten entitateek udalari jakinaraztea, otsailaren 24ko, irabazi asmoa duten entitateen erregimen fiskalari buruzko 1/2004 Foru Arauaren 16.2 atalak aipatzen duen ebazpena aurkeztuz eta, halaber, aipatutako arauaren II. tituluak arautzen duen erregimen fiskalari dagozkion baldintzak betetzen dituztela.
2. Aurreko 1. paragrafoko d) eta e) idatz-zatietan araututako hobariak erreguzkoak izango dira, eta bidezko denean eskainiko dira, interesatuaren eskariz.
 3. Aurreko 1. paragrafoko a), b), c) eta f) idatz-zatietan aipatutako subjektu pasiboek ez dute alta-aitorpenik egin beharko, zergaren matrikulan.

V. SUBJEKTU PASIBOAK

7. artikulua

Hauek dira zerga honetako subjektu pasiboak: pertsona fisikoak nahiz juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikuluan aipatutako erakundeak, egitate zergagarria sortarazten duten jarduerak egiten badituzte udalerrian.

VI. ZERGA-KUOTA

8. artikulua

Zerga-kuota ezartzeko zergari dagozkion tarifak aplikatuko dira, zerga hau arautzen duen foru arauan eta berau osatzen eta garatzen duten xedapenetan adierazitakoaren arabera, eta, kasuan kasu, foru arauetan eta ordenantza fiskaletan zein honako ordenantza honetan ezarritako koefizienteak, indizea eta hobariak aplikatuz sortzen den emaitza.



9. artikulua

Tarifetan finkatutako udal-kuota minimoak haztatze-koefizientearen bidez handitzen dira (koefiziente hori I eranskinean dator adierazita, eta subjektu pasiboaren eragiketa-bolumenaren arabera zehazten da).

10. artikulua

Aurreko artikuluan arautuko haztatze-koefizientea aplikatzean handitutako kuotak II. eranskinean adierazitako koefizientearen arabera handituko dira, eta koefiziente hori bakarra da Udalerrian gauzatzen diren jarduera guztietarako.

11. artikulua

Zerga honek kargatutako jarduerak egiten diren lokalen edota establezimenduen kokagunea haztatzeko, ordenantza honetako 10. artikuluaaren arabera handitutako kuotei III. eranskinean adierazitako eskala-indizeak gehituko zaizkie (bide publikoaren kategoriaren arabera zehazten dira eranskin horretan indizeak).

12. artikulua

Indize-escalak aplikatzeko, III. eranskinean zerrendaturik datozen kategorietan sailkatzen dira bide publikoak.

Eskala horretan ez datozen bide publikoak azken kategoriakotzat joko dira, eta sailkapen hori indarrean egongo da, Udalbatzako Osoko Bilkurak beste kategoria batzuk onartu osteko hurrengo urteko urtarrilaren 1 arte.

13. artikulua

Ondoko hobari hauek aplikatuko zaizkio zerga-kuotari:

- a) Edozein ekonomia-jardueraren egileak kuotaren 100eko 50eko hobaria jasoko du, udal-kuota ordaintzen badu jarduera garatzen hasi zenetik bigarren zerga-aldia bukatu osteko hurrengo bost urteetan.

Hobaria gauzatu ahal izateko, jarduerak berria izan beharko du, alegia, ez da hobaririk jasoko jarduera hori bera aurretik bestelako titularitatepean garatu denean. Jarduera hori aurretik bestelako titularitatepean garatu dela ulertuko da besteak beste, enpresek bat egiten dutenean, banatzen direnean eta beste jarduera-adar batzuk gaineratzen zaizkienean.


Hobaria jasotzeko denboraldia iraungiko da Jarduera Ekonomikoen Zergaren 6/1989 Foru Araua-ren 6. artikuluko 1. paragrafoko g idatz-zatian aurreikusitako salbuespena amaitzen denetik bost urte igarota.

Tarifa-kuotarekin osatutako zerga-kuotari aplikatuko zaio hobaria (zerga-kuota, kasu bada, ordenantza honetako 8. artikuluan jasotako koefizienteen eta indizeen bidez aldatuko da).

- b) Enplegua sortzeagatik hobaria jasoko da, ondorengo taularen arabera. Hobari horren hartzaile izateko, subjektu pasiboek, batetik, udal-kuota ordaindu beharko dute, eta, bestetik, kontratu mugagabeko euren langileen batez bestekoa handitu behar dute, hobaria aplikatu aurreko zerga-aldian, zerga-aldi horren aurrekoarekin alderatuta.

Hauek izango dira hobariaren ehunekoak:

Lan-kontratu mugagabea duten langileen kopurua igotzea	Hobaria
% 0,1etik % 5era	% 20
% 5,01etik % 10era	% 25
% 10,01etik % 15era	% 35
% 15,01etik % 20ra	% 45
% 20tik gora	% 50



Enplegu batek hobaria jaso ahal izateko plantilaren maila ertaina mantendu behar da, hortaz, kontratazioek epe mugagabea izan behar dute eta plantila handitzeko izango dira. Plantila handitzeaz ulertzen da lan-kontratuak desegin ez izana kontratazioa egin baino urtebete lehenago.

Subjektu pasiboek aurkeztu diren enpleguen artean egon den edozein aldaketaren berri eman behar dute, betiere, hobari honekin zerikusia badute.

Ez dira kontuan hartuko, eskaria egin duen enpresan edo beronekin zerikusia duen enpresaren baten, aurreko urtean zerbitzuan aritu izan diren langileen kontratazioak.

Hobari honi dagokionez, ez dira kontuan hartuko enpresaren izena aldatu izanaren ondorioz edo aldaketa juridiko baten ondorioz egindako kontratazioak.

Halaber, ez dira kontuan hartuko, langile autonomoen erregimen berezian egindako kontratazioak eta langileen altak, ezta ere, enpresarioaren odolkideak diren bigarren maila arteko ahaideei egindakoak, edota bazkideei, zuzendaritza-karguak dituztenei edo enpresa-administrazioa kide direnei egindakoak.

Ez dira kontuan hartuko Gizarte Segurantza edo lan-araudia urratzen duten kontratazioak.


- c) Subjektu pasiboek kuotaren %50eko hobaria jasoko dute, batetik, udal-kuota ordaintzen dutenean eta bestetik:
 - Durangon kokaturiko hiri-industriak izanik, euren jarduera hirigunetik udalerriko industria poligonoetara eramaten dituzten enpresez ari gara, eta, betiere, irekiera-baimena eman eta hurrengo bi urteen barruan. (3/89 Legea)
 - d) Subjektu pasiboek kuotaren % 30eko hobaria jasoko dute, batetik, udal-kuota ordaintzen dutenean eta bestetik:
 - Langileentzako garraio-plana ezarria badute energia-kontsumoa gutxitzeko edo lan-postuen joan-etorrietarako desplazamenduen eraginez sortutako emisioak gutxitzeko bada eta, halaber, garraio-bide eragingarriagoak erabiltzea sustatzen badute, esaterako, garraio kolektiboa edo konpartitua; edozelan ere, ezingo da planari dagokion kostua baino handiagoa izan.
 - e) %50eko hobaria dagokion kuotan ingurumena kudeatzeko sistemen egiaztagirien jabe diren subjektu pasiboentzat, beti ere, Euskal Herriko ingurumena babesteko, otsailaren 27ko, 3/1998 Legeak aipatzen dituen jarduerak burutzen dituzten enpresak badira, eta Europako EMAS araudiak ezartzen dituen betebeharrak betetzen badituzte.
 - f) %50eko hobaria dagokion kuotan, bere energia eskaeraren %100 energi berriztagarrien bidez betetzen edo sortzen duten subjektu pasiboentzat.
- Honetarako, soilik energi berriztagarrien aprobetxamendurako instalaziotzat hartuko dira Energi Berriztagarrien Sustapenerako Planak eduki eta zehazturikoak. Erabilgarria den energi termiko eta argi indarra batera sor ditzaketen ondasun eta instalazioak kogenerazio sistematzat hartuko dira.
- g) Kuotaren %50era arteko hobaria udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta euren ekonomi jardueraren errenta edo etekin garbia hobaria aplikatu aurreko zergaldian negatiboa bada.

Ezingo dira hobari hauek aldi berean aplikatu. Hobari bat baino gehiago badaude, handiena aplikatuko da, c) eta d) epigrafekoak izan ezik. Hauek %60a arte metatu daitezke.

VII ZERGA-ALDIA ETA SORTZAPENA

14. artikulua

1. Zerga-aldia urte naturalarekin bat dator, alta-aitorpenetan izan ezik; bada, kasu horietan, jarduera abiarazten denetik urte naturala amaitu arteko denbora-tartea besarkatuko du zerga-aldiak, betiere, artikulua honetako 3. zenbakian xedatutakoaren aurka egin gabe.
2. Zerga-aldiaren lehen egunean sortzen da zorra, eta kuotak ezingo dira murriztu. Salbuespen izango da, alta-aitorpenetan jarduera abiarazten den eguna ez datorrenean urte naturalarekin bat;



izan ere, kasu horretan, kuotak kalkulatzeko, urtea amaitzeko falta diren hiruhileko naturalak hartuko dira oinarritzat, jarduera abiarazten den hiruhilekoa barne.

3. Baja-aitorpenetan, berriz, kuotak kalkulatzeko, baja-eguna arte igarotako hiruhilekoen kopurua hartuko da oinarritzat, kargatutako jarduera amaitzen den hiruhilekoa barne. Salbuespen izango da, alta aurkezteko ekitaldiarekin bat datorrenean, kasu horretan hurrengo urteko lehen egunetik aurrera sartuko baita baja indarrean.
4. Ikuskizunetan, kuotak emanaldi bakunen arabera ezarri badira, horietako bakoitzarengatik kuota bana sortuko da, eta horiei dagokien aitorpenak aurkeztu beharko dira arauak ezartzen duen eran.

VIII. ZERGA KUDEATZEA

15. artikulua

1. Zergaren matrikula hartzen da oinarritzat zerga kudeatzeko. Urtero eratzen da matrikula hori, errolda hauek osagaitzat hartuta: ekonomia-jardueren errolda, zerga ordaintzetik salbuetsita ez dauden subjektu pasiboen errolda, zerga-zorraren errolda, eta, beharrezkoa izanez gero, Foru-errekarguarena. Matrikula herritarren esku dago.
2. Subjektu pasiboek altako errolda-aitorpenak aurkeztu behar dituzte nahitaez, eta, bertan, matrikulan sartzeko beharrezkoak diren elementu guztiak adierazi beharko dituzte, erregelamenduz ezarritako epean. Ondoren, Administrazio eskudunak dagokion likidazioa gauzatuko du, eta subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, azken horrek ordaindu beharreko kopurua ordain dezan.

Subjektu pasiboek, orobat, kargatutako jardueretan egindako aldaketa fisikoak, ekonomikoak edo juridikoak eman beharko dituzte aditzera –zergan eraginik badute–, eta erregelamenduz adierazitako epeak eta baldintzak beteko dituzte.

Hain zuzen ere, ordenantza honetako 6. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespena ezin aplikatu duten subjektu pasiboek Zerga Administrazioari jakinarazi behar diote euren eragiketen bolumena. Orobat, eragiketen bolumenean aldaketaren bat gertatuz gero, subjektu pasiboek horren berri eman behar dute, baldin eta aldaketak ordenantza honetako 6. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespenaren aplikazioan eragina badu, edo Ordenantza Fiskal honetako I. eranskinean agertzen den haztapen koefizientearen aplikaziorako kontuan hartu beharreko zatian aldaketa badago.

3. Zergak ikuskatuta edo altak eta komunikazioak gauzatuta, horien ondorioz erroldetan jasotako datuak sartzen, kentzen edo aldatzen badira, administrazio-egintzatzat joko da hori, eta zerga-errolda aldatzea ekarriko du. Erroldetako datuei lotutako edozein aldaketa egiten bada matrikulan, horren aurretik, ezinbestean, erroldak aldatu beharko dira.
4. Zerga hau autolikidazio-erregimenean eskatu ahal izango da, arauak ezartzen duen eran.

16. artikulua

1. Udal Administrazioari dagokio zergak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea (bai borondatezko epean bai premiamendu-bidez).
2. Udalaren eskumena denean, Udalari dagokio, bereziki, matrikula jendaurrean erakustea, errekursoak eta erreklamazioak ebaztea, zergak kobratzea, dagozkion ordainagiriak egitea, salbuespenak eta hobariak ematea eta zerga honi buruzko laguntzako eta informazioko egintzak gauzatzea.
3. Foru Aldundiaren eskumena da zerga-matrikula eratzea eta zaintzea, bai eta ekonomia-jarduerak kalifikatzeko edota egoki diren kuotak adieraztea ere.

Hala ere, Foru Aldundiak nahiz udalek egin ditzakete egintza horien jakinarazpenak, zerga zorrak zehazteko likidazioen jakinarazpenekin batera.

4. Udalak eta Foru Aldundiak elkarkidetzan jardungo dute zerga-matrikula eratzeko eta mantentzeko, bai eta ekonomia-jarduerak kalifikatzeko edota egoki diren kuotak adierazteko ere.
5. Salbuespenak emateko edo ukatzeko, ezinbestez, erabaki horren ebazpena Foru Aldundiari igorriko zaio.



6. Jarduerak sailkatzeko eta kuotak finkatzeko egintzen aurka jartzen diren errekurtsio eta erreklamazioetarako, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Foru Arau Orokorreko 156.etik 168.eraingoko artikuluek xedatutakoa bete beharko da, eta aipatutako errekurtsio eta erreklamazioak ebazteko organo eskuduna Bizkaiko Foru Aldundia izango da. Erreklamazio horiek jartzeak ez du egintzen betearazpena etengo.

17. artikulua

1. Zergaren kudeaketa haren matrikulatik abiatuta egingo da. Matrikula hori urtero egingo da udal bakoitzean, eta ekonomi jardueren, zergan salbuetsita ez dauden subjektu pasiboen, zerga-zorren eta , hala denean, foru errekararen erroldarekin osatuta egongo da.
2. Durangoko Udalari dagokion matrikula Bizkaiko Foru Aldundiak egingo du, eta Udalari igorriko zaio gero.
3. Zergadunek matrikularen edukiaren kontra egin ahal izango dute, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko 6/1989 Foru Arauaren 15.artikuluaren aurreikusitako moduan, eta Bizkaiko Foru Aldundia izango da errekurtsio eta erreklamazio horiek ebazteko organo eskuduna.
4. Aipatutako 6/1989 Foru Arauaren 13.artikuluaren 1.idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat etorrira, jendaurrean jartzeko epea amaitu eta errekurtsioak eta/edo erreklamazioak ebatzi ostean, Udalak dagozkion ordainagiriak prestatuko ditu eta horietan sartuko diren likidazioak jasoko dituzten ko-brantza-zerrendak onartuko ditu.

I ERANSKINA

ERAGIKETEN BOLUMENA	HAZTATZE-KOEFIZIENTEA
2 M – 6 M	1,20
6,01 M – 10 M	1,22
10,01 M – 50 M	1,24
50,01 M – 100 M	1,27
100 Mtik gora	1,30
Eragiketa-bolumenik gabe	1,25

II ERANSKINA

HANDITZE-KOEFIZIENTEA	%2
-----------------------	----

III ERANSKINA

Udalerriko bide publikoen sailkapena:

Maila			Indizea
Lehenengoa			1,40
Bigarrenengoa			1,30
Hirugarrenengoa			1,20
KALEAK	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA
Agirre Lehendakari kalea		Guztia	
Aliendalde			Guztia



Maila			Indizea
Lehenengoa			1,40
Bigarrenkoa			1,30
Hirugarrenkoa			1,20
KALEAK	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA
Alluitz kalea		2tik 10era eta 1etik 11ra	12. zk.tik aurrera
Ambrosio Meabe kalea			Guztia
Anboto kalea			Guztia
Andra Maria kalea	2tik 20ra eta 1-3 eta 9.a, fatxada Andra Mari-rantz	Gainerakoa	
Antso Estegiz Zumardia		1., 2., eta 3. zk.	Gainerakoa
Aramotz auzunea	22. zk.		Gainerakoa
Arandoño Torre kalea		Guztia	
Arkotxa kalea		Guztia	
Arriluzeaga Kalea		Guztia	
Arriputzueta auzunea			Guztia
Artabilla auzoa			Guztia
Artekalea	1. zk.	Gainerakoa	
Artzetagauna kalea			Guztia
Askatasun etorbidea	1. eta 2. zk.	Gainerakoa	
Astepe auzunea			Guztia
Asteizatorre kalea			Guztia
Astigar kalea		Guztia	
Astolabide kalea	Guztia		
Astxiki kalea		Guztia	
Azoka kalea		Guztia	
Balbino Garitaonandia plaza			Guztia
Barrenkalea		Guztia	
Bartolome Ertzilla kalea		Guztia	
Bernardo Gabiola kalea			Guztia
Bruno Mauricio Zabala kalea			Guztia
Bustintza kalea			Guztia
Dario de Regoyos kalea		Guztia	
Durangoko Plateruen plaza		Guztia	
Ebaristo Bustinza "Kirikiño" kalea			Guztia



Maila			Indizea
Lehenengoa			1,40
Bigarrenkoa			1,30
Hirugarrenkoa			1,20
KALEAK	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA
Eguzkitza auzoa			Guztia
Ermodo kalea	Gainerakoa	13,15,17	
Erretentxu kalea		Guztia	
Errotaritxuena auzunea			Guztia
Estanislao Labairu kalea		Guztia	
Ezki kalea		Guztia	
Ezkurdi plaza	Guztia		
Faustebide kalea			Guztia
Fauste Bekoa auzunea			Guztia
Frantzisko Ibarra kalea	Guztia		
Frai Juan Zumarraga kalea	Guztia		
Gallanda kalea			Guztia
Galtzareta kalea	Guztia		
Gasteiz bidea	Guztia		
Geltoki kalea	Guztia		
Goienkalea	Guztia		
Gorosti kalea		Guztia	
Hagin kalea		Guztia	
Haritz kalea		Guztia	
Hegoalde etorbidea		Guztia	
Herriko Gudarien kalea		Guztia	
Ibaizabal auzunea			Guztia
Intxaurrondo kalea			Guztia
Izei kalea		Guztia	
Jesus Mari Leizaola kalea		Guztia	
Jesus Maria Pedrosa kalea		Guztia	
Jose M ^a Iparragirre kalea			Guztia
Jose Miel Barandiaran kalea	Guztia		
Juan Antonio Abasolo kalea		Guztia	
Juan Itziarko auzunea			Guztia
Juan de Olazaran kalea			Guztia
Juan M ^a Altuna kalea		Guztia	




Maila			Indizea
Lehenengoa			1,40
Bigarrenkoa			1,30
Hirugarrenkoa			1,20
KALEAK	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA
Kalebarria	2. zk.	Gainerakoa	
Kanpantorrosteta kalea		Guztia	
Komentukalea		Guztia	
Kurutziaga kalea		Guztia	
Landako etorbidea		Guztia	
Lariztorre kalea		Guztia	
Larrasoloeta kalea		Guztia	
Larrinagatxu auzunea			Guztia
Laubideta kalea			Guztia
Lizar kalea		Guztia	
Madalena plaza		Guztia	
Madalenoste kalea		Guztia	
Martxoaren 8ko kalea			Guztia
Matxinestarta kalea		Guztia	
Mikeldi kalea		1tik 15era eta 2tik 8ra	Gainerakoa
Momotxo auzunea			Guztia
Monagotorre kalea		Guztia	
Montevideo etorbidea	2 eta 4. zk.ak, eta 1etik 5era	Gainerakoa	
Montorreta kalea	Guztia		
Mugarra auzunea			Guztia
Muruetatorre auzunea		Guztia	
Nafarroa plaza			Guztia
Oiñiturri kalea		Guztia	
Oiz kalea		Guztia	
Olleria kalea		Guztia	
Pablo Pedro Astarloa kalea		Guztia	
Pago kalea		Guztia	
Pagasarri Kalea		Guztia	
Pinondo plaza			Guztia
Ramon Rubial kalea		Guztia	
Saibigain kalea		Guztia	



Maila		Indizea	
Lehenengoa		1,40	
Bigarrenkoa		1,30	
Hirugarrenkoa		1,20	
KALEAK	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA
Sanagustinalde kalea	Guztia		
San Frantzisko kalea			Guztia
San Ignazio auzunea	Gainerakoa	6,7,8 eta 9	
Sanmartinpe portalea		Guztia	
San Roke auzoa			Guztia
Sanrokebide kalea			Guztia
Santa Ana plaza		Guztia	
Santa Luzia Auzoa			Guztia
Santasusanoste Kalea		Guztia	
Santanoste kalea		Guztia	
Santikurutx auzoa			Guztia
Sasikoa kalea		Guztia	
Tabira kalea			Guztia
Trenbide kalea		Guztia	
Tronperri kalea		Guztia	
Txatxiena kalea		Guztia	
Txibitena auzunea		Guztia	
Undatorre kalea		Guztia	
Untzillatx kalea		Guztia	
Uribarri kalea	Guztia		
Urki kalea		Guztia	
Urkiagatorre kalea		Guztia	
Urkiola kalea			Guztia
Urko kalea			Guztia
Zabalekoa kalea		Guztia	
Zabalarra kalea	5. zk.	Gainerakoa	
Zeharkalea		Guztia	
Zirarmendietakalea			Guztia
Ziritza kalea			Guztia
Zubiaurrea kalea		Guztia	
Zuhatzola Parkea			Guztia
Zumalakarregi kalea	Guztia		



Maila			Indizea
Lehenengoa			1,40
Bigarrenkoa			1,30
Hirugarrenkoa			1,20
KALEAK	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA
Zumar kalea		Guztia	
Zumar parkea		Guztia	



3. TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua

Lurralde Historikoaren Toki Ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauan nahiz zerga honen inguruko 7/1989 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, udal honek trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eskatzen du, ordenantza honekin bat (bertan jasotzen da tarifa aplikagarrien taula dakarren eranskina).

2. artikulua

Udal-barruti osoan aplikatzen da Ordenantza.

Ordenantza honetan erregulatzen ez denari dagokionez, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen, ekainaren 30eko, 7/1989 Foru Arauak aurreikusten duena hartuko da aintzat.

II. EGITATE ZERGAGARRIA

3. artikulua

1. Izaera errealeko zerga zuzena da trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga.
2. Honakoek osatzen dute zergaren egitate zergagarria:
 - a) Bide publikoetatik ibiltzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titularitateak, ibilgailuaren mota eta kategoria zeinahi dela, betiere, zirkulazio-baimenean agertzen den bizilekua Durango udalerrria bada.
 - b) Dagozkion erregistro publikoetan matrikulatutako ibilgailua ibiltzeko gai dela joko da, horietan baja eman ez duen bitartean. Zerga honi dagokionez, behin-behineko baimenak eta turismo-matrikulak dituzten ibilgailuak ere gaitzat joko dira.
3. Zerga honetatik kanpo geratuko dira:
 - a) Modeloa oso zaharra delako erregistroetan baja eman arren, salbuespen gisa, ibiltzeko baimena izan dezaketen ibilgailuak, erakustaldietan eta gisa horretako lehiaketetan edo lasterketetan parte hartzeko.
 - b) Trakzio mekanikozko ibilgailuek arrastan daramatzaten atoiak eta erdi-atoiak, baldin eta euren karga erabilgarria 750 kilogramo baino gutxiago bada.

III.- SALBUESPENAK HOBARIAK


4. artikulua

Oro har, eskaera egin eta hurrengo ekitalditik aurrera hasten da erreguzko salbuespenak ematearen eragina, eta ezin da atzeraeraginezkoa izan. Hala ere, onura fiskala ekitaldi bakoitzeko urtarilaren 15a baino lehen eskatzen bada, eskatzen den ekitaldirako emango da, baldin eta zerga sortzen den egunean hura hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen badira. Honako hauek daude zergatik salbuetsita:

Salbuespenak:

1. Nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan ezarritakoaren arabera, salbuetsita geratzen diren ibilgailuak.
2. Osasun-laguntza ematera edo zaurituak edo gaixoak garraiatzera zuzenean bideratutako anbulantziak eta gainerako ibilgailuak.
3. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen ibilgailuak (abenduarien 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorraren II. eranskinean dator zehaztuta mugikortasun murritzua), hau da, 350 kg baino tara gutxiago duten ibilgailuak eta, terreno lauan, 45 km/h abiadura gainditzen ez dutenak. Ibilgailuok bereziki eginak beharko dute egon (ez dira beste barik egokitutako ibilgailuak izan), eta dibertsitate funtzionala duten pertsonak erabiltzeko behar dute izan. Euren beste ezaugarri teknikoak hiru gurpileko ziklomotoreen ezaugarrieekin parekatuko dira.

Era berean, salbuetsita egongo dira 14 zaldi fiskal baino gutxiago duten dibertsitate funtzionala dutenen izenean matrikulatutako ibilgailuak, euren erabilerarako besterik ez direnean. Salbuespen



hori egoera aldatzen ez den bitartean aplikatuko da, eta dibertsitate funtzionalen bat duten pertsonen gidatutako ibilgailuak nahiz pertsona horiek garraiatzen dituzten ibilgailuak hartuko ditu aintzat.

Aurreko bi lerroaldeetan aurreikusitako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko aldi berean ibilgailu batengatik baino gehiagorengatik hobari horiek jaso ditzaketen subjektu pasiboei. Letra honetan xedatutakoaren eraginperako, honakoak hartuko dira dibertsitate funtzionala duten pertsonatzat:

a) 100eko 33ko edo gehiagoko minusbaliotasun-maila duten pertsonak eta 100eko 65a baino gutxiago daukatenak, beti ere mugikortasun murriztua baldin badute. Mugikortasun murriztuak ulertzen da, abenduaren 23ko, 1971/1999 Errege Dekretuaren III. Eranskineko baremoan A, B edo C letra moduan zehazten direnak, edota baremo bereko D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dutenak minusbaliotasun mailari dagokionez.

b) 100eko 65eko edo gehiagoko minusbaliotasun maila duten pertsonak.

Aurreko a) eta b) ataletan sartuta dauden pertsonen, 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskineko baremoan A letraz kalifikatutako mugikortasun murriztuko gabezia-egoeran badaude, ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskalen muga. Horretarako, ibilgailua gurgil-aulkiarekin erabiltzeko egokituta egon beharko da.

Salbuespen honek erreguzko izaera du. Salbuespenak eskumena duen udal-organismoak emandako administrazio-egintza adieraziaren bidez emango zaizkie eskatutako betekizunak betetzen dituzten subjektu pasiboei, haiek eskabidea egin ondoren. Eskabide horretan, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia jaso beharko dituzte, eta, horrekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- a) Desgaitasuna edo mugikortasun murriztuko gabezia-egoera egiaztatzen duen ziurtagiria, eskumena duen organismoak emana, eta ibilgailuaren xedea justifikatzea. Ez da nahikoa balorazio-taldeek emandako irizpen tekniko fakultatiboa.
- b) Zirkulazioko baimenaren fotokopia.
- c) Zinpeko aitorpena, ibilgailua minusbaliodunak ez beste inork erabiliko duela adieraztekoa.

Oro har, salbuespena emanez gero, eskatu den urtearen ondoko ekitaldian sortzen ditu ondorioak, eta ez du atzeraeraginik. Hala ere, hobari fiskala urtarilaren 15a baino lehen eskatzen bada, zerga-zorra hasten den urtealdiaren barruan emango da baldin eta betekizun guztiak betetzen badira.

4. Hiriko garraio publikoaren zerbitzuari atxikitako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, betiere, gidariarena kontatu barik, 9 plaza baino gehiago badituzte.
5. Nekazaritza-ikuskaritzako txartela duten traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makineria. Salbuespenaren onuradun izan ahal izateko, subjektu pasiboek eskaera egin beharko dute, eta, bertan, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta hobariaren zergatiak adierazi, eta ondorengo agiri hauek ere aurkeztu behar dituzte: Udal-administrazioak salbuespena aitortutakoan, baimena egiaztatzen duen dokumentua emango da.
6. Honako ibilgailuek izango dute %100eko hobaria: Ibilgailu historikoek beti ere Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailak historikotzat katalogatzen badute.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK


5. artikulua

Zerga honetako subjektu pasiboak dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoak eta entitateak, baldin eta gida-baimenean ibilgailua bere izenean badago.

V. KUOTA

6. artikulua

1. Eranskinean datorren tarifen taularen arabera eskatuko da zerga.



2. Ibilgailu-mota zehazteko, erregelamenduz zehaztutakoari egingo zaio kontu, eta, horrez gain, ondoko arauak hartuko dira aintzat:
 - a) Hauxe ulertuko da furgonetatzat: turismo-ibilgailua pertsonak zein gauzak garraiatzeko ibilgailu misto bilakatzerakoan eraturako ibilgailua. Horretarako, eserlekuak eta beirak kentzen zaizkio, tamaina edo ateen kokapena aldatu eta bestelako moldaketak egiten dira, jatorrizko modeloa funtsean aldatu gabe. Furgonetek turismoen zerga bera ordaindu beharko dute, euren zerga-ahalmenaren arabera, ondoko kasuetan izan ezik:
 - i. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago –gidaria barne– garraiatzeko gaituta dagoenean; horrelakoetan, autobusen zerga-tarifa bera ordaindu beharko du.
 - ii. Ibilgailuak 525 kg-ko karga erabilgarria garraiatzeko baimena badu, kamioien zerga-tarifa bera ordaindu beharko du.
 - b) Zerga honetan, motogurdiak motozikletatzat hartuko dira, eta, beraz, zilindrada-gaitasunaren arabera zerga-tarifa ordaindu beharko dute.
 - c) Ibilgailu artikulatuen kasuan, aldi berean baina bereizirik ordaindu beharko dute zerga arraste-potentzia daramanak eta atoi edo erdi-atoi arrastatuak.
 - d) Ziklomotoreek, atoei eta erdi-atoei euren gaitasunarengatik matrikulatzeko beharrik ez dutenean, une hauetatik aurrera izango dira zirkulatzeko gai: Industria-ordezkaritzak egiztagiria emandakoan, edo, kasu bada, benetan zirkulazioan dauden unetik aurrera.
 - e) Makina autopropulsatuak bide publikoetatik ibil daitezkeenean trakzio mekanikoko beste ibilgailuren batek garraiatu edo arrastatu gabe, traktoreei dagokien tarifa bera ordaindu beharko dute.
 - f) Autokarabanek turismo-zerga ordaindu behar dute, beraz, potentzia fiskalaren arabera ordainduko dute.
 - g) Quad izeneko ibilgailuek traktore moduan ordainduko dute.

VI. HOBARIAK

7. artikulua


Hobariak jasotzeko eskatu egin beharko dira lehenengo eta behin. Hobariak eskatutako dataren hurrengo ekitaldian aplikatuko dira eta ez dute atzeraeraginezko izaerarik izango. Hala ere, zerga-onura ekitaldiko urtarilaren 15a baino lehen eskatuz gero, eskatzen den ekitaldirako emango da, baldin eta zerga sortzen den egunean hura hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen badira.

Ondoko hobari hauek aplikatu ahalko dira:

- a) %95eko hobaria, ibilgailu elektrikoetan.
- b) Kuotaren % 75eko hobaria, energia elektrikoa eta erregaia konbinatuz propulsio-metodo hibridoa erabiltzen duten ibilgailuetan, gutxienez, 40 kilometroko autonomia izaten badu modu elektrikoan. Kuotaren % 50eko hobaria, aldiz, energia elektrikoa eta erregaia konbinatuta propulsio-metodo hibridoa erabiltzen duten ibilgailuetan.
- c) %25eko hobaria izango dute karbono dioxido (CO₂) /kilometroko 120 gramo baino gutxiago isurtzen duten matrikulatu berri dauden ibilgailuek, eta %40ko hobaria izango dute karbono dioxido (CO₂)/kilometroko 110 gramo baino gutxiago isurtzen dutenek. Hobaria 2 urtez emango da, betiere, ibilgailuaren lehenengo matrikulaziotik zenbatuta.

Hobaria jaso ahal izateko, interesatuek, eskariaz gain, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren txartela aurkeztu behar dute, eta energia eragingarritasunaren gaineko etiketa ere bai, beti ere, aipatutako ibilgailua ez bada energia dibertsifikatzeko eta aurrezteko Institutuak (IDAE) argitaratutako “erregaien kontsumoa eta CO₂ isurketa gidan” agertzen.

Hobariak eskaria egin eta hurrengo urtean sartuko dira indarrean, eta ez du atzera eraginkortasunik izango. Nolanahi ere, eskaria urtarilaren 15a baino lehenago egiten bada, indarrean sartuko da urte horretan bertan, betiere, gorago aipatutako baldintzak betetzen badira.



- d) %50eko hobaria izango dute zergaren kuotan, indarrean dagoen legediak ezarritakoarekin bat etorriz, familia ugaria izaera orokorra duen familia-kideren baten titularitatepeko ibilgailuek, eta %75ekoa izaera berezikoan sartzen direnak, beti ere familia-errentak lanbide arteko gutxieneko soldataren 4,5 arteko kopurua gainditzen ez badu.

Hobaria aplikatzeko oinarri moduan hartzen den familia-errenta kalkulatzeko, familia-politiken esparruko familia-errentaren estandarizatzeko-sistemari buruzko, uztailaren 24ko, 154/2012 Dekretuak ezarritako kalkuluak hartuko dira kontuan.

Familiako 5 plaza edo gehiagoko ibilgailu batek baino ez du hobaria jaso ahal izango, betiere, 15,99 zaldi fiskal gainditzen ez baditu; eta hobari hau ez da bateragarria izango ibilgailu beretzako trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren inguruan izan daitezkeen bestelako hobari fisikalekin.

Subjektu pasiboa eta familia unitateko gainerako kideak Durangon erroldatuta egon behar dira euren ohiko etxebizitzan, arbasoen banaketa kasuetarako familia ugarien gaineko araudiak ezartzen duenaren kaltetan izan gabe. Hobaria jasotzeko eskari-orria eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar da:

- a) Subjektu pasiboaren IFZ edo AIZren fotokopia
b) Familia ugaria tituluaren fotokopia, Bizkaiko Foru Aldundiak emana eta, legediaren bat etorriz, indarrean dagoena.
c) Ogasunaren errentaren behin-behineko likidazioa, zerga-oinarri orokorra eta aurrezkoa bereizten dituenak.

Hala ere, berariaz aipatu beharko dute dibertsitate funtzionala duten familia-unitateko kideak daudela, halakorik izanez gero, eta behartuta egongo dira hobari honen baldintza eta betekizunetan gertatzen diren aldaketak jakinaraztera, eta, nolana ere, aldaketak gertatu diren hurrengo ekitalditik aurrera izango dituzte ondorioak.

- e) % 100eko hobaria izango dute ibilgailu historikoek beti ere Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailak historikotzat katalogatzen badute.
f) Halaber, tributu-kuotaren % 80ko hobaria izango dute gutxienez 30 urteko antzinatasuna duten ibilgailuek, fabrikazio-datatik zenbatzen hasita, edo, fabrikazio-data ezagutzen ez bada, lehen matrikulazioa hartuko da kontuan, edo, bestela, dagokion ibilgailu-mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaien eguna hartuko da aintzat.

Hobari hori erregutua izango da, eta, beraz, subjektu pasiboek, hobaria eskuratu ahal izateko, haren aplikazioa eskatu beharko dute. Aurreko bi paragrafoetan aurreikusitakoari dagokionez, eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

A. Ibilgailu klasikoaren aseguruia.

B. Ibilgailuen azterketa teknikoa.

C. Elkartu-ziurtagiria, Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistro Orokorrean behar bezala erregistratua, ibilgailu klasiko delako egiaztatzen duena.

- g) %40ko hobaria izango dute kuotan, 4 urtez, lehenengo matrikulaziotik zenbatuta, osotara edo partzialki erregai modura gas naturala (GNC edo GNL), petroliozko gas likidotua, hidrogenoa edo bioetanola erabiltzen duten ibilgailuetako titularrek.

VII. ZERGA-ALDIA ETA SORTZAPENA

8. artikulua

1. Zerga-aldia bat dator urte naturalarekin, lehen eskurapena denean edo ibilgailuei baja ematen zaienean izan ezik. Kasu horietan, zerga-aldia ibilgailua eskuratzen den egunean hasiko da edo Trafiko Zuzendaritzan baja ematen den egunean bukatuko da, hurrenez hurren.
2. Zerga-aldiaren lehen egunean sortuko da zerga.



3. Zerga-kuota hilabete naturaletan zatituko da, lehen eskurapena denean edo ibilgailuei behin betiko baja eman zaienean, alta edo baja eman den hilabetekoa barne.
4. Zerga-kuota modu berean zatituko da behin-behineko baje kasuan (ibilgailua lapurtu egin dute-lako), dagokion erregistro publikoan behin-behineko baja ematen den unetik aurrera.

VII. KUDEAKETA

9. artikulua

Zerga ordainarazteko, ikuskatzeko, biltzeko eta zerga-kudeaketaren bidez emandako egintzak berrikus-teko ahalmena Durangoko Udalarena da.

10. artikulua

Udalak auto-likidazio erregimenean eskatu ahal izango du zerga.

11. artikulua

Udal-administrazioak izapidetutako zerga-erreziboa izango da ordainketaren baliabide-egiaztatzailea.

12. artikulua

1. Iraungitze periodiko edo notifikazio kolektibodun zorrak izanik, zergaren borondatezko epea, kude-aketa, diru-bilketa eta ikuskaritza Ordenantza Fiskalaren xedapen gehigarrian zehaztuko da urtero. Ordenantza honek arautze egutegi fiskala.
2. Matrikulazio berrien kasuan edo ibilgailuan egindako aldaketen ondorioz beronen sailkapena alda-tzen bada zergei dagokienez, ibilgailua erosi edo aldaketak egin eta 30 laneguneko epean egingo da likidazio-aitorpenaren bitartez.

13. artikulua

1. Trafiko Zuzendaritzaren aurrean, ibilgailua matrikulatzea, zirkulatzeko gaitasuna egiaztatzea, edo behin betiko baja ematea eskatzen dutenek, aurretiaz, zerga ordaindu dutela egiaztatu beharko dute. Hamabost urte baino gehiago duten ibilgailuei behin betiko baja ematen zaienean, ordea, ez da egiaztatiri hori eskatuko.
2. Betekizun berbera izango dute ibilgailuen titularrek Trafiko Zuzendaritzari ibilgailuak eraldatu be-har dituztela adierazten diotenean, eraldaketa horren bidez zerga-tarifan zuten sailkapena alda-tzen bada. Ordainketa-egiaztatzea aurkeztu beharko dute, halaber, ibilgailua eskualdatzen denean edo ibilgailuaren zirkulazio-baimenean datorren helbidea aldatzen dutenean.
3. Trafiko Zuzendaritzek ez dute ibilgailuen baja edo eskualdaketa izapidetuko, aldez aurretik ez bada egiaztatzen zerga ordaindu dela.

14. artikulua

Matrikula aldatzen bada edo ibilgailua eraldatzen bada (eraldaketa horren bidez zerga-tarifan zuten sail-kapena aldatzen denean), interesatuek ondoko dokumentu hauek aurkeztu beharko dizkiote Udal-admi-nistrazioari, 30 egun balioduneko epean, matrikulatze-egunetik edo eraldatze-egunetik aurrera:

1. Zirkulazio-baimena.
2. Ezaugarri teknikoen egiaztatzea.
3. NAN edo IFK.

ERANSKINA

Tarifak

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota
A) TURISMOAK	
8 h.p. fiskaletik behera	18,93 €
8 eta 11,99 h.p fiskalen artean	64,75 €



Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota
12 eta 13,99 h.p fiskalen artean	138,23 €
14 eta 15,99 h.p fiskalen artean	201,94 €
16 eta 19,99 h.p. fiskalen artean	281,27 €
20 h.p fiskaletik gora	356,99 €
B) AUTOBUSAK	
21 jarlekutik behera	180,48 €
21 eta 50 jarleku-artean	252,54 €
50 jarlekutik gora	319,95 €
C) KAMIOAK	
1.000 kg-ko karga erabilgarri baino gutxiago	97,03 €
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria	185,65 €
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria 9.999 kg arte	259,12 €
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria	324,54 €
D) TRAKTOREAK	
16 h.p. fiskaletik behera	41,18 €
16 eta 25 h.p fiskalen artean	61,64 €
25 h.p. fiskaletatik gora	180,13 €
E) TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEK ARRASTAN DARAMATZATEN ATOIAK ETA ERDI-ATOIAK.	
751 eta 1.000 kg bitarteko karga erabilgarria.	43,16 €
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria.	66,83 €
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria.	185,65 €
F) BESTE IBILGAILU BATZUK	
Ziklomotorrak	7,07 €
125 c.c. arteko motozikletak	7,07 €
125 c.c. baino gehiagoko motozikletak, 250 c.c arte.	13,63 €
250 c.c. baino gehiagoko motozikletak, 500 c.c arte.	33,33 €
500 c.c. baino gehiagoko motozikletak, 1000 c.c arte.	75,73 €
1000 c.c. baino gehiagoko motozikletak.	169,62 €



4. HIRIKO LURSAILEN BALIO-HAZKUNDEAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua

Lurralde Historikoaren Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan nahiz zerga hau arautzen duen Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, udal honek hiriko lursailen balio-hazkundearen gaineko zerga ezartzen eta eskatzen du, ordenantza honekin bat, bertan jasotzen da ehunekoen taula eta tarifa aplikagarriak dakartzan eranskina.

2. artikulua

Udal-barruti osoan aplikatzen da Ordenantza.

Ordenantza honetan erregulatzen ez denari dagokionez, hiriko lursailen balio-hazkundearen gaineko zerga arautzen duen, ekainaren 30eko, 8/1989 Foru Arauak aurreikusten duena hartuko da aintzat.

II. EGITATE ZERGAGARRIA

3. artikulua

1. Izaera errealeko zerga zuzena da Hiriko Lursailen Balio-Hazkundearen gaineko Zerga.
2. Hauxe izango da zergaren egitate zergagarria: hiriko lursailek zerga-aldian izandako balio-hazkundera, lursail horien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzen denean edo horien gainean jabaria mugatzen duen gozameneko edozein eskubide erreal eratzen edo igortzen denean.

Hiriko lursailtzat joko dira:


- a) Hiri-lurzorua eta antolamenduan urbanizagarri gisa adierazita dagoen lurzorua, sektoretan sartuta badaude, eta, orobat, antolamendua garatzen duten hirigintzako tresnek urbanizagarri gisa sailkatzen dutena.
- b) Halaber, bide zoladuradunak edo espaloi zintarridunak dituzten lurrak hiri-lurreko ondasun higieztatzat joko dira, baldin eta, horiez gainera, estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta herriko argiak badituzte; orobat, hiri-eraikuntzak dauden lurrak joko dira holakotzat.

Nekazaritzako legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak ere honelakotzat hartuko dira, beti ere, zatikapen horrek nekazaritzako erabilera hutsaltzen badu, eta, hala ere, haien landa-izaeran aldakuntzarik ez bada, zerga honetakoak ez diren beste ondorioetarako.

III. EZ LOTESLEAK.

4. artikulua

1. Ondasun higiezinaren zergaren arabera landakoak diren lursailen balio-hazkundera ez dago zerga honi lotuta. Aitzitik, ondasun higiezinaren zergaren arabera hirikoak diren lursailen balio-hazkundera, gertaera hori zergagarria izango da, lursailei dagokien katastroan edo erroldan hirikotzat jozein ez. Zerga honen ondorioetarako, ezaugarri bereziko higiezin gisa sailkatutako lurzoruek duten balio-gehikuntza zerga honen mende egongo da, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako.
2. Honakoak zergatik salbuetsita egongo dira: ezkontideek ezkontza-sozietatean txertatutako ondasunak eta eskubideak, ezkontideen aldeko esleipenak (ordaintzerakoan egiaztatuak) eta ezkontideei egindako eskualdaketak (ondasun komunaren ordaintzetan).
3. Zerga honetatik kanpo daude ezkontideen artean eskualdatzen diren ondasun higiezinak edo seme-alaben alde eskualdatzen direnak, eskualdaketak epaiak betetzean gertatzen direnean (ezkontza-deuseztasunetan, banaketetan edo dibortzioetan), ezkontideen ekonomia-erregimena zeinahi dela ere.
4. Aurreko paragrafoetako tratamendu bera izango dute izatezko bikoteek egiten dituzten ekarpenek, esleipenak eta eskualdaketak, beti ere, izatezko bikoteak arautzen dituen, maiatzaren 7ko, 2/2003 Legearen arabera eratuta badaude.



5. Ez dira zergapean egongo eskualdatze- eta eskuratze-datetan lursail horien balioen arteko aldeagatik balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzen den lursailen eskualdatzeak.

Horretarako, balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko interesa duen pertsonak edo entitateak eskualdatzea deklaratu beharko du, bai eta eskualdatzea eta eskuraketa dokumentatzen duten tituluak aurkeztu ere. Ondorio horietarako, pertsona edo entitate interesdunak dira foru-arau honen 3. artikuluan zehazten direnak.

Balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko, lursailaren eskualdatze- edo eskuraketa-baliotzat hartuko da, kasu bakoitzean, balio hauetatik handiena. Ondorio horietarako, ezin dira eragiketa horiek kargatzen dituzten gastu edo tributuak zenbatu, eta denbora igarotzeagatik ezin da eguneratzerik egin.

- a) Eragiketa dokumentatzen duen tituluan jasota dagoena.

- b) Hala dagokionean, zerga-administrazioak egiaztatu duena.

Lurzorua eta eraikuntza dituen higiezin baten eskualdatzea denean, lurzoruaren baliotzat hartuko da, ondorio horietarako, zergaren sortzapen-datan lursailaren katastro-balioak duen proportzioa katastro-balio osoarekiko aplikatuta ateratzen dena. Eta, lurzoruaren katastro-balioa eta eraikuntza banakatu gabe badaude, lurzoruaren baliotzat hartu ahal izango da katastro-balioaren gaineko % 40, eta proportzio hori eskualdatze-balioari (eta, hala badagokio, eskuratze-balioari) aplikatuko zaio. Paragrafo honetan ezarritakoa gorabehera, aurreikusitakoaz bestelako proportzio bat aplikatu ahal izango da, pertsona edo entitate interesdunak hala egiaztatzen duenean.

Eskuratzea edo eskualdatzea kostu gabekoa denean, aurreko paragrafoetako arauak aplikatuko dira, eta, hala badagokio, lehen aipatu diren alderatu beharreko bi baloreetatik lehenengotzat hartuko da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan aitortutakoa.

6. Sozietateen gaineko zergari buruzko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluan araututako araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketetatik eratorritako hiri-lurren eskualdaketen kasuak, aipatutako foru arauaren 111. artikuluan aurreikusitakoaren babesean ematen diren lursailak dagozkienak izan ezik, horiek jarduera-adar batean integratuta ez daudenean.

IV.SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

5. artikulua

1. Zergatik salbuetsita daude, egintza hauen ondorioz gertatutako balio-hazkundeak:

- a) Sortasun-eskubideak sortzeagatik edo eskualdatzeagatik.


- b) Multzo historiko-artistikoaren barnean dauden ondasunak eskualdatu direlako, edota ondasunak banan-banan kultura-interesekotzat jo direlako (ekainaren 25eko 16/1985 Legean –Espainiako Ondare Historikoari buruzkoan– ezarritakoaren arabera edo maiatzaren 9ko 6/2019 Legean –Euskal Kultur Ondareari buruzkoan– ezarritakoaren arabera), ondasun higiezin horien jabeek edo eskubide errealeen titularrek higiezinak mantentzeko, hobetzeko, edo birgaitzeko obrak eurek ordaindu dituztela egiaztatzen dutenean, beti ere, multzo historiko-artistikoaren araudiak zehazten dituen babes neurriengatik horretara derrihortuta daudenean eta balioaren igoera gertatu den aldian egin bada.

Horretarako, jabeek egiaztatu behar dute aipatutako higiezinetan beraien kontura egin eta ordaindu dituztela mantentze, hobetze eta birgaitze obrak, higiezinaren balio kastastra kontsumo-prezioen indizearen arabera eguneratutako obren zenbatekoa baino txikiagoa bada, Eraikuntzen eta obren zergarako.


Atal honetan aurreikusitako xedeetarako, salbuesteko eskabidea egiteko ondorengo agiriak aintzat hartu behar dira:

- a) Zergaren helburu diren eskualdatutako ondasunak multzo historiko-artistikoaren barnean daudela edo bakarka interes kulturalera eraikitzen jo direna egiaztatzen duten agiriak.

- b) Obren edo egikaritzapen-aginduaren hirigintza-lizentzia.



- c) Izapideak bete dituen obra-lizentziagatik tasen ordainketa-gutuna.
 - d) Obra-bukaerako ziurtagiria.
2. Salbuetsita egongo dira, orobat, balio-hazkundearen gaineko zerga pertsona edo erakunde hauek ordaindu behar dutenean:
- a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta Tokiko Erakundeak baita Autonomia Erkidegoan eta tokiko erakundeetan antzeko izaera duten zuzenbide publikoko erakundeak ere.
 - b) Udalerria eta bertako gainerako toki-erakundeak edota udalerria barne hartzen duten erakundeak baita horien zuzenbide publikoko erakundeak –organismo autonomoen antzeko izaerakoak.
 - c) Erakunde ongileak eta hezkuntza-erakunde ongileak.
 - d) Gizarte Segurantzako kudeaketa-erakundeak baita indarrean dagoen legediaren arabera eratutako mutualitateen eta montepioen kudeaketa-erakundeak.
 - e) Nazioarteko itunetan edo hitzarmenetan salbuetsi diren pertsonak eta erakundeak.
 - f) Itzuli beharreko administrazioako emakiden titularrak.
 - g) Gurutze Gorriak eta antzeko beste erakundeak (erregelamenduz zehaztutakoak).
 - h) Irabazi asmorik gabeko erakundeak. Zerga hori ordaintzeko legezko betebeharra irabazi asmorik gabeko entitate bati badagokio, Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren 4. artikuluan definitutako irabazi asmorik gabeko entitateen Foru Arauaren 18. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatietan xedatutakoaren arabera.
- Lurrak eskualdatuz gero edo haien gaineko jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealak eratuz gero, kostu bidez irabazi asmorik gabeko erakunde batek egin baditu, zerga horretan salbuespena egin ahal izateko, lur horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan salbuespena aplikatzeko ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Salbuespena aplikatzeko, irabazi asmorik gabeko entitateek martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren 16.2 artikuluan aipatzen den araubidea aplikatzeari buruzko ebazpena jakinarazi beharko diote dagokion zerga-administrazioari, eta II. tituluan arautzen den zerga-araubide bereziari buruzko baldintzak eta kasuak bete beharko dituzte.
3. Era berean, zerga honetatik salbuetsita egongo dira pertsona fisikoek hipoteka-zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean ematean egindako eskualdaketak, haren gaineko hipotekarekin bermatutako zorrak kitatzeko, kreditu-entitateekin edo, modu profesionalean, hipoteka-maileguak edo -kredituak ematen dituen edozein erakunderekin egindako zorrak izan ezik.
- Era berean, salbuetsita egongo dira aurreko baldintzak betetzen dituzten etxebizitzaren eskualdaketak, baldin eta hipoteka-betearazpen judizial edo notarialetan egiten badira.
- Salbuespenerako eskubidea izateko, beharrezkoa da zordunak edo bermatzaile eskualdatzaileak edo bere familia unitateko beste edozein kidek, etxebizitza besterentzea saihestu ahal izateko unean, hipoteka-zor osoa ordaindu ahal izateko besteko ondasun edo eskubide ez izatea.
- Baldintza hori betetzen dela ulertuko da. Hala ere, gero kontrakoa egiaztatzen bada, dagokion zerga-likidazioa igorriko da. Atal honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 87. artikuluko 8. paragrafoan halakotzat definitutakoa.
4. 10 euroko kuota baino gutxiagoko likidazioak.



V. SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua

1. Hurrengo hauek dira subjektu pasibo zergadunak:
 - a) Lursailak eskualdatzean edo irabazizko erabileraren gozamen mugatuko eskubide errealak eratzean nahiz eskualdatzean, eskualdatze horretan jasotzailea izango den pertsona fisikoa nahiz juridikoa edo Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34.3. artikuluan aipatutako erakundea.
 - b) Lursailak eskualdatzean edo kostu bidezko titulupeko jabariaren gozamen mugatuko eskubide errealak eratzean nahiz eskualdatzean, eskualdatze horretan jasotzailea izango den pertsona fisikoa nahiz juridikoa edo Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34.3. artikuluan aipatutako erakundea.
2. Aurreko paragrafoko b) idatz-zatian jasotzen diren egoeretan, zergadunaren ordezkotzat joko da eskualdatze horretan lursaila jasoko duen pertsona fisikoa nahiz juridikoa edo Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34.3 artikuluan aipatutako erakundea, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa denean.
3. Hipotekaren zordunak edo haren berme-emailak bere ohiko etxebizitza ordainean ematen badiot kreditu-entitate bati edo modu profesionalean maileguak edo hipoteka- kredituak ematen dituen beste edozein entitateri, edo betearazpen hipotekario, judizial edo notarial baten ondorioz etxebizitza horren eskualdatzea gertatzen bada arestian aipatutako entitate horietako baten alde, higiezina eskuratzen duen entitatea zergadunaren ordezkotzat hartuko da, baina ordezkotza ezin izango dio zergadunari galdatu berak ordaindutako tributu-betebeharren zenbatekoa.

Aurreko atalean aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitza izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 87. artikulua 8. zenbakian zehazturikoa. Ondorio horietarako, ezkontza Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikotearekin parekatuko da.


VI. OINARRI ZERGAGARRIA.

7. artikulua

1. Zerga honen oinarria lursailen balioaren gehikuntza da, sortzapenarekin batera azaltzen dena, eta gehienez ere hogeitun urtean metatutakoa. Zerga-oinarria honela zehaztuko da, artikulua honen 4. idatz-zatian ezarritakoa gorabehera: lursailak sortzapen-unean duen balioa — artikulua honetako 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera kalkulatu, bider sortzapen-aldiari dagokion koefizientea — 3. idatz-zatian ezarritakoarekin bat
2. Lurrek sortzapen-unean izan duten balioa erregela hauen bitartez kalkulatu da:
 - a) Lur-eskualdaketetan, lurren balioa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondoreetarako finkatutakoa izango da. Erabileraren batean lurraren eta eraikuntzaren katastro-balioa ez badago banakatuta, balio horren %60 aplikatu ahal izango da.

Aurreko paragrafoan adierazitako balioaren gaineko koefiziente murriztailea, eguneratze-maila haztatzen duena, I. eranskinean adierazitakoa izango da.

 - b) Jabaria mugatzen duten ondasunen gaineko eduki-eskubideak eratzen eta eskualdatzen direnean, urteko portzentajeak, artikulua honetako 3. artikuluan adierazi direnak, aurreko letran definitu den balioaren eta eskubideek, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondoreetarako finkatuta dauden arauak ezarriz, duten balioaren arteko diferentziari aplikatu zaizkio
 - c) Eraikin edo lur batean solairu bat edo gehiago eraikitzeko eskubidea eratzen edo eskualdatzen denean, edo zorupean eraikitzeko eskubidea, azalaren gaineko ondasun eskubiderik ez eduki arren, artikulua honetako 3. idatz-zatian aipatutako urteko portzentajeak a) letran finkaturiko



balioaren zatiari aplikatuko zaizkio, eta balioari eskualdaketa-eskrituran finkaturiko proportziotasun-modulua aplikaturik sortzen den balioari edo, horren ezean, hegalduran edo zorupean erai-kiko den azalera edo bolumenaren eta guztirako azalera edo bolumenaren arteko proportzioa aplikaturik sortzen denari.

d) Derrigorrezko desjabetzapenak daudenean, artikuluko honetako 3. idatz-zatian bildutako urteko portzentajeak lurraren balioari dagokion balioespenaren zatiari aplikatuko zaizkio, lur horren katastro-balioa txikiagoa denean izan ezik, horrelakoetan azken balio honek lehentasuna izango baitu balioespenaren gainetik.

3. Gehikuntza hori agerian jarri den urte kopurua izango da balio-gehikuntzaren sortzapen-aldia.

Zergaren kargapean ez dauden kasuetan, salbu eta foru-agindu bidez besterik ezartzen ez bada, lursailaren geroko eskualdatze batean agerian jarritako balio-gehikuntzaren sortzapen-aldia kalkulatzeko eskuratze-datatzat hartuko da zergaren aurreko sortzapena gertatu zen data, aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, foru-arau honen 1. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoa aplikatu behar zaie higiezin geroko eskualdatzean, lursailen balio-gehikuntza agerian jarri den urte kopurua kalkulatzeko, ez da kontuan hartuko lursailak eskuratu aurreko aldia, kasu hauetan izan ezik: zergapean ez dauden ondasun higiezin ekarpen edo eskualdatzeetan, kontuan harturik zer ezarrita dagoen foru-arau honen 1. artikuluko 3. idatz-zatian, edo 2. artikuluko 3. idatz-zatian; kasu horietan, aurreko paragrafoan xedatu dena aplikatuko da.

Igaro den urte kopurua kalkulatzeko urte osoak soilik zenbatuko dira; ez dira kontuan izango urtezatikiak. Baldin eta sortzapen-aldia urtebete baino gutxiago bada, urteko koefizientea hainbanatuko da, hilabete osoak zenbatuta; hau da, ez dira kontuan izango hilabete-zatikiak.

Sortzapena gertatzen den unean lursailaren balioari aplikatu beharreko koefizientea, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera kalkulata, Durangoko Udalak balio-gehikuntza sortzen den aldiaren arabera onetsitakoei dagokiena izango da, eta ezingo ditu gaingitu l. eranskinean adierazitako mugak

4. Subjektu pasiboak eskatuta eta 5. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako prozedurarekin bat, egiaztatzen denean balio-gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela artikuluko honen aurreko idatz-zatietan jasotakoarekin bat zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino, balio-gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat

8. artikulua

Lurzoruen edo haien gaineko eskubideen eskualdaketatik, lurren balioa Ondasun Higiezin gaineko Zergaren ondorioetarako finkatutakoa izango da


a) Lurren eskualdaketatik edo horien gaineko edozein eskubide errealean, sortzapenaren unean duen balioa Ondasun Higiezin gaineko Zergaren ondorioetarako finkatutakoa izango da.

b) Eskualdaketaekin erlazionaturiko lurzoruen balio katastrala, Ondasun Higiezin gaineko Zerga onartzen duen maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauak ezarritako eran berrikusia egongo ez balitz, lurzoruen balioa kalkulatzeko atxiki dakioken gutxieneko balioa zehazteko arau teknikoak aplikatu dira. Lurzoruen gutxieneko balioa eta eraikuntzarena desglosatuta ez dagoenean, balio bera aplikatu ahal da baina %60 gutxipenarekin, murrizterik bidezkoa ez den lurzoruetan izan ezik.

c) Lurzoruen balioa ezingo balitz kalkulatu artikuluko honetako a) eta b) puntuetan ezarritakoaren arabera, Lurzoruen balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren balio-indizeen taulen arabera kalkulatu da, indarrean daudenak 1989ko abenduaren 31tik, eta aurrekontuei buruzko Foru Arauek gerora egokituak.

9. artikulua

1. Jabaria mugatzen duen gozameneko eskubide errealak sortzean eta eskualdatzean, eranskinean jasotako koefizienteen koadroa 7. artikuluan zehaztutako balioaren zatiari aplikatuko zaio, hain



zuzen ere, eskubide horien balioa ondare-eskualdatzeen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarako finkatutako arauak aplikatzen dira eskualdatze hori kalkulatzeko.

2. Eraikin batean solairu bat edo gehiago altxatzeko eskubidea edukitzeko edo eskualdatzeko, bai eta azalerako eskubide erreala izan gabe lur-azpian eraikitzeako eskubidea edukitzeko edo eskualdatzeko, eranskinean jasotako koefizienteen koadroa 7. artikuluan zehaztutako balioaren zatiari aplikatuko zaio. Balio-zati hori eskualdatze-eskrituran finkatutako proportzionaltasun-moduluari dagokio, edo, horrelakorik ez badago, beste proportzio bat hartuko da oinarritzat, hain zuzen ere, eraiki beharreko solairuak (gorantz nahiz lur-azpian) duen azaleraren edo bolumenaren eta horiek eraiki osteko guztizko azaleraren edo bolumenaren arteko proportzioa.
3. Jabetza nahitaez kentzen denean, lursailari dagokion balio justuaren gainean aplikatuko da koefizienteen koadroa (eranskinean jasotakoa)

VII. ZERGA-KUOTA.


10. artikulua

Oinarri zergagarriari eranskinean adierazitako karga-mota aplikatzean lortuko da zerga honen kuota osoa.

VIII. ZERGA SORTZEA.

11. artikulua

1. Egoera hauetan sortuko da zerga:
 - a) Lursailaren jabetza eskualdatzen denean, bai ordainduta bai doan, bizien artean nahiz heriotzagatik (horrelakoetan, eskualdatze-datan bertan sortuko da zerga).
 - b) Jabaria mugatzen duen gozameneko edozein eskubide erreal sortzean eta eskualdatzean (eragiketa gauzatzen den egunean sortuko da zerga).
2. Kasu horietan, haxe izango da eskualdatze-data:
 - a) Bizidunen arteko egintzetan edo kontratuetan, dokumentu publikoa ematen den unea izango da; dokumentuak pribatuak direnean, berriz, horiek erregistro publikoren batean sartzen edo inskribatzen direnean edo funtzionario publikoren bati entregatzen zaionean, haren lanbidea dela eta.
 - b) Heriotzen ondoriozko eskualdatzeetan, eskualdatzailea hiltzen denean.
3. Lursaila eskualdatzeko edota lursailaz gozatzeko eskubide erreala sortzeko nahiz eskualdatzeko egintza edo kontratua deuseztatzen, desegiten edo ebazten denean –ebazpen judizial edo administratibo irmoz–, subjektu pasiboak ordaindu duen zerga itzultzeko eskubidea izango du, betiere egintzari edo kontratuari esker irabazirik eskuratu ez badu (irabazia egon dela joko da, ez denean justifikatzen interesatuek Kode Zibilaren 1.295 artikuluan aipatutako elkarrekiko itzulketa egin behar dutenik). Zerga itzultzeko eskaria ebazpena ematen denetik bost urteko epean egin beharko da. Egintzak edo kontratuak ez badu irabazirik sortu, zergaren subjektu pasiboak betebeharrak ez dituelako bete eman bada deuseztapena edo ebazpena, ez du ordaindutako dirua berreskuratzeako eskubiderik.
4. Kontratua bi alderdien adostasunez indargabetzen bada, ez da ordaindutako zerga itzuliko, eta zergapetzeko egintza berritza joko da. Adiskidetzeko ekitaldian bi alderdiak bat etortzea edota demandari amore ematea izango da adostasuneko akordioa.
5. Baldintzaren bat duten egintzak edo kontratuak, Kode Zibilean jasotako manuen arabera sailkatuko dira, eta baldintza etenarazlea bada, zerga ez da likidatuko, harik eta bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga eskatu egingo da, betiere, baldintza betetzen baldin bada, dirua aurreko paragrafoko arauaren arabera itzultzen denean.
6. Alkar-poderosoz edo testamentu-boterez igortzen diren jaraunspenetan, boterea modu ezeztazeinean baliatzen denean sortuko da zerga, edo, bestela, hori iraungitzeako bestelako arrazoiren bat jazotzen denean.



Baldin eta “alkar-poderoso” edo testamentu-boterean pertsona jakin baten alde ematen bada zerga honi lotutako jarauntsiaren ondasunak usufruktatzeko eskubidea, ahalordea erabiltzen ez den bitartean, gozamen horren likidazio bikoitza egingo da; likidazio hori behin-behinekoa izango da, oinordetza biziarteko gozamenaren arauak irekitzean sortzapena izango duena, eta beste eskubide bat behin betikoa izango da, alkar-ahalordearen erabilera edo testamentu-ahalordearen ondoriozko heriotza egiten denean. Aldi baterako usufruktuagatiko behin betiko likidazio hori jaraunsleen likidazioa egiten den unean egin beharko da, hau da, alkarahalguztiduna edo testamentu-ahalordea erabiltzeagatik, edo testamentua azkentzeko gainerako arrazoiengatik.

IX. KUDEAKETA.

12. artikulua

Zergari dagokion aitorpena aurkeztu beharko dute subjektu pasiboek Udalean, erakunde horrek emandako eredu ofizialaren arabera. Aitorpenean, zerga-zerrendaren elementuak jasoko dira, baita kuota zehazteko beharrezkoak eta ezinbestekoak diren gainerako datuak ere.

Udalek eskumena izango dute subjektu pasiboak egin beharreko autolikidazio sistema ezartzeko. Horren ondorioz ateratzen den kuota ordaindu beharko da, ordenantzaren 13. artikuluan aurreikusitako epeetan. Autolikidazio horiei dagokienez, pertsona edo entitate interesdunak edo subjektu pasiboak aitortutako balioak egiaztatzeko ahalmenenei kalterik egin gabe, ordenantzaren 4.5 artikuluan eta 7.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, hurrenez hurren, dagokion Udalak egiaztatu ahal izango du zuzen aplikatu direla zerga erregulatzen duten arauak, eta ezin izango da ezarri arau horietan ezarri ez den balio, oinarri edo kuotarik.

13. artikulua

Datozen epeetan aurkeztu beharko da aitorpena, baita kuota ordaindu ere, zerga sortzen den unetik aurrera:

1. Bizidunen arteko egintzak direnean, 30 egun baliodunetan.
2. Heriotzagatiko egintzak direnean, urtebeteko epean.

14. artikulua


1. Aitorpenarekin batera, zergapetzea sortu duten egintzen edo kontratuen dokumentua jasoko da, behar bezala egiaztatuta.
2. Heriotza dela eta, oinordekoen alde dohain egindako komertzio eta ostalaritza lokalen eskualdaketa zerga kuotako %100 hoberia izango dute, horiek jardueran jarraitzen badira kontratua duen pertsonala murriztu gabe (txikipen hori erretiro edo langile autonomoen erregimen berezian sarzteagatik badator hoberia aplikagarria izango da.).
3. Eskatutako salbuespenak edota hobariak dokumentu-bidez aurkeztuko dira, behar bezala egiaztatuta.

15. artikulua

Udal-administrazioak zera eskatu ahal izango die interesatuei: hogeita hamar eguneko epean –beste hamabost egunez luza daiteke, interesatuak hala eskatuz gero– zerga likidatzeko beharrezkotzat jotzen diren beste dokumentu batzuk aurkeztea. Eskaera horri ezarritako epeetan erantzuten ez diotenek zerga urratzeagatik zerga-zehapenak jasoko dituzte, dokumentu horiek beharrezkoak badira aitorpena egiaztatzeko. Dokumentu horien bidez soilik frogatzea badaitezke interesatuak bere alde argudiatutako egoerak, eskaera ez bada betetzen, likidazioa egiteari ekingo zaio, interesatuaren argudioei (justifikatu gabekoei) muzin eginda.

16. artikulua

12. artikuluan xedatutakoak xedatuta, honako hauek ere subjektu pasiboek epe berberetan egitate zergagarria gauzatu dela jakinarazi beharko diote Udal-administrazioari:



1. Eskubide erreala osatzen duen edo eskualdatzen duen emaileak edo pertsonak, ordenantza fiskal honetako 6. artikuluko 1.a paragrafoan jasotako egoeretan, betiere, bizidunen arteko negozioak badira.
2. Eskubide erreala osatzeko edo eskualdatzeko egintzan, jasotzailea den pertsonak, aipatutako 6. artikuluko 1.b paragrafoan jasotako egoeretan dagoenean.

17. artikulua

Notariotzek, orobat, hiruhileko naturaleko lehen hamabostaldian, zera igorri behar diote Udalari: udal-barrutian zerga honen egitate zergagarria burutu dela aditzera ematen duten dokumentu guztien zerrenda edo aurkibidea (esku hartzen duten alderdien izen-abizenak, nortasun agiri nazionala eta helbideak jasoko ditu), notarioek aurreko hiruhileko naturalean baimendutakoena. Salbuespen izango dira azken borondateko egintzak. Epe berberean igorri beharko dute, orobat, sinadurak legeztatze edo jakinarazteko aurkeztu zaizkien gertakarien, egintzen edo negozio juridikoen dokumentu pribatuen zerrenda. Atal honetan aurreikusitakoa ez da oztopo izango lankidetzan aritzeko betebeharra betetzeko –hain zuzen ere, Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean jasotako lankidetzaz-betebeharra betetzeko.

Bizkaiko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan xedatutakoa dela bide, Bizkaiko Foru Aldundiak eta toki-erakundeek lankidetzan jardungo dute zerga aplikatzeko, bereziki 4. artikulua 5. idatz-zatian eta 7. artikulua 4. idatz-zatian ezarritakoa betetzeko. Horretarako, zergei buruzko informazioa trukatzeko eta lankidetzarako hitzarmenak egin ahal izango dira.

18. artikulua

1. Udal-administrazioak, aitortu gabeko egitate zergagarriak egon direla dakienean, interesatuei aitorpen hori egiteko eskatuko die, 13. artikuluan adierazitako epeen barruan. Nolanahi ere, hori ez da oztopo izango egindako zerga-urratzeengatik zehapenak jasotzeko, hala badagokio.
2. Udal-administrazioak aurreko paragrafoan adierazitako eskaera egin ondoren, interesatuek ez badute aitorpena egiten, ofiziozko espedientea irekiko da, eskuartean dituen datuekin, eta bidezkoa den likidazioa gauzatuko da. Horretarako, kasu bada, dirua sartzeko epea zehaztuko da eta egoki diren errekursoak adieraziko dira. Nolanahi ere, hori ez da oztopo izango urratzaileek egindako zerga-urratzeengatik zehapenak jasotzeko, hala badagokio.

X. LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Ondare-eskualdatzeen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga onartzen duen 1/2011 Foru Araua indarrean dagoen heinean, ondoko arauak hartu beharko dira aintzat, 9.1 artikuluan jasotakoa gauzatzeko:

- 1 Gozamenak
 - a) Behin-behineko gozamenen balioa ondasunen balioaren arabera finkatuko da, eta 100eko 2koa izango da urtean, betiere, 100eko 70 gainditu gabe.
 - b) Hil arteko gozamenek, berriz, ondasunen guztizko balioaren % 70eko balioa izango dute, gozamendunak hogeitaz gutxiago dituenetan. Kopuru hori txikitzen joango da adinak gora egin ahala (100eko 1 urte bakoitzeko), eta, gutxienez, 100eko 10ekoa izango da guztizko balioa.
 - c) Pertsona juridikoen aldeko gozamena –mugagabea edo hogeita hamar urtetik gorakoa den– zerga-kontuatarako, baldintza suntsiarazlepeko jabetza osoko eskualdaketatzat joko da.
- 2 Jabetza soileko eskubidearen balioa zenbatesteko, gozamenaren balioaren eta ondasunen guztizko balioaren arteko aldea hartuko da oinarritzat. Hil arteko gozamenak aldi berean behin-behinekoak direnean, jabetza soila balioesteko, aurreko arauetatik, balio txikiena ematen diona aplikatuko da.
- 3 Kasuan kasu, behin behineko edo hil arteko gozamenen balioespenari dagozkion arauak ezarri zitzaizkien ondasun balioen 100eko 75 izango da, gutxienez, erabiltzeko eta bizitzeko eskubide errealeko balioa.




ERANSKINAK

I. ERANSKINA, ordenantza honetako 7.4 eta 10. artikuluen arabera

Sortzapen-aldia	Koefizientea
Urte 1etik beherakoa	0,14
Urte1	0,13
2 urte	0,14
3 urte	0,14
4 urte	0,16
5 urte	0,17
6 urte	0,16
7 urte	0,12
8 urte	0,10
9 urte	0,09
10 urte	0,08
11 urte	0,08
12 urte	0,08
13 urte	0,08
14 urte	0,09
15 urte	0,09
16 urte	0,10
17 urte	0,13
18 urte	0,17
19 urte	0,23
20 urte edo gehiago	0,40

Gehieneko koefiziente horiek foru-agindu bidez eguneratuko dira urtero, eta eguneratze hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren bidez egin daiteke.

Baldin eta, aurreko paragrafoan aipatzen den eguneratzearen ondorioz, indarrean dagoen ordenantza fiskala dela bide onartutako koefizienteren bat handiagoa bada legez ezarritako gehieneko koefizientea




baino, zuzenean aplikatuko da handiagoa den koefiziente hori, gaindikin hori zuzentzen duen ordenantza fiskal berria indarrean jarri arte.

Subjektu pasiboak eskatuta eta 4. artikuluko 5. idatz-zatian ezarritako prozedurarekin bat, egiaztatzen denean balio-gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela artikuluko honen aurreko idatz-zatietan jasotakoarekin bat zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino, balio-gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat

II. ERANSKINA

Aplikatuko den karga-tasa % 5,20koa izango da.



5. ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua

Lurralde Historikoaren Tokiko Ogasunak arautzeko 9/2005 Foru Arauan nahiz zerga honi buruzko 10/1989 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera ezarriko du udal honek eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga, eta halaxe eskatuko du, ordenantza honekin bat (bertan jasotzen da tarifa aplikagarriak dakartzan eranskina).

2. artikulua

Udal-barruti osoan aplikatuko da ordenantza hau.

Ordenantza honetan erregulatzen ez denari dagokionez, eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzen duen, ekainaren 30eko, 10/1989 Foru Arauak aurreikusten duena hartuko da aintzat.

II. IZAERA ETA EGITATE ZERGAGARRIA


3. artikulua

Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga zeharkakoa da, eta edozelako eraikuntza, instalazio edo obra egiterakoan sortuko da zergaren egitate zergagarria, horiek gauzatzeko, ezinbestean, obra-baimena edo hirigintza-baimena eskuratu behar denean edo erantzukizun aitortpena edo alde aurretiko komunikazioa aurkeztea derrigorrezkoa denean. Nolanahi ere, udal honi baldin badagokio izapidetzea, beti sortuko da egitate zergagarria –baimena lortu zein ez. Exekuzio-agindu baten betearazpenaren ondorioz egindako obrak ere, zerga ordaintzeko betebeharra sortuko dute.

4. artikulua

Hauek osatzen dute banan bana zergapeko egitate zergagarria:

1. Oin berriko mota guztietako eraikinak edo instalazioak eraikitzeako obrak.
2. Mota guztietako eraikinak edo instalazioak handitzeko obrak.
3. Mota guztietako eraikinen eta instalazioen egiturari eragiten dieten aldaketak edo eraberritze-lanak.
4. Mota guztietako eraikinen eta instalazioen kanpoko itxura aldatzeko lanak.
5. Eraikinen barne-banaketa aldatzen duten obrak –eraikinaren erabilera zeinahi dela.
6. Behin-behingo egin beharreko obrak –ekainaren 26ko 1/92 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuko 136. artikuluen 1. paragrafoan jasotakoak.
7. Zerbitzu publikoak ezartzeko obrak.
8. Lur-mugimenduak, hala nola, lur-erazketak, indusketak, betelanak, etab. Salbuespen izango da egintza horiek Hirigintzako edo Eraikuntzako Proiekturen batean (onartutakoa eta baimendutakoa) egin beharreko obra gisa zehaztuta eta programatuta baldin badatoz.
9. Eraikuntza-erispenak, aurre-zorian daudela deklaraturakoak salbu.
10. Lurrazpiko instalazioak –hainbat jarduera gauzatzeko erabilitakoak, hala nola, aparkalekuetarako, industria-jarduerak, merkataritzakoak eta jarduera profesionalak egiteko, edo beste edozelako jardueretarako.
11. Etxe prefabrikatuak edo antzekoak jartzea, behin behinekoak zein behin betikoak.
12. Negutegiak jartzea
13. Bide publikotik ikus daitezkeen kartelak ipintzea.
14. Ekonomia-baliabideak eskatzen dituzten obrak, eraikuntzak edo instalazioak, ekonomia-gaitasuna islatzen dutenean eta hirigintza-obren baimena behar dutenean.
15. Exekuzio-agindu baten ondorioz egindako obrak.



III. EZ LOTESLEAK.

5. artikulua

Higiezinaren jabaritasunezko titularitatea udal honek duenean, higiezin horietan egindako eraikuntzak, obrak edo instalazioak zerga honetatik aske geratuko dira, betiere, Udala bada obraren jabea. Bere zenbatekoa 300 euro baino gutxiagokoa daukaten eraikuntza, obra edo instalazioak, zergaren kargapean ez dira egongo.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK.

6. artikulua

1. Pertsona fisikoak nahiz juridikoak edo Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan aipatutako erakundeak dira zerga honen subjektu pasibo zergadunak, betiere, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabeak direnean –kontuan hartu gabe obran dagoen higiezinaren jabeak diren ala ez-.

Horretarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostuei aurre egiten dieten pertsonak joko dira horien jabetzat. Hau ere, exekuzio-agindu edo aurri-deklarazio baten ondorioz egindako eraispen lanen kasuetan aplikatuko da.

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra ez duenean subjektu pasibo zergadunak berak egiten, bere ordezkari subjektu pasibo izango dira eraikuntza, instalazio edo obrak egiteko lizentziak eskatzen dituztenak, edo erantzukizunpeko aitortzenak edo aurretiko komunikazioak aurkezten dituztenak, edo eraikuntza, instalazio edo obra horiek egingo dituztenak.
3. Ordezkoak ordaindutako zerga-kuota eskatu diezaiotke zergadunari.

V. OINARRI ZERGAGARRIA.

7. artikulua

Eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu oso eta errealetik ateratzen da oinarri zergagarria. Lizentzia eskatzeagatik, exekuzio-agindu edo aurri deklarazio baten ondorioz egindako eraispenetan, oinarri zergagarriaren kopurua eraispen lanen exekuzioren kostu efektiboa izango da.

Ez dira sartuko zerga-oinarrian ez Balio Erantsiaren gaineko Zerga, ez araubide bereziko antzeko gainerako zergak, ez tasak ez prezio publikoak, ez eraikuntza, instalazio edo obrarekin zerikusia duten ondarearen gainerako toki prestazioak, ez profesionalen ogibidesariak, ez kontratarien enpresa-mozkina, ez burutza-pen materialaz kanpoko gainerako kontzeptuak.

VI. TRIBUTU KUOTA.

8. artikulua

Oinarri zergagarriari eranskinean adierazitako karga-mota aplikatzean lortuko da zerga honen kuota.

Karga-mota %5a izango da.

VII. HOBARIK.

9. Artikulua

1. EIOZen gaineko kuotan %90eko hobaria izango dute aniztasun funtzionala duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak ahalbidetzen dituzten eraikin, instalazio eta obrek. Lan horiek ezingo dira erainkuntza berri baten edo birgaitze integral baten proiektuaren barruan egon. Etxebizitzaren barneko obrak direnean, aniztasun funtzionala duten pertsonen irisgarritasuna eta bizigarritasuna hobetzeko beharrezkoak diren obrek baino ez dute hobari hau jasoko.

Aniztasun funtzionala duten pertsonatzat hartuko dira desgaitasun-maila %33 edo altuagoa dutenak. Beharrezkoa izango da hori hala dela egiaztatzeko desgaitasun-mailaren ziurtagiria aurkeztea, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak emandakoa. Ez da nahikoa izango ebaluazio taldeen irizpen tekniko fakultatiboa aurkeztea, ezta espedientearen tramitea hasi dutela egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztea ere; foru aldundiaren ziurtagiria beharko da.



2. % 90eko hobaria izango dute Durangoko Uri Historikoaren eremuan dauden eraikinen elementu komunen zaharberritze-, mantentze-, modernizazio- eta eraberritze-lanek, halaber, hobaria izango dute Arau Subsidiarioetan katalogatuta dauden nahitaez kontserbatu beharreko eraikinak, udalaren interes bereziko eraikinak direlako.
3. 90eko hobaria izango dute iturri berriztagarrien bidez lortutako energiatik eratorritako ur bero sanitario, berokuntza eta/edo elektrizitatea ekoizten laguntzeko sistemak dituzten eraberritze-, modernizazio edo birgaitze obretarako lanek (EKTren HE oinarritzko dokumentuan ezarritako definizioaren arabera). Hala ere, hobari hori ez zaie aplikatuko eraikuntza-araudiaren arabera nahitaezkoak diren instalazioei.
4. %50ko hobaria izango dute planta berriko babes ofizialeko etxebizitzek.
5. %90eko hobaria izango dute Durangoko irabazi asmorik gabeko elkarte kulturalak, gizarte arlokoak edo kirol arlokoak, baldin eta, espresuki, euren egoitza sozialetan egiten dituzten eraikitze, instalazio eta obrak euren ekimenak burutzeko ezinbestekoak badira eta beren xede sozialean zehazten diren eginkizunetarako erabiltzen badira.
6. % 80ko hobaria izango dute abeltzaintza edo nekazaritza ekologiko ziurtatua sustatzea helburu duten eraikuntzek, instalazioek eta obrek, baldin eta interes bereziko edo udal-erabilerako deklarazioen badira, betiere ustiapenarekin berarekin lotura zuzena badute eta ustiapen horrek gutxienez NLU bat osatzen duela egiaztatzen bada.
7. %95eko hobaria izango dute udalarentzat interesdunak direlako, erabilera publikoa duten lurzoru pribatuetan hiritarren segurtasuna hobetzen dituzten argi errefortzuak instalatzeko egindako obrek, eraginkortasun energetikoari buruzko indarrean dagoen araudia eta udal planak betetzen badituzte. Hobaria onartzeko, honako dokumentazioa aurkeztea ezinbestekoa izango da:


-Kanto argiteri instalazioen eraginkortasun energetikoa eta bere EA-01 - EA-07 Argibide Tekniko osagarrien erregelamendua onartzen duen urriaren 14ko 1890/2008 Erret Dekretuaren arabera egindako argi estudio tekniko, non bilatutako instalazioa A motako kalifikazio energetikoa lortuko duela ziurtatzen da.
8. %70-rainoko hobaria (erantsitako taularen arabera) izango dituzte lokal komertzial eta ostalaritza negozioak irekitzeko egiten diren eraikuntza, instalazio edo obrek, baldin eta bere gehienezko azalera 200 m²-koa bada eta enplegu sustapen baldintzak direla eta bere interes berezia edo herri-onura onartua dago.

Pertsonalaren gehitzea	Onura	Emakumezkoaren enplegua sortzeagatik onura portzentaia $\geq$ %60
%0,1-tik %5-ra	%20	%30
%5,01-tik %10-ra	%30	%40
%10,01-tik %15-ra	%40	%50
%15,01-tik %20-ra	%50	%60
%20 baino gehiago	%60	%70

Enplegu sustapentzat ulertuko da, 12 hilabete baino luzeagoko denbora mugagabeko kontratu bidezko langileen kontratazioa.

Hasieran ordaindu beharko den behin-behineko likidazio bat igorriko da eta horren ostean interesdunak dagokion portzentajearen diru itzulera eskatu beharko luke, beti ere egindako kontratazioa ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztuz. Kasu honetan, ez da kontratazio berritza hartuko negozioaren jabearen alta.

9. Lanbide arteko gutxieneko soldatako 1,5a edo gutxiagoko diru-sarrera jasotzen duten familiek, obra txikiak egiterakoan %60ko hobari fiskala izango dute, eta lanbide arteko gutxieneko soldatako 2,5a edo gutxiagokoa izanik, hobaria %40koa izango da.



10. %95eko hobaria izango dute etxebizitza sozialetan egiten diren eraikin, instalazio eta obrek.
11. % 50eko hobaria izango dute eraikinaren inguratzailean energia efizientzia hobetzen duten obrek, azken azalera termikoaren % 25 baino gehiagori eragiten diolako, baldin eta obra berriak ez badira eta borondatez egiten badira. Hobekuntza eraginkorra den ala ez erabakitzeke, kalifikazio energetikoak bi letra edo gehiago hobetzen dituela egiaztatu beharko da, hasierako egoeraren eta proiektuko egoeraren artean; era berean, proiektuaren ziurtagiria Eusko Jaurlaritzaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan erregistratu dela egiaztatu beharko da.
12. Herritarrek egindako obrek, energia-eraginkortasuna justifikatzen badute (leiho aldaketak, kalefakzio instalakuntzak ...) %50 hobaria izango dute, beti ere eraikuntza berri baten proiektu baten barruan ez badaude eta bere aldetik egiten badira.
13. EIOZen gaineko kuotan %90eko hobaria izango dute baineraren ordeztutako jartzeko obrek, gutxienez 70 urtetik gorako pertsona bat erroldatuta dagoen etxebizitzetan.

Hobari hau aplikatzeko, bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerara haztatuek ezin izango dute urtean 21.000 euro gordinak gauditu, kontuan hartuta eskaera aurkezteko momentuko azken ekitaldi fiskala; gainera, ezin izango dute 30.000 baino gehiagoko kapital higigarria izan.

Diru-sarrerara haztatuen kalkulua egiteko, martxoaren 4ko babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruen inguruko finantza-neurriei buruzko 39/2008 Dekretuko 23 artikulua ezarritako irizpideak erabiliko dira.

Hobari hauek aplikatzeko aurkeztutako aurrekontuaren partida guztiak hartuko dira kontuan, hau da, 2. artikuluan aipatzen diren hobariak jasotzeko moduko kasuak.

Dirulaguntza hauek ez dira norgehiagoka-erregimenean emango. Edozein kasutan, hobari handiena aplikatuko da.

VIII. SORTZAPENA.

10. artikulua

Eraikuntza, instalazioa edo obra egiteari ekin behar zaion unean sortzen da zerga, astean horretarako lizentzia oraindik eskuratuta ez badago ere bai.

IX. KUDEAKETA.

11. artikulua

Kasu hauetan egingo da konturako behin-behineko likidazioa: nahitaezkoa den lizentzia hori ematen denean; edo erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiko komunikazioa aurkezten denean; edo nahitaezko lizentzia hori oraindik eskatu, ukatu edo eman gabe dagoen arren eraikuntza, instalazio edo obhar hasten denean. Honelaxe zehaztuko da zerga-oinarria:


- a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, baldin eta dagokion elkargo ofizialak ikusonetsi badu, ikus-onespen hori aginduzkoa denean.
- b) Bestela, zerga-oinarria udaleko Bulego Teknikoak ezarriko du, aintzat hartuta obraren kostu estimatua ordenantza berak ezartzen dituen indizeak eta moduluak kontuan izanda.

12. artikulua

Baimena eskuratu edo erantzukizun aitorpena edo aldeztutako komunikazioa aurkeztu ostean, hasierako proiektua aldatzen bada, beste proiektu bat aurkeztu beharko da, hasierako proiektutik gauditutako kopuruan behin-behineko likidazioa egiteko.

13. artikulua

1. Erabat gauzatu diren eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta horien benetako kostua oinarritzat harturik, Udal-administrazioak –bidezko administrazio-egiaztapenaren bidez beharrezkotzat joz gero– oinarri zergagarria aldatuko du, eta behin betiko likidazioan subjektu pasiboari dagokion diru-kopurua eskatu edo itzuliko dio, kasuan kasu.



2. Horretarako, obra amaitu osteko edo behin-behingo onartu osteko hurrengo hilabetearen barruan, hori adierazteko aitordpena egingo da Udal-administrazioak eskainiko duen inprimakian, eta, aitordpenarekin batera, obra-zuzendaritzaren ziurtagiria –dagokion elkargo ofizialak onetsitakoa– aurkeztuko da obren guztizko kostuaren berri emateko.

14. artikulua

Zerga likidatzeko garaian, Administrazioaren isiltasunez emantzat jo diren baimenek berariaz emandakoen eragin berbera izango dute.

15. artikulua

Udalak autolikidazio-erregimenean eskatu ahal izango du zerga.

16. artikulua

Baimenaren titularrek edo erantzukizun aitordpena edo aldeztu aurretiko komunikazioa aurkeztu dituztenak, baimendutako edo deklaraturako obra, eraikuntza edo instalazio lanak bertan behera uzten badituzte idatziz aurkeztutako berariazko ukoaren bidez, burututako behin-behineko likidazioa itzuli edo deuseztatuko du Udalak.

17. artikulua

Baimena iraungitzen denean, Udalak behin-behineko likidazioa itzuli edo baliogabetu egingo du –titularrak baimena berritzea eskatu, eta Udalak eskaera onartzen duenean izan ezik.



6. KONTRIBUZIO BEREZIEN ORDENANTZA OROKORRA

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua

Obrak burutzeagatik edota udal-zerbitzuak ezarri edo zabaltzeagatik sortutako kontribuzio berezien Ordenantza Orokorra onartu du udal honek, Tokiko Ogasuna arautzen duen Lurralde Historikoko Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat.

2. artikulua

Udal-barruti osoan aplikatzen da Ordenantza.

II. EGITATE ZERGAGARRIA.

3. artikulua

Udalak obrak burutu dituelako edota udal-zerbitzuak ezarri edo zabaltzeagatik sortutako kontribuzio berezien Ordenantza Orokorra onartu du udal honek, Tokiko Ogasuna arautzen duen Lurralde Historikoko Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat.

4. artikulua

1. Hauek joko dira Udalaren obratzat edo zerbitzutzat:
 - a) Udalak esleitu zaizkion helburuak betetzeko bere eskumenen barruan gauzatzen dituenak. Salbuespen izango dira ondasun-ondareen jabe gisa egiten dituenak.
 - b) Beste erakunde publiko batzuek esleitura edo eskuordetuta, Udalak egiten dituen obrak eta zerbitzuak, bai eta legediari jarraiki Udalak eskuratutakoetan egiten dituenak ere.
 - c) Beste erakunde publiko batzuek edo horien emakidunek egindakoak, Udalak obra edo zerbitzu horietan diru-ekarpena eskaintzen duenean.
2. Aurreko paragrafoko a) idatz-zatian jasotako udaleko obrek edo zerbitzuek ez dute izaera hori galduko nahiz eta horien egileak Organismo Autonomoak edo Merkataritzako Elkartek izan (euren kapital sozial osoa Udalari badagokio), edota udal-ekarpena duten emakidunak edo zergadunen administrazio-elkartek izan.


5. artikulua

Kontribuzio bereziengatik bildutako diru-kopurua obrako edo zerbitzuko gastuak ordaintzeko besterik ezin da erabili –alegia, horiek eskatzeko arrazoi izan diren gastuak ordaintzeko.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

6. artikulua

1. Pertsona fisikoak nahiz juridikoak edo Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluan aipatutako erakundeak zerga honen subjektu pasibo zergadunak izango dira, onura berezia atera dietenean zergapeko Udaleko obrei edo zerbitzuak ezartzeko nahiz zabaltzeko lanei.
2. Pertsona hauek aterako dute onura berezia:
 - a) Ondasun higiezinak eragiten dieten Udaleko obretatik edo zerbitzuak ezartzeko nahiz zabaltzeko lanetatik sortutako kontribuzio berezietan, higiezin horien jabeak izango dira onuradunak.
 - b) Enpresa-ustiapenek eragindako Udaleko obretatik edo zerbitzuak ezartzeko nahiz zabaltzeko lanetatik sortutako kontribuzio berezietan, ustiapen horien pertsona edo erakunde titularrak.
 - c) Suteak itzaltzeko zerbitzuak zabaltzetik edo hobetzetik sortutako kontribuzio berezietan, kalteak izan dituzten ondasunen jabeek gain, udalerrian arlo horretan jarduten duten asaguru-etxeak izango dira onuradunak.



- d) Lur-azpiko galeriak eraikitzen sortutako kontribuzio berezietan, horiek erabili behar dituzten enpresa hornitzaileak.
- 3. Jabetza horizontaleko erregimenean, jabekideen komunitateko ordezkaritzak zenbait datu eman beharko dizkio Udal-administrazioari –hala nola, jabekideen izena eta jabekide bakoitzaren partaidetza-maila– Udal-administrazioak jabekide bakoitzari dagokion kuota igorri diezaion. Ez bada halakorik egiten, kuota bakar bat igortzea onartu dela ulertuko da, eta komunitateak berak arduratu beharko du hori banatzeaz.

IV. OINARRI ZERGAGARRIA.

7. artikulua

- 1. Obrak burutzeagatik edo zerbitzuak ezarri eta zabaltzeagatik Udalerriak aurre egin beharreko kostuaren ehuneko 90ekoa izango da, gehienez jota, kontribuzio berezien egitate zergagarria. Udalak antolamendu-akordioa hartzen duenean finkatuko du, kasuan kasu aplikagarria den ehunekoa.
- 2. Ondoko kontzeptuek osatuko dute kostua:
 - a) Peritu-lanen benetako kostua; proiektua idazteko kostua, eta obrak, planak eta programa teknikoak zuzentzeko kostua.
 - b) Egin beharreko obren zenbatekoa bai eta zerbitzuak ezartzeko eta hedatzeko lanen zenbatekoa ere.
 - c) Obrek edo zerbitzuek modu iraunkorrean okupatu beharko dituzten lursailen balioa. Aldiz, ez da kostuan sartuko, lursail horiek erabilera publikokoak direnean edota Udalari doan eta ezinbestean lagatakoak direnean, ez eta legediak ezarritako moduan lagatako higiezinak direnean ere.
- 3. Aurreikuspen hutsa besterik ez da izango aurreikusitako obren edo zerbitzuen guztizko kostua. Benetako kostua aurreikusitakoa baino handiagoa edo txikiagoa bada, dagozkion kuotetatik kalkulaturako kostua hartuko da.
- 4. Goragoko 4.1. artikuluko c) idatz-zatian aipatutako obretan edo zerbitzuetan eta udal-ekarpena duten emakidunek egindakoetan (artikulu bereko 2. paragrafoan jasotakoak), ekarpen horien arabera zehaztuko da kontribuzio berezien egitate zergagarria; hori, ordea, ez da oztopo izango beste administrazio publiko batzuek obra edo zerbitzu berarengatik beste egitate zergagarri batzuk ezarri ahal izateko. Artikulu honetako lehen paragrafoan aipatutako % 90eko muga beti errespetatuko da.
- 5. Egitate zergagarria zehazteko, Udal-administrazioak eskuratutako diru-laguntzen edo bestelako laguntzen zenbatekoari guztizko kostua kentzean lortutako kopurua izango da Udal-administrazioak jasandako kostua.
- 6. Diru-laguntzak edo bestelako laguntzak kontribuzio bereziko subjektu pasibo batek eskaintzen baditu, zenbateko hori lehenik pertsona edo entitate horren kuota ordaintzeko erabiliko da. Diru-laguntza edo bestelako laguntza horren zenbatekoak kuota gainditzen badu, diru-kopuruaren alde horrek gainerako subjektu pasiboen kuotak murriztuko ditu hainbanaketan.

V. KUOTA.

8. artikulua

- 1. Kontribuzio berezien egitate zergagarria subjektu pasiboen artean banatuko da, obren eta zerbitzuen motari eta izaerari erreparatuta, eta ondoko arauak kontuan hartuta:
 - a) Oro har, honako ezaugarri hauek modu bateratuan eta bereizirik aplikatuko dira, banaketa-modulu gisa: higiezinaren fatxadaren metro linealak, higiezinaren azalera, bolumen eraikigarria eta ondasun higiezinaren gaineko zergarako katastro-balioa.



- b) Sua itzaltzeko zerbitzua ezartzeko, zabaltzeko edo hobetzeko jardueretan, udal-barrutian inskribatutako ondasunen arriskua estaltzen duten erakundeek edo elkarteek elkarren artean banatu ahal izango dute, aurreko urtean bildutako primen zenbatekoaren proportzioan.

Subjektu pasibo bakoitzari eska dakioken kuotak hark jasotako prima-zenbatekoaren % 5 gaingitzen badu, diru-alde hori hurrengo ekitaldietara igaroko da, harik eta erabat amortizatu arte.

- c) Ordenantza honetako 6. artikuluaaren bigarren paragrafoko d) idatz-zatian jasotako obretan, horiek erabiliko dituzten konpainien edo enpresen artean banatuko da kontribuzio berezien guztizko zenbatekoa, konpainia edo enpresa bakoitzari gordetako espazioaren arabera edo espazio guztitik horietako bakoitzari dagokion proportzioaren arabera, nahiz eta berehala erabili behar ez izan.

9. artikulua

Araudi aplikagarriak edo nazioarteko itunek zerga-hobariak eskaintzen badituzte, hobaridunei dagozkien kuotak ez dira gainerako zergadunen artean banatuko.


10. artikulua

Ordaindu beharreko kuota finkatutakoan, Udalbatzak, subjektu pasiboaren eskariz, kuota zatikatzeko edo geroratzeko baimena eskaini ahal izango du, gehienez jota bost urteko eperako.

VI. ZERGA-SORTZAPENA.

11. artikulua

1. Obrak burutu diren unean edo zerbitzua eskaintzen hasten den unean sortzen dira kontribuzio bereziak. Obrak zatigarriak badira, subjektu pasibo bakoitzari egingo zaio sortzapena, obraren zati edo atal bakoitza burutzen denean.
2. Aurreko zenbakiak xedatutakoa zernahi dela ere, Udalak, zergak ezartzeko eta ordainarazteko akordio zehatza adostu ostean, kontribuzio bereziak ordaintzea eskatu ahal izango du aldez aurretik, hurrengo urterako aurreikusitako zenbatekoaren kostuaren arabera. Ezingo da beste urte-sari bat aurreratzea eskatu, ez badira amaitu aurrerakin horren helburu ziren obrak.
3. Kontribuzio bereziak noiz sortzen diren hartuko da kontuan ordainketa egiteko obligazioa nortzuek duten zehazteko orduan, 6. artikuluan xedatutakoarekin bat, eta hori hala izango da beti, baita ordainketa agintzeko akordio jakin horretako subjektu pasiboa akordioa onartu zen uneko berbera bada eta kuotak aurrez ordaindu baditu ere, artikulua honen bigarren paragrafoan xedatutakoari jarraiki. Ordenazio-akordio zehatzean subjektu pasibo gisa ageri den pertsonari subjektu pasiboa dela jakinarazi ostean, pertsona horrek zergapetzea sortzen duten ondasunen edo ustiapenen gaineko eskubideak igortzen baditu akordioa onartzen denetik zerga sortzen den unera arte doan denbora-tartean, nahitaez igorpen horren berri eman beharko dio Udal-administrazioari, igorpen-egunetik hasita hilabeteko epean. Ez badu horrela egiten, administrazio horrek kobratzeko bideratu ahal izango du ekintza, eta espedientean subjektu pasibo gisa ageri denak ordaindu beharko du.
4. Obrak erabat edo zati batean burutzen direnean edo zerbitzua eskaintzen hasten denean, subjektu pasiboak, oinarriak, eta banan-banako kuota definitiboak emango dira jakitera; hala, egoki diren likidazioak igorri, eta aurrez egindako ordainketak konpentsatuko dira, konturako entrega moduan. Udal-administrazioak egingo du behin betiko jakinarazpen hori, eta, horretarako, obrari edo zerbitzuari dagokion zerga ordainarazteko akordio zehatzak ezarritako arauak jarraituko ditu.
5. Aurrez ordaindu duen pertsona eta zergaren zergapetze-datan ageri den subjektu pasiboa ez balitz pertsona berbera edo dagokion banan-banako kuota definitiboa gaingitu balu, Udal Administrazioak dagokion kopurua itzuliko lioke ofizioz.



VII. ZERGAPETZEA ETA ORDAIN-AGINDUA.

12. artikulua

1. Kontribuzio bereziak ordainarazteko, aurretik kasu bakoitzean zergapetze-akordioa hartu beharko da ezinbestean.
2. Kontribuzio berezien bidez ordaindu beharreko obrak egiteko edota zerbitzuak ezartzeko edo zabaltzeko akordioak ezingo dira gauzatu harik eta horien ordain-agindu jakina onartzen den arte.
3. Ordain-aginduen akordioa hartzea ezinbestekoa izango da, eta hainbat arlo zehaztuko dira bertan, hala nola, obretan nahiz zerbitzuetan aurreikusitako kostuak, onuradunen artean banatu beharreko zenbatekoa eta banaketa-irizpideak. Ordenantza honetara igorriko da ordain-aginduen akordio zehatza.
4. Kontribuzio bereziak ordainarazteko agindu zehatzaren akordioa hartu eta ordaindu beharreko kuotak zehaztu ostean, subjektu pasiboak banan bana emango zaie horren berri, baldin eta subjektu pasiboak nortzuk diren eta zein helbide duten jakiten bada; bestela, ediktuen bidez emango da jakitera. Interesatuak berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango dute Udalean zenbait arlo direla eta, hala nola, kontribuzio berezien jatorria, onura berezia eskuratzen duten pertsonak ordaindu beharreko kostuaren ehunekoa edo esleitu zaizkien kuotak.

13. artikulua

1. Udal-eskumeneko obrak edo zerbitzuak Udalaren eskumenekoak direnean –tokiko beste erakunde baten diru-laguntzaz– eta foru-araudian ezarritakoaren arabera kontribuzio bereziak ezartzen diren aldi guztietan, obrak egiteko edo zerbitzuak ezartzeko edota zabaltzeko ardura hartzen duen erakundeak kudeatu eta bilduko ditu kontribuzio bereziak, nahiz eta erakunde bakoitzak bere esku-mena gorde zergapetzeko eta ordainketa agintzeko akordioetan.
2. Horietako erakunderen batek ez badu onartzen ordainarazteko aginduen akordioa, jarduera-unitatea indargabetu egingo da, eta erakunde bakoitzak bereizirik hartuko ditu bidezko diren erabakiak.


VIII. HERRITARREN LANKIDETZA.

14. artikulua

1. Obrek jabe edo titular batzuei eragiten dietenean, jabe eta titular horiek zergadunen administrazio-elkartea osatu ahal izango dute, eta obrak egitea edo udal-zerbitzuak ezartzea edo zabaltzea sustatu ahal izango dute; horretarako, obraren edo zerbitzuaren izaeraren arabera dagokien zatia ordaintzeaz gain, Udalari dagokion zatia ordaintzeko konpromisoa hartuko dute, Udalaren diru-egoera dela-eta ezin badio gastu horri aurre egin.
2. Udalak sustatutako obrak egitean edo zerbitzuak ezartzean nahiz zabaltzean, jarduera horien eraginpean dauden jabeek edo titularrek ere zergadunen administrazio-elkartea eratu ahal izango dituzte denboraldi jakin batean –hain zuzen ere, kontribuzio bereziak ordainarazteko aginduen akordioa jendaurrean erakusten den denboraldian.


15. artikulua

1. Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan garatutako erregelamenduzko arauak ezarritakoaren arabera jardungo dute zergadunen elkarteak.
2. Zergadunen administrazio-elkarteak hartutako akordioak ezinbestean bete beharrekoak izango dira gainerako guztientzat, akordio horiek gehiengo osoz hartzen direnean eta ordaindu beharreko kuoten bi herenak aintzat hartzen dituztenean. Elkarteak, arestian adierazitako quoruma lortuta, Batzorde edo Bilkura Betearazlea eratzen badu bere barnean, bertan hartutako akordioak nahitaez betetzekoak izango dira interesatuentzat.
3. Zergadunen administrazio-elkarteak –14. artikulua lehen eta bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera eratu ostean– obrak eta zerbitzuak zuzenean egitea eskatu ahal izango diote Udalari.
Horretarako, baldintza hauek hartuko dira kontuan:



- a) Udal-administrazioak egindako proiektuaren baldintzapean eta epeen barruan egin behar dira obrak edo zerbitzuak, edo, gutxienez, elkarteak aurkeztutako eta Udalak onartutako proiektuaren baldintzen eta epeen barruan.
- b) Udalak izendatutako teknikarien zuzendaritzapean egingo dira beti obrak edo zerbitzuak.
- c) Elkarteak hartuko du interes publikoei nahiz pribatuei eragin dakizkiekeen kalte-galeren ardura; elkartearen erantzukizuna izango dira, orobat, gerta daitezkeen atzerapenak eta behin betiko onartu ondorengo bost urteetan agerian geratutako ezkutuko akatsak.
- d) Zergadunen administrazio-elkarrekin obrei eta zerbitzuei buruz egindako proposamenak onartzeko edo ukatzeko ahalmena izango du Udalak.

Obrak edo zerbitzuak gauzatzeko Udalak ekarpenik egiten badu, obra edo zerbitzua behin betiko onartu bezain laster ordainduko du.



7. ZERBITZU PUBLIKOEN ETA JARDUEREN TASAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua

Udal honek Lurralde Historikoaren Tokiko Ogasunak arautzeko 9/2005 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera ezarriko du zerbitzu publikoen eta jardueren tasak, eta halaxe eskatuko ditu, ordenantza honekin bat (bertan jasotzen da tasa horiek dakartzan eranskina).

2. artikulua

Udal-barruti osoan aplikatuko da ordenantza hau.

II. IZAERA ETA EGITATE ZERGAGARRIA.

3. artikulua

Egitate zergagarria da Zuzenbide Publikoko araubidean zerbitzuak ematea eta jarduerak egitea, bereziki zergadunari dagozkionak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak ez badira zergadunek borondatez eskatu edo jaso dituztenak, eta ez badira sektore pribatuan ematen edo egiten. Hori guztia, 9/2005 Foru Arauko 21. artikuluan ezarritakoarekin bat.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

4. artikulua

1. Pertsona fisikoak nahiz juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan aipatutako erakundeak dira zerga honen subjektu pasibo zergadunak, betiere, Durangoko Udalak eskaintzen edo antolatzen dituen zerbitzuak edo jarduerak eskatu badituzte edo horietatik onurak edo eraginak jasotzen badituzte. Zerbitzu eta jarduera horiek ordenantza honetan daude jasota.
2. Hauek izango dira zergadunaren ordezkioak:
 - a) Etxebizitzen edo lokalen okupatzaileek zerbitzuetatik edo jardueretatik onurak edo eraginak jasotzen dituztenean, jarduera edo zerbitzu horien tasetan, higiezin horietako jabeak zergadun-ordezkoak izango dira, eta, horrenbestez, kasu bada, onuradunen kuoten ardura hartuko dute.
 - b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraispen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantentzea barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.
 - c) Lurzoruari eta hiri antolaketa buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan, obren eraikitzaileak eta kontratistak.

5. artikulua

Honako hauek ordaindu behar dituzte tasak:

1. Banakoen eskariz gauzatutako zerbitzuetan edo jardueretan, eskatzaileek ordaindu beharko dituzte.
2. Zerbitzuak edo jarduerak banakoek eskatu gabe baina euren ekintzen edo omisioen eraginez gauzatu badira, ekintza edo omisio horien eragileek ordaindu beharko dituzte.


6. artikulua

Subjektu pasiboaz gain, tarifak ezartzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere ordenantza honetatik sortutako zerga-zorrak ordaindu beharko dituzte.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK.

7. artikulua

Zerga-arloan salbuespenak edo hobariak eskaintzeko, xedapen orokor aplikagarrietan ezarritakoa da.



V. OINARRI ZERGAGARRIA.

8. artikulua

Zerbitzua gauzatzen duten unitate guztiek osatzen dute oinarri zergagarria –horietako unitate bakoitzari dagokion moduan.

VI. KUOTA.

9. artikulua

Kuota finkatzeko, aurreko artikuluko oinarriari eranskinetan jasotako tarifetatik hari dagokiona aplikatuko zaio, horretara jarritako zenbateko finko bat, edo bi prozeduretatik ateratzen den zenbatekoa. Hau guztia, aplikazio arauei jarraiki.

VII. SORTZAPENA.

10. artikulua

Zerbitzuaren prestazioa hastean edo jarduera gauzatzean sortzen dira tasak.

Zergadunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzu publikoa edo jarduera administratiboa ez bada ematen edo garatzen, dagokion zenbatekoa itzuliko da.

VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRU-SARRERA.

11. artikulua

Kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du Udal-administrazioak, dagokion tarifyan jasotako ordainarazpen bakoitzaren arauet jarraituta.

1. epigrafea. hondakinak jaso eta deuseztatzeko zerbitzua

1. Tasaren egitate zergagarria da:


- a) Tasaren egitate zergagarria da, etxebizitzetako, alojamendu eta industria, merkataritza, lanbide, arte, zerbitzu, gizarte, kultura, kirol edo planeamendu urbanistikoan aurreikusitako bestelako jarduerak burutzen diren edo burutu daitezkeen establezimenduetako hiri hondakin solidoak biltzeko derrigorrezkoa den zerbitzua ematea, kontuan hartu gabe higiezinaren erabilera egokituta dagoen udal araudiari dagokionez. Halaber, estolderia zerbitzua ere sartzen da (iraitziak ebakutzea, euri-urak, ur zikinak eta hondakin urak).
- b) Hiri hondakin solidotzat jotzen dira lokalak nahiz etxebizitzak garbitzetik ateratako janari nahiz detritus hondar eta hondakinak, eta ez ordea, industri motako hondakinak, obra-hondakinak, giza-detritusak; kutsatutako gai eta materialak, gai eta material korrosiboak, arriskutsuak edo haiek bildu nahiz isurtzeko higie, profilaxi edo segurtasun neurri bereziak hartu beharra eskatzen dutenak.
- c) Ez dute tasa ordaindu beharrik izango, norberaren borondatez nahiz alde batek eskatuta emandako honako zerbitzuok:
 - Industri, ospitale eta laborategietako etxeko nahiz hiriko eta hondakin gisa sailkatu ez direnak biltzea.
 - Berogailu zentraletako errauts eta hondar-bilketa.
 - Obra-hondakinak biltzea.

2. Subjektu pasiboa:

Subjektu pasibo zergadunak dira pertsona fisiko eta juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorren 35. artikulua aipatzen dituen entitateak, zerbitzua ematen den leku, plaza, kale nahiz bide publikoetan kokatutako etxebizitzak eta lokalak okupatu nahiz darabiltzatenak, dela jabe nahiz gozamen dun gisa dela errentari gisa, bai eta prekarioko izanda ere.

Zergadunaren ordezkia etxebizitzan edo lokalen jabea izango da.

3. Sortzapen: zerbitzua ematen hasten denean sortzen dira. Zerbitzua nahitaez hartu behar den gero, zerbitzu ematea hasitzat joko da, tasa ordaindu behar duten zergadunak darabiltzaten etxebizitza eta lokalak dauden lekuetan.



I. Tarifak.



	Seihileko kuota
1a. Etxebizitza bakoitzeko. Familia bakarreko edo isolatuta dagoen bi familiako etxebizitza bakoitzeko eta ilaran bildurik dauden familia askoko etxebizitzako, betiere, hiri-lurrean edo hiri-lur urbanizagarrian kokatuta badaude.	54,12 €
1.b. Gainerako etxebizitzak	49,22 €
2. Merkataritza-jarduerarik gabeko lokalak.	50,49 €
3. Dendak, merkataritza-lokalak.	
3.1. Azalera 50 m2-koa baino txikiagoa denean.	112,13 €
3.2. Azalera 50-75 m2 artekoa denean, tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 25
3.3. Azalera 76-100 m2 artekoa denean, tasari hau gehituko zaio:	% 50
3.4. Azalera 101-150 m2 artekoa denean (kanpo geratzen dira supermerkatuak, hipermerkatuak eta erostetxe handiak) tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 75
3.5. Azalera 151-300 m2 artekoa denean (kanpo geratzen dira supermerkatuak, hipermerkatuak eta erostetxe handiak) tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 100
3.6. Azalera 300 m2-koa baino handiagoa denean (kanpo geratzen dira supermerkatuak, hipermerkatuak eta erostetxe handiak) tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 200
4. Merkataritzako edo laneko bulegoak.	
4.1. Azalera 50 m2-koa baino txikiagoa denean.	130,55 €
4.2. Azalera 50-75 m2 artekoa denean, tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 25
4.3. Azalera 76-100 m2 artekoa denean, tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 50
4.4. Azalera 101-150 m2 artekoa denean (kanpo geratzen dira supermerkatu, hipermerkatu eta erostetxe handiak) tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 75
4.5. Azalera 151-300 m2 artekoa denean (kanpo geratzen dira supermerkatu, hipermerkatu eta erostetxe handiak) tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 100
4.6. Azalera 300 m2 baino handiagoa denean (kanpo geratzen dira supermerkatu, hipermerkatu eta erostetxe handiak) tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 200
5. Biltegiak, bankuak, kutzak, finantza-erakundeak eta klinikak.	631,94 €
6. Banku, Kutzak edo Erakunde finantzarioak. Klinikak.	662,64 €
7. Ostalaritza-negozioak eta antzekoak.	
1. Lehen taldea, ostalaritzaren, gastronomia-elkarteen eta antzekoen ordenantza.	337,77 €
2. Bigarren taldea, ostalaritzaren ordenantza –jatetxeak eta erretegiak kanpo.	675,40 €
3. Hirugarren taldea, ostalaritzaren ordenantza.	751,10 €
4. Laugarren taldea, ostalaritzaren ordenantza.	876,30 €
5. Taberna/jatetxeak, erretegiak eta antzekoak.	751,10 €
6. Hotelak, ostatuak eta pentsioak (10 gela artekoak).	788,18 €
7. Hotelak, ostatuak eta pentsioak (11 eta 25 gela artekoak).	1.005,95€
8. Hotelak, ostatuak eta pentsioak (25 gela baino gehiagokoak).	1.251,80€
8. Garajeak eta ibilgailuak gordetzeko lekuak.	
7.1. Plaza-kopurua 10 artekoa dutenean.	47,28 €
7.2. Plaza-kopurua 11 eta 25 artekoa dutenean.	78,79€
7.3. Plaza-kopurua 25 eta 50 artekoa dutenean.	110,32 €
7.4. Hortik aurrerako 50 plazako sail bakoitzeko.	63,13 €
9. Industriak, fabrikak, erakunde publikoak eta mota guztietako tailerrak.	
8.1. Langile-kopurua 10 artekoa dutenean.	205,62 €
8.2. Langile-kopurua 11 eta 30 artekoa dutenean.	347,62 €
8.3. Langile-kopurua 31 eta 60 artekoa dutenean.	553,18 €
8.4. Langile-kopurua 61 eta 100 artekoa dutenean.	837,02 €
8.5. Langile-kopurua 101etik gorakoa denean.	1.297,55€
10. 100 m2 baino gehiagoko supermerkatuak, hipermerkatuak eta erostetxe handiak.	



9.1. Azalera 101 eta 200 m2 artekoa dutenean.	1.339,76€
9.2. Azalera 201 eta 350 m2 artekoa dutenean.	2.799,49€
9.3. Azalera 351 eta 800 m2 artekoa dutenean.	5.598,99€
9.4. Azalera 801 eta 3000 m2 artekoa dutenean.	10.752,61€
9.5 . Azalera 3.001 m2-tik gorakoa dutenean.	26.875,75

Tarifak aplikatzeko arauak.

1. Tasa hauetako kuotak urte osokoak dira, baina bi zatitan ordainduko dira sei hilabete behin, eta, Durangoko Udalaren onespenez, beste tasa batzuekin batera ordaintzeko aukera eskainiko da.

2. Adierazitako kuotak hainbanatu egin ahal izango dira.

Zergaduna etxebizitzako edo lokaleko jabe den unetik egongo dira altak indarrean, eta haiei dagokien likidazioa hilabeteko zatietan egingo da gorantz biribilduta. Zenbatekoa 3 euro baino gutxiagokoa bada, ez da erreziborik igorriko.

Bajak gauzatzen diren hurrengo seihilekoaren lehen egunetik aurrera sartuko dira indarrean.

3. Oro har, onura fiskala apirilaren 15a baino lehen eskatu beharko da, eta hobaria kobrantzako bi seihilekoetan aplikatuko da Egun horren ondoren egindako eskaerak ezetsi egingo dira. Irizpide hau beste hobari batzuetarako ezar daitezkeen epe bereziei kalterik egin gabe aplikatuko da.
4. %50eko hobaria izango dute langileen seme-alabentzako haurtzaindegia dituzten enpresak. Halaber, gimnasio, zine eta merkataritza-guneetan bezeroentzat jarritako haurtzaindegi-zerbitzuak ere izango dute hobaria.
5. %90eko hobaria izango dute Durangoko irabazi asmorik gabeko elkarte kulturalak, gizarte arlokoak edo kirol arlokoak, baldin eta, espresuki, euren ekimenak burutzeko erabiltzen badituzte eta beren xede sozialean zehazten diren eginkizunetarako erabiltzen ez badira.
6. Familia unitatearen urteko errentaren arabera (14 ordainketak kontuan hartuz), honako hobari taula aplikatuko da:


BIZIKIDETZA UNITATEKO PERTSONA KOPURUA	< = LAGS	< = 1,5 LAGS	< = 2 LAGS	< = 2,5 LAGS	< = 3 LAGS
1--2	% 80	%20	%10	% 0	% 0
3	%90	%50	%30	%20	%10
4	95%	%60	%40	%30	%20
5 edo >	% 95	%95	%95	%95	%95

Hobaria lortzeko, subjektu pasiboa Durangon urte bateko antzinasunarekin egon beharko da erroldatuta. Horretaz aparte, hobariaren onuraduna izateko beharrezkoa da:

- Ondasun higiezin subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izatea.
- Familia unitatearen kide guztiak Durangoko ondasun higiezin horretan erroldatuta egotea.

Hobaria urtero eskatu beharko du zergadunak, dokumentu hauekin batera:

- Zerga onuraren eskaera idatzia ondasun higiezin identifikatuz.
- Ondasunaren jabetza frogatzen duen dokumentuaren fotokopia.
- Familia unitateko kideen errenta aitortpena.



Familia-unitateak hobaria eskuratu ahal izango du baldintza subjektiboak eta emakidaren oinarri izan den diru-sarreraren maila duen bitartean. Zergadunak gai honen inguruko aldaketa guztiak jakinarazi beharko ditu, eta Administrazioak ofizioz egiaztatzeko eskubidea izango du. Hobariaren bidegabeko gozamina frogatuko balu, Administrazioak dagozkion likidazio osagarriak bideratuko lituzke, eta honekin batera, zerga arau-haustea egiteagatik dagozkion zehapena edo isuna jarriko luke.

7. %50eko hobaria izango dute, denda, ostalaritza edo zerbitzuetan bere jarduera ekonomikoa daukaten subjektu pasiboek, lan publikoaren ondorioz kaltetuak izaten badira. Hobaria onartzeko betekizunak honako hauek dira:
- Lehenengo egunetik aurrera zerga-ekitaldi berean kontagarri diren obrei aplikatuko da.
 - Lokala, obrak aurrera eramaten den kaleetan edo kale zatietan kokatuta egon beharko du.
 - Hobaria aplikagarria izan ezker eta bere zenbatekoa lortzeko, obren eraginak irauten diren egun bakoitzetik kuotari %0,25 kenduko zaio, gehiengo %50-arte.

8. Zerga kuotako %80 hobaria izango dute langabezi egoeran dauden zergapetutako ondasun higiezinaren jabeak diren subjektu pasiboek. Hobari hau gozatzeko honako hau beharrezkoa izango da:

- Ondasuna subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izan beharko du.
- Jabe bat baino gehiago izanez gero, guztiak langabezi egoeran egon behar dira.

Subjektu pasiboak onura eskatu beharko du ekitaldi fiskaleko apirilaren 15a baino lehen –lehenengo seihilabeterako- eta urriaren 15a baino lehen –bigarren seihilabeterako-, honako dokumentazioa eskakizunari erantsi behar diolarik:


- Onuraren eskakizunaren idazkia non ondasun higiezinak zehazki identifikatzen da.
- Ondasun higiezinaren jabetza dokumentuaren fotokopia.
- Ondasunaren jabeen LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuak luzatutako izen ematearen aldiei buruzko txostena.

Edozein jabe langabezia uzten badu Segurantzako Sozialeko edozein erregimen batean alta hartzeagatik, hurrengo seihilekorako onura fiskalaren baliogabetzea ekarriko du. Subjektu pasiboa behartuta dago honen berri ematera, eta administrazioak bultzaturiko egiaztapen baten ondorioz betebeharrak bete ez dela eta onura legez kanpo gozatu dela frogatzen bada, hobaria erruz aplikatutako diru kopuruen itzultzea eskatuko da eta zerga legediak ezarritako zehapenen inposaketa ekarriko du.

Zergadun izaera duen subjektu pasiboak Administrazio Publiko bat izango balitz, etxebizitzaren jabea delako eta hau babestutako etxebizitza ondarearen barruan badago, errentarietako edo lurrazal-eskubidearen titularrek hobaria eska dezakete beti ere jabeari eskaturiko baldintzak betetzen badituzte.

9. Zerga kuotako %90 hobaria izango dute generoko indarkeriaren biktima diren emakumeek, abenduaren 23ko 329/2003 lanerako laguntzak arautzen dituen dekretuko 6.h) atalaren baldintzak betetzen badira eta beti ere famili-unitatearen sarrera ekonomikoek honako mugak gainditzen ez badituzte:

Hobaria	Familia unitateko ki-deak	Langile arteko Gutxieneako Soldata
%90	1 edo 2	2,00
%90	3	2,50
%90	4	3,00
%90	5	3,50
%90	6 edo gehiago	4,00



11. ASAP edo Alokatzeko Etxebizitzaren Udalerriak bere etxebizitza eskeintzen dioten subjektu pasiboak, zerga kuotako %90 hoberia izango dituzte. Alokairu errentaren ezin izango de 500 € baino gehiagokoa izan hoberia jasotzeko.
12. Kuotan % 30eko hoberia izango dute edukiontzi marroia edo hondakin organikoak selektiboki jasotzeko edukiontzia etxean modu aktiboan erabiltzen duten zergadunek. Erabilera aktibotzat hauxe hartuko da: sei hilean gutxienez 25 egunez erabiltzea, hile guztietan modu aktiboan udalak ezarritako sistema ofizial elektronikoa erabilia. Era berean, zerbitzua honela erabiltzea beharrezkoa izango da:

- Lehen sei hilekoan (azaroaren 1etik apirilaren 30era): 25 egunez gutxienez eta 6 hileetan zerbitzuaren erabilera aktiboa eginez.

- Bigarren sei hilekoan (maiatzaren 1etik urriaren 31ra): 25 egunez gutxienez eta 5 hileetan zerbitzuaren erabilera aktiboa eginez.

13. %50eko hoberia izango dute, ekonomia-jarduera moduan, elikagaiak saltzen dituzten subjektu pasiboak, betiere, fatxada nagusiaren aurrean eta 7 metro baino gutxiagora, hondakin organikoak edo errefusa biltzeko udal kontainerren baldin badute.

Administrazio Publiko batek izango balu Zergadunaren ordezkoren izaera ondasun higiezinaren jabetza daukalako eta ondasun hori alokairu sozialeko etxebizitza parkean sartuta egongo balitz, maizterrak aurreko zerga hoberiak jasotzeko aukera izango du. Horretarako jabeari eskatutako betekizunak errentariari eskatuko zaizkio, ondasunaren jabetzari buruzkoak izan ezik.

Hoberia emateko beharrezkoa izango da eskatzaileak Tasaren ordaintzailea dela frogatzea, bai Administrazio Publikoaren sinatutako kontratua aurkeztuz, bai ordainketaren banku justifikanteak erakutsiz.

Aipatutako hoberiak ez dira batera gozatuko, subjektu pasiboak espresuki bat aukeratu behar duelarik.

2.Epigrafea. Estolderia zerbitzua

1. Tasaren egitate zergagarria da:

Estolderia-sareko zerbitzu publikoak ematea.

2. Subjektu pasiboa:

Subjektu pasibo zergadunak dira pertsona fisiko eta juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikulua aitutzen dituen entitateak, zerbitzua ematen den leku, plaza, kale nahiz bide publikoetan kokatutako etxebizitzak eta lokalak okupatu nahiz darabiltzatenak, dela jabe nahiz gozamenaren gisa dela errentari gisa, bai eta prekarioko izanda ere.

Zergadunaren ordezkia etxebizitzaren edo lokalen jabea izango da.

3. Sortzapen: zerbitzua ematen hasten denean sortzen dira. Zerbitzua nahitaez hartu behar de-nez gero, zerbitzu ematea hasitzat joko da, tasa ordaindu behar duten zergadunak darabil-tzaten etxebizitza eta lokalak dauden lekuetan.



	Seihileko kuota
1a. Etxebizitza bakoitzeko. Familia bakarreko edo isolatuta dagoen bi familiako etxebizitza bakoitzeko eta ilaran bildurik dauden familia askoko etxebizitzako, betiere, hiri-lurrean edo hiri-lur urbanizagarrian kokatuta badaude.	7,54 €
1.b. Gainerako etxebizitzak	6,86 €
2. Merkataritza-jarduerarik gabeko lokalak.	5,79 €
3. Dendak, merkataritza-lokalak.	
3.1. Azalera 50 m2-koa baino txikiagoa denean.	11,20 €
3.2. Azalera 50-75 m2 artekoa denean, tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 25
3.3. Azalera 76-100 m2 artekoa denean, tasari hau gehituko zaio:	% 50
3.4. Azalera 101-150 m2 artekoa denean (kanpo geratzen dira supermerkatuak, hipermerkatuak eta erostetxe handiak) tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 75
3.5. Azalera 151-300 m2 artekoa denean (kanpo geratzen dira supermerkatuak, hipermerkatuak eta erostetxe handiak) tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 100
3.6. Azalera 300 m2-koa baino handiagoa denean (kanpo geratzen dira supermerkatuak, hipermerkatuak eta erostetxe handiak) tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 200
4. Merkataritzako edo laneko bulegoak.	
4.1. Azalera 50 m2-koa baino txikiagoa denean.	13,61 €
4.2. Azalera 50-75 m2 artekoa denean, tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 25
4.3. Azalera 76-100 m2 artekoa denean, tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 50
4.4. Azalera 101-150 m2 artekoa denean (kanpo geratzen dira supermerkatu, hipermerkatu eta erostetxe handiak) tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 75
4.5. Azalera 151-300 m2 artekoa denean (kanpo geratzen dira supermerkatu, hipermerkatu eta erostetxe handiak) tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 100
4.6. Azalera 300 m2 baino handiagoa denean (kanpo geratzen dira supermerkatu, hipermerkatu eta erostetxe handiak) tasari ehuneko hau gehituko zaio:	% 200
5. Biltegiak, bankuak, kutzak, finantza-erakundeak eta klinikak.	23,54 €
6. Banku, Kutzak edo Erakunde finantzarioak. Klinikak.	24,67 €
7. Ostalaritza-negozioak eta antzekoak.	
1. Lehen taldea, ostalaritzaren, gastronomia-elkarteen eta antzekoen ordenantza.	11,20 €
2. Bigarren taldea, ostalaritzaren ordenantza –jatetxeak eta erretegiak kanpo.	22,40 €
3. Hirugarren taldea, ostalaritzaren ordenantza.	24,37 €
4. Laugarren taldea, ostalaritzaren ordenantza.	28,07 €
5. Taberna/jatetxeak, erretegiak eta antzekoak.	24,37 €
6. Hotelak, ostatuak eta pentsioak (10 gela artekoak).	11,20 €
7. Hotelak, ostatuak eta pentsioak (11 eta 25 gela artekoak).	30,91 €
8. Hotelak, ostatuak eta pentsioak (25 gela baino gehiagokoak).	37,42 €
8. Garajeak eta ibilgailuak gordetzeko lekuak.	
7.1. Plaza-kopurua 10 artekoa dutenean.	3,46 €
7.2. Plaza-kopurua 11 eta 25 artekoa dutenean.	5,88 €
7.3. Plaza-kopurua 25 eta 50 artekoa dutenean.	8,20 €
7.4. Hortik aurrerako 50 plazako sail bakoitzeko.	4,74 €
9. Industriak, fabrikak, erakunde publikoak eta mota guztietako tailerrak.	
8.1. Langile-kopurua 10 artekoa dutenean.	9,42 €
8.2. Langile-kopurua 11 eta 30 artekoa dutenean.	18,98 €
8.3. Langile-kopurua 31 eta 60 artekoa dutenean.	31,98 €
8.4. Langile-kopurua 61 eta 100 artekoa dutenean.	36,91 €
8.5. Langile-kopurua 101etik gorakoa denean.	60,79 €
10. 100 m2 baino gehiagoko supermerkatuak, hipermerkatuak eta erostetxe handiak.	



9.1. Azalera 101 eta 200 m2 artekoa dutenean.	104,56 €
9.2. Azalera 201 eta 350 m2 artekoa dutenean.	104,56 €
9.3. Azalera 351 eta 800 m2 artekoa dutenean.	209,30 €
9.4. Azalera 801 eta 3000 m2 artekoa dutenean.	209,30 €
9.5 . Azalera 3.001 m2-tik gorakoa dutenean.	523,26 €

Tarifak aplikatzeko arauak.

1. Tasa hauetako kuotak urte osokoak dira, baina bi zatitan ordainduko dira sei hilabete behin, eta, Durangoko Udalaren onespenez, beste tasa batzuekin batera ordaintzeko aukera eskainiko da.

2. Adierazitako kuotak hainbanatu egin ahal izango dira.

Zergaduna etxebizitzako edo lokaleko jabe den unetik egongo dira altak indarrean, eta haiei dagokien likidazioa hilabeteko zatietan egingo da gorantz biribilduta. Zenbatekoa 3 euro baino gutxiagokoa bada, ez da erreziborik igorriko.

Bajak gauzatzen diren hurrengo sei hilekoaren lehen egunetik aurrera sartuko dira indarrean.

3. Zerbitzuetako langileek egindako zerbitzu berezietan, hala nola, hobi septikoak eta putzu beltzak garbitzean, estoldak ikuskatzean edota finken saneamenduko bestelako lan bereziak egitean, lan horiek finken jabeen interes eta zerbitzurako gauzatzen badira, jabeek ordaindu beharko dute zerbitzuaren kostua likidazio-bidez. Kostu horren barruan, lan-sariei, garraioei eta joan-etorriei % 15 gehituko zaie, ikuskatze-lanengatik, zaintze-lanengatik eta gastu orokorrenengatik, eta % 5 gehiago, obra zuzentzeagatik.

Aipatutako zerbitzu berezietatik jasotako kuotak likidazio-bidez eskatuko dira gauzatutako jarduerara edo zerbitzu bakoitzeko.

4. Oro har, onura fiskala apirilaren 15a baino lehen eskatu beharko da, eta hobaria kobrantzako bi sei hilekoetan aplikatuko da Egun horren ondoren egindako eskaerak ezetsi egingo dira. Irizpide hau beste hobari batzuetarako ezar daitezkeen epe bereziei kalterik egin gabe aplikatuko da.
5. %50eko hobaria izango dute langileen seme-alabentzako haurtzaindegiak dituzten enpresak. Hala ere, gimnasio, zine eta merkataritza-guneetan bezeroentzat jarritako haurtzaindegi-zerbitzuak ere izango dute hobaria.
6. %90eko hobaria izango dute Durangoko irabazi asmorik gabeko elkarte kulturalak, gizarte arlokoak edo kirol arlokoak, baldin eta, espresuki, euren ekimenak burutzeko erabiltzen badituzte eta beren xede sozialean zehazten diren eginkizunetarako erabiltzen ez badira.
7. Familia unitatearen urteko errentaren arabera (14 ordainketak kontuan hartuz), honako hobari taula aplikatuko da:

BIZIKIDETZA UNITATEKO PERTSONA KOPURUA	< = LAGS	< = 1,5 LAGS	< = 2 LAGS	< = 2,5 LAGS	< = 3 LAGS
1--2	% 80	%20	%10	% 0	% 0
3	%90	%50	%30	%20	%10
4	95%	%60	%40	%30	%20
5 edo >	% 95	%95	%95	%95	%95

Hobaria lortzeko, subjektu pasiboa Durangon urte bateko antzinatasunarekin egon beharko da erroldatuta. Horretaz aparte, hobariaren onuraduna izateko beharrezkoa da:

- Ondasun higiezin subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izatea.
- Familia unitatearen kide guztiak Durangoko ondasun higiezin horretan erroldatuta egotea.



Hobaria urtero eskatu beharko du zergadunak, dokumentu hauekin batera:

- Zerga onuraren eskaera idatzia ondasun higiezinak identifikatuz.
- Ondasunaren jabetza frogatzen duen dokumentuaren fotokopia.
- Familia unitateko kideen errenta aitortpena.

Familia-unitateak hobaria eskuratu ahal izango du baldintza subjektiboak eta emakidaren oinarri izan den diru-sarreraren maila duen bitartean. Zergadunak gai honen inguruko aldaketa guztiak jakinarazi beharko ditu, eta Administrazioak ofizioz egiaztatze eskubidea izango du. Hobariaren bidegabeko gozamina frogatuko balu, Administrazioak dagozkion likidazio osagarriak bideratuko lituzke, eta honekin batera, zerga arau-haustea egiteagatik dagozkion zehapena edo isuna jarriko luke.

8. %50eko hobaria izango dute, denda, ostalaritza edo zerbitzuetan bere jardura ekonomikoa daukaten subjektu pasiboak, lan publikoaren ondorioz kaltetuak izaten badira. Hobaria onartzeko betekizunak honako hauek dira:

- Lehenengo egunetik aurrera zerga-ekitaldi berean kontagarri diren obrei aplikatuko da.
- Lokala, obrak aurrera eramaten den kaleetan edo kale zatietan kokatuta egon beharko du.
- Hobaria aplikagarria izan ezker eta bere zenbatekoa lortzeko, obren eraginak irauten diren egun bakoitzetik kuotari %0,25 kenduko zaio, gehiengo %50-arte.

9. Zerga kuotako %80 hobaria izango dute langabezi egoeran dauden zergapetutako ondasun higiezinaren jabeak diren subjektu pasiboak. Hobari hau gozatzeko honako hau beharrezkoa izango da:

- Ondasuna subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izan beharko du.
- Jabe bat baino gehiago izanez gero, guztiak langabezi egoeran egon behar dira.

Subjektu pasiboak onura eskatu beharko du ekitaldi fiskaleko apirilaren 15a baino lehen –lehenengo seihilabeterako- eta urriaren 15a baino lehen –bigarren seihilabeterako-, honako dokumentazioa eskakizunari erantsi behar diolarik:


- Onuraren eskakizunaren idazkia non ondasun higiezinak zehazki identifikatzen da.
- Ondasun higiezinaren jabetza dokumentuaren fotokopia.
- Ondasunaren jabeen LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuak luzatutako izen ematearen aldiei buruzko txostena.

Edozein jabe langabezia uzten badu Segurantzako Sozialeko edozein erregimen batean alta hartzeagatik, hurrengo seihilekorako onura fiskalaren baliogabetzea ekarriko du. Subjektu pasiboa behartuta dago honen berri ematera, eta administrazioak bultzaturiko egiaztapen baten ondorioz betebeharrak bete ez dela eta onura legez kanpo gozatu dela frogatzen bada, hobaria erruz aplikatutako diru kopuruen itzultzea eskatuko da eta zerga legediak ezarritako zehapenen inposaketa ekarriko du.

Zergadun izaera duen subjektu pasiboak Administrazio Publiko bat izango balitz, etxebizitzaren jabea delako eta hau babestutako etxebizitza ondarearen barruan badago, errentarietako edo lurrazal-eskubidearen titularrek hobaria eska dezakete beti ere jabeari eskaturiko baldintzak betetzen badituzte.

10. Zerga kuotako %90 hobaria izango dute generoko indarkeriaren biktimak diren emakumeek, abenduaren 23ko 329/2003 lanerako laguntzak arautzen dituen dekretuko 6.h) atalaren baldintzak betetzen badira eta beti ere famili-unitatearen sarrera ekonomikoek honako mugak gainditzen ez badituzte:

Hobaria	Familia unitateko kideak	Langile arteko Gutxieneako Soldata
%90	1 edo 2	2,00
%90	3	2,50



%90	4	3,00
%90	5	3,50
%90	6 edo gehiago	4,00

11. ASAP edo Alokatzeko Etxebizitzaren Udako Erroldari bere etxebizitza eskeintzen dioten subjektu pasiboek, zerga kuotako %90 hobaria izango dituzte. Alokairu errentaren ezin izango de 500 € baino gehiagokoa izan hobaria jasotzeko.

12. %50eko hobaria izango dute, ekonomia-jarduera moduan, elikagaiak saltzen dituzten subjektu pasiboek, betiere, fatxada nagusiaren aurrean eta 7 metro baino gutxiagora, hondakin organikoak edo errefusa biltzeko udal kontainerren baldin badute.

Administrazio Publiko batek izango balu Zergadunaren ordezkaren izaera ondasun higiezinaren jabetza daukalako eta ondasun hori alokairu sozialeko etxebizitza parkean sartuta egongo balitz, maizterrak aurreko zerga hobariak jasotzeko aukera izango du. Horretarako jabeari eskatutako betekizunak errentariari eskatuko zaizkio, ondasunaren jabetzari buruzkoak izan ezik.

Hobaria emateko beharrezkoa izango da eskatzaileak Tasaren ordaintzailea dela frogatzea, bai Administrazio Publikoaren sinatutako kontratua aurkeztuz, bai ordainketaren banku justifikanteak erakutsiz.

Aipatutako hobariak ez dira batera gozatuko, subjektu pasiboak espresuki bat aukeratu behar duenlarik.

3. epigrafea. Dokumentuak izapidetzeko zerbitzua

1. Egitate zergagarria:


- Alde batek hala eskatuta, era guztietako Udako administrazioaren dokumentazioa tramitatzearen ondorioz burututako administrazio-jarduera da.
- Ondorio horietarako, aldeak eskatuta tramitatutakotzat joko da, partikularrak eragindako nahiz haren onerako izango den edozein administrazioko dokumentu, interesdunak eskabidea berariaz egin ez duen arren.
- I. tarifaren 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12. eta 13. puntuetako zergapeko egitateak barne hartuko ditu bai kopiak egitea (paperezko euskarria), bai informazioa jatorrizkoa ez den beste formatu batera eskualdatzea – eskaneatzea, grabatzea – (euskarri digitala).

1. Subjektu pasiboa:

- Zergaduna: zerbitzuak nahiz jarduerak eskatzen dituzten edota haien onuradun eta haiek ukitutako pertsona fisiko eta juridikoa, eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikuluan adierazten diren erakundeak.
- Subjektu pasiboaren tributu-obligazioen baterako erantzule dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 41.1 artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak.
- Ordezko erantzule izango dira baltzuetako administratzaileak eta sindikoak, porroten, lehiaketen, baltzuen eta orotariko entitateen kontu-hartzaileak nahiz kitatzaileak, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 42. artikuluan adierazitako balizkoetan eta neurrian.

2. Sortzapena:

- Agiriak tramitzatzeko bidean jarriko dituen eskabidea aurkeztean sortzen da Tasa eta ordaintzeko erantzunbeharra.
- 1 b) artikuluan aipatzen diren kasuetan, ofizioko udal jarduketa ekarriko duen inguruabarrak gertatzen direnean nahiz jarduketa hasten denean, interesdunak alde aurretiko eskabiderik egin ez badu ere, haren onerako baldin bada.



4. Tasak autolikidazio bidez exijituko dira.
5. Zerga-kuota ezartzeko zenbateko finko bat jarriko da, segun eta zelakoak diren tramitatu beharreko dokumentu edo espedienteak eta, beti ere, tarifen eranskinaren arabera.

I. Tarifak.

Kontzeptua	Kuota
1. Ezbeharrari buruzko Udaltzaingoaren txosten teknikoa. Ale bakoitzeko.	195,37 €
2. Agiriak konpultsatzea. Zigiluko.	4,40 €
3. . Beste epigrafeetan jaso ez diren dokumentuen kopia ateratzea.	0,30 €
4. Planoak. Kartografia. s. Planoaren kopia bakoitzeko DIN A1 Zuri/Beltzean	28,79 €
5. Planoak. Kartografia. s. Planoaren kopia bakoitzeko DIN A3 Zuri/Beltzean	1,00 €
6. Artxibatutako proiektuak. Planoaren kopia bakoitzeko DIN A1	18,79 €
7. Artxibatutako proiektuak. Planoaren kopia bakoitzeko DIN A3	2,00 €
8. Planeamenduzko tresnak eta jendaurrean dauden proiektu partikularrak. Planoaren kopia bakoitzeko DIN A1 Zuri/Beltzean	12,57 €
9. Planeamenduzko tresnak eta jendaurrean dauden proiektu partikularrak. Planoaren kopia bakoitzeko DIN A1 Zuri/Beltzean	2,34 €
10. Planeamenduzko tresnak eta jendaurrean dauden proiektu partikularrak. Planoaren kopia bakoitzeko DIN A1	22,03 €
11. Planeamenduzko tresnak eta jendaurrean dauden proiektu partikularrak. Planoaren kopia bakoitzeko DIN A3	2,80 €
12. Egitasmoen dokumentuen kopiak, planoak izan ezik. Orriko	0,30 €
13. Administrazio-espediente baten kopiako:	
1. Artxibatutako espedientea	2,00 €
2. Tramitatzen ari den espedientea	0,30 €
14. Hiri izaeradun lurzoruen balioaren gaineko igoeraren gaineko zergaren behin behineko likidazioak. Unitateko	3,76 €
15. Udal akordioen ziurtagiriak (kopien kostua ez da sartzen)	
Azken bost urteak	4,11 €
5 urte baino gehiago.	9,40 €
16. Katastro zedula	3,76 €
17. Ordenantza Fiskalak. Aleko (Udaleko web orrialdeko deskarga doan)	18,79 €
18. Azterketa egiteko eskubidea. Deialdi bakoitzerako	20,00 €

Tasa ordaintzetik salbuetsita daude: Toki elkarteak, fundazioak eta Gobernu Kanpoko Erakundeak, beren izaera egoki frogatzen dutenak eta Udal edo Gobernuaren erregistro ofizialean inskribatuta daudenak.

Aldi berean, eskaeraren unean langabezian dauden pertsonak –egoera behar bezala egiaztatuta– salbuetsita daude 2. tarifyan jasotako agiriak konpultsatzearen eta azterketa eskubidearen gaineko tasa ordaintzetik.

II. Aplikazio-arauak

Tasen likidazioa eta ordainketa zerbitzua ematen denean edo udal jarduera egiten denean egingo da.



Administrazioak, hala ere, eskaria egiterakoan eskatu dezake likidazioa edo ordainketa egitea, baina behin behineko izaeraz eta azken kuotaren kontura.

Interesdunak eskatuta, dokumentuen kopia digitalak egiten badira, paperezko kopien tasa bera aplikatuko da. Salbu eta dokumentu hori aldeztu aurretik digitalizatuta badago, azken hori tasaren mende ez dagoen kasutzat hartzen baita.

Informazioa eskuratzeagatik sortutako tasen kasuan, tasaren likidazioa, eskuratzea gauzatzen den unean egingo da, autolikidazio bidez.

4. epigrafea. Hileta-zerbitzuak

1. Egitate zergagarria: Santikurutzeko udal kanposantuan ematen diren hileta-zerbitzuak dira egitate zergagarria, ordainarazpen tarifyan zehazten direnak eta, halaber, kanposantuaren aprobetxamendua.
2. Subjektu pasiboak: Baimena edo zerbitzua eskatzen dutenak, eta, hala balegokio, emandako baimenaren titularrak, beren oinordekoak, ondorengoak edo titularrak ordezkatzan dituztenak.
3. Tasaren sortzapena eta ordaindu beharra: zergapeko zerbitzuak ematen hasten diren unean sortuko da. Hau da, zerbitzuak eskaintzen direnean.

I. Zerga eta tarifapeko zerbitzuak:

Kontzeptua		Kuota
1	Hilerria erabiltzea	
	Lursailak eta leku urbanizatuak; m ² bakoitzeko.	797,79 €
	Horma-hilobiak erabiltzea (zerbitzuaren araudiaren arabera).	727,59 €
	Gorpuzkien horma-hilobiak erabiltzea (zerbitzuaren araudiaren arabera).	149,69 €
	Gorpuzkien horma-hilobietako azpildurak eta estalkiak.	73,83 €
	Hilotzen ehorztea	170,64 €
	Gorpuzki eta errautsen ehorztea	82,91 €
2	Gorpua hobitik ateratzea	
a	Panteoiak	
a1)	Lehenbizikoz hobitik ateratzea.	418,55 €
a2)	Une berean bigarren gorpua hobitik ateratzea.	209,18 €
a3)	Une berean bigarren gorputik aurrerakoak ateratzea, gorpu bakoitzeko.	104,57 €
b	Nichos	
b1)	Udalbatzak emandako denbora igarota.	Doakoa
b2)	Interesatuaren eskariz.	418,55 €
3	3.Gorpuen edo gorpuzkinen trasladoa (edozein delarik destinoa)	100,22 €
4	4.Panteoiak ixtea eta lurreko ehorzteen ixtea	175,35 €
5	5.Horma-hilobiak ixtea	100,22 €
6	6.3 m ² ko hilobia edo panteoia.	9.041,88 €

Panteoiak, hilobiak edo horma-hilobiak eskualdatzea.



Tasaren zerga-kuota kalkulatzeko, zerbitzu teknikoek emandako balioaren gainean ahaidetasunaren arabera ehuneko hauek aplikatu beharko dira:

Lehen maila	Doan
Bigarren maila	%4
Hirugarren maila	%8
Laugarren maila	%12

II. Aplikazio-arauak.

1. Orokorrean, obra-baimenak arautzen dituen Ordenantzan adierazitakoarekin bat etorriko behar du panteoiak edo hilobiak eraikitze baimenak eta, oro har, Udal-hilerrian edozein obra egiteko baimenak.
2. Hileta-eskubidea 5 urtez luzatuko balitz, hasieran jarritako 10 urteko hileta-eskubidea amaitu izanaren ondorioz eta, osasun-arrazoiak direla-eta, ezinezkoa izango balitz gorpuzkinak ateratzea. Zenbatekoa: Ordenantza hau arautzen duen tarifaren %50a, hau da, nitxo 10 urtez edukitzeko hileta-eskubidea.

5. epigrafea. Auto-taxien garraio-zerbitzua

1. Egitate zergagarria: Honako kontzeptuak dira egitate zergagarria:
 - a) Lizentziak ematea.
 - b) Lizentziak transmititzeko baimenak, legearen arabera eta indarrean dagoen araudiaren arabera egiten badira.
2. Tasa sortu eta ordaindu beharko da, Udalak lizentzia ematen duenean edo transmisioa baimentzen duenean, edo ibilgailua aldatzea baimentzen duenean.

I. Tarifak.

Kontzeptua	Kuota
Baimenak ematea, izapidetzea eta eskualdatzea.	1.400,00 €
Ibilgailuak erabiltzea eta ustiatzea.	69,63 €
Ibilgailuak ordeztzea	69,63 €

II. Tarifa aplikatzeko arauak.

1. Honako hauek tasak ordaindu behar dituzte nahitaez:
 - a) Baimena eskuratu duen pertsonak tarifak ordaindu beharko dituzte baimena eman, izapidetu, erabili eta ustiatzeagatik.
 - b) Baimenaren titularrak tarifak ordaindu beharko ditu, baimendutako ibilgailua aldatzen duenean.
 - c) Baimena eskualdatzen bada, baimenaren titular berriek ordaindu beharko dituzte tarifak.
2. Eskualdatzeko baimena eskaini bada, oro har, eskualdatze-tarifa arrunta ordaindu beharko da; salbuespen izango dira, ordea, baimena titularra hil delako eskualdatu bada eta onuraduna hildakoaren jaraunslea bada edota titularra erretiratu, eta haren ondorengo batek eskuratzen badu baimena.
3. Baita ere oinordekoen faborez bizien arteko eskualdaketak salbuetsiak egongo dira, lanbidea betetzea galarazten duen etorriko gaigabezi baten ondorioz badatoz, eta hau, Gizabanakoen Autonomia eta menpekotasun egoeran dauden pertsonenganako Laguntzaren Sustapenerako abendu-



aren 14ko 39/2006 Legeko 26. artikuluko menpekotasun graduei berdineskorra bada, eta esku-aldaketaren onuradunak minusbaliatua bere kargu hartzen badu aipaturiko legeko 18. artikuluko agindu bezala.

4. Ibilgailuaren ordeztzea tarifatik salbuetsia egongo da, Ibilgailu berria pertsona minusbaliatuei egokitzen den kasuan.

6. epigrafea. Azokako, azoka txikiko etab. etako zerbitzuak

Udalerri honetako salmenta-postuek, salmenta-etxetxoek, bankuek eta gainerako baserritar-azokek eta azoka txikiek egitate zergagarria dute.

I. Tarifa.

Kontzeptua	euro
Baserritar-azoka: baserriko produktuak saltzeko postuak.	Doakoa
Baserritar-azoka: bestelako produktuak saltzeko postuak; mahai eta egun bakoitzeko.	3,22 €
Azoka txikia: zapatuetan eta egun jakinetan produktuak saltzeko postuak: m ² eta zapatuko.	3,22 €

II. Aplikazio-arauak.

1. Zapatuko azoka txikiaren kasuan, asteko tasak hilabetez hilabete likidatu eta sortuko dira, erabili den denboraren arabera. Gainerako kasuetan, aldez aurretik ordaindu beharko da.
2. Salmenta-etxetxoak, postuak, eta gainerako zerbitzuak idatziz eskatu beharko zaizkio Durangoko Udalari.

7. epigrafea. Hirigintza-baimena ematea

1. Egitate ezargarria:

Tasa honen egitate ezargarria da: Eranskineko tarifetan aipatzen diren hirigintza-zerbitzuak eskaintzeko Udalak burutzen duen jarduera teknikoa eta administratiboa.

2. Subjektu pasiboa eta tributu erantzukizuna

a) Tasa honen subjektu pasiboak dira, zergadun modura, Ordenantza honen zerbitzuak eskatzen, eragiten edo baliatzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko aipatzen dituen pertsona fisikoak eta juridikoak eta entitateak.

b) Lurzoru eta hiri antolamenduari buruzko araudian aurreikusten diren hirigintza-baimenen tasei dagokionez, obretako eraikitzaileak eta kontratistak izango dira zergadunen ordezkariak.

c) Tributu-erantzukizunari dagokionez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 40. artikuluan eta hurrengoan ezartzen dena hartuko da kontuan.

3. Tributu kuota

Tributu kuota ateratzeko kontuan hartuko da Ordenantza honen eranskinean aipatzen diren tarifak edo zerga-motak.

4. Sortzapena

Tasa sortu ondoren, ordaindu beharra dator egitate zergagarria osatzen duen udal jarduera hasten den unean bertan. Honela, jarduera hasitzat joko da hirigintza-zerbitzuak eskatzen diren egunean, betiere, eskaria subjektu pasiboak egina bada.

5. Deklarazioa, likidazioa eta dirua sartzea

Hirigintza-zerbitzuren bat eskatzen dutenek, dagokion eskaria aurkeztu behar dute Udaleko Erregistro Orokorrean. Eskarian zehaztu egin behar dute zein eratako hirigintza-zerbitzua nahi duten.

- a) Tasaren likidazioa eta ordainketa organo kudeatzaileak bideratuko du, eta zergadunak edo zerbitzua jasotzen duenak ordainduko behar du.



- b) Edozelan ere, administrazioaren eskubideak bermatzeko, administrazioak likidazioa egin dezake edo ordainketa eskatu dezake behin behineko eskaria erregistratzen den unean bertan, halaxe ezartzen baitu Toki Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 27. artikulua.

I. Tarifak

Kontzeptua		Kuota
1	Erantzukizunpeko adierazpenera derrigortuta dauden obrak edo instalazioak egiteko baimenak ematea, (benetako kostu osoaren gainean).	% 0,67
	Gutxieneko tasa	25,00 €
1.	Exekuzio-aginduen tramitazioa (benetako kostu osoaren arabera).	% 1,31
1	Gutxieneko tasa	474,52 €
2	Zehapen-estudioa (eraikitako m ² bakoitzeko)	0,25 €
	Gutxieneko tasa	97,63 €
3	Hirigintzako partzelazioak eta birpartzelatzeak izapidetzea:	
3.	Hirigintza partzelazioetarako baimena	
1	3.1.a. 250 m ² arte, m ² bakoitzeko	1,58 €
	3.1.b. Gehieneko m ² bakoitzeko	0,11 €
	3.1.c. Gutxieneko tasa	253,64 €
3.	Birpartzelazio proiektuak	
2	3.2.a. Exekuzio unitateko 500 m ² arte, por m ² bakoitzeko	1,99 €
	3.2.b. Gehieneko m ² bakoitzeko	0,26 €
	3.2.c. Gutxieneko tasa	535,23 €
3.	Zatiketak lurzoru ez urbanizagarrian	
3	3.3.a. Zatitutako 1.000 m ² arte, por m ² bakoitzeko	0,46 €
	3.3.b. Gehieneko m ² bakoitzeko	0,01 €
	3.3.c. Gutxieneko tasa	237,03 €
3.	Desjabetzak parte batek hala eskatuta (balio justuaren arabera)	
4	3.4.1. Gutxieneko tasa	684,39 €
	3.4.2. Gehieneko tasa	3.421,94 €
3.	Eraikinei zatiketa horizontala egiteko baimena edo eraikinak finkatan bereizteko baimena.	
5	3.5.1. Gutxieneko tasa	156,41 €
	3.5.2. Zatiketako parte izango diren etxebizitza bakoitzeko, tasa handituko da.	32,32 €



Kontzeptua		Kuota
4	Batek eskatutako aurri-deklarazioa	
	4.1 Batek eskatutako aurri-deklarazioa	920,60 €
	4.2 Ofiziozko aurri-deklarazioa	1.083,62 €
5	Lehen erabilerako baimenak. Obraren azken likidazioaren %	% 0,49
6	Hirigintzako/jarduerarako/irekitzeko baimenen titulartasuna aldaketa	229,26 €
7	Instalazio osagarri bereziak: aire girotua, kamara frigorifikoak, galdera-gelak, erregaiei deposituak, X izpiak eta antzekoak	105,97 €
8	Hirigintza-informazio eta kontsultak, ale bakoitzeko.	158,13 €
9	Eduki urbanistiko edo ingurumenekoa duten egiaztagiria ematea, aurreko ata-lean sartutakoak izan ezik	
	9.1 Informe tekniko behar dutenak	37,09 €
	9.2 Informe tekniko behar ez dutenak	155,04 €
10	Zaratak neurtzea (Ikuskapen bakoitzeko)	282,34 €
11	Peritajeko informe tekniko. Informeko	90,35 €
12	Proiektudun obra egiteko baimenen egiaztapen administratiboa, baimenduta ez datozenean derrigorrezkoa ez delako.	224,68 €

II. Tarifak aplikatzeko arauak.

1. Baimena tramitatzearen, Udalak obrak onartzeren edo ezartzearen jatorria legeztapen prozesu bat edo exekuzio-agindu bat bada, ordenantza honen arabera, obrari dagokion tasari %50a gehituko zaio.
2. Udalari nahitaez laga beharreko lursailak direnean, titularrek ez dituzte ordaindu beharko Udalari dagozkion banaketak izapidetzeko tasak ez eta hirigintzako partzelazioko eta birpartzelazioko tasak ere.
3. %50eko hobaria izango dute irekiera-baimenetan eta obra-baimenetan langileen seme-alabentzat haurtzaindegiak dituzten enpresak.
4. Obrei dagokien tasaren %50eko hobaria izango dute alokairuan kudeatuko diren Babes Ofizialeko etxebizitzek (Viviendas de Protección Pública en régimen de alquiler).
5. Lokalak egokitzeko obrei dagokien tasaren %50eko hobaria izango dute, legeak ezarritako irisgarritasun neurriak betetzeko derrigortasuna izan ez arren, nahi dutelako betetzen dutenek.
6. %95eko hobaria izango dute lehendik dauden eraikinetan hegaztiekin habiak egin ez ditzaten barrerak jarriko diren obretan. Eraikinok interesdunak izan behar dute udalarentzat.
7. Baimen-emakidaren tasaren %60eko hobaria izango dute, ailegaerretasunari buruzko araudia betetzeko auzokideen erkidegoek jartzen dituzten igoigaluen obrek.
8. Komertzio edo ostalaritza lokaletako jardura edota irekitze baimenaren eskualdatzearen gaineko tasaren %100 hobaria izango dute senideen artean egindako titularitate aldaketek. Horretarako jardueran jarraipen bat ikusi behar da kontratua duen pertsona murriztu gabe (txikipean hori erretiro edo langile autonomoen erregimen berezian sartzeagatik badator hobaria aplikagarria izango da.).



9. Obra-baimenaren gaineko tasaren %90eko hobaria izango dute, jarduera enpresarial berriak has- teko egiten diren egokitze obrak.
10. Eskatutako baimena ukatzen denean eta, betiere, baimena eskatu duen establezimendua ez bada ireki, likidaturiko tasaren %30a itzuliko zaio interesatuari.
11. Zarata neurtzeko eskaeretan, eskaera, 3/1998 legearen arabera udal baimena duen edo behar duen jarduera batetan sorrarazten diren zaratengatik egiten bada, dohainik izango da.
12. %50eko hobaria izango dute ur beroan, berogailuan edo/eta argindarrean eguzki-sistemak, bio- masa edo/eta geotermikoak sartzen dituzten zaharberritze, mantenu, gaurkotze eta egokitze-la- nek. Nolanahi ere, hobari hau ez zaie aplikatuko eraikuntza-araudiak, derrigorrez, halaxe egitea eskatzen dien instalazioei.


Lehendik emandako baimen bati uko eginez gero edo baimen hau iraungita badago, berdin-berdin or- daindu beharko da. Halaber, eskatzaileak atzera egingo balu hasitako prozeduran, eta atzera egite hau espresuki adieraziko balitz eta txosten teknikoak egin aurretik aurkeztuko balitz, ordaindu beharre- koa %50a murriztuko litzateke.

8.epigrafea. Jarduera sailkatuak izapidetzeko zerbitzua, establezimenduen irekiera-baimenak eta baimen edo aurretiazko kontrolik behar ez dituzten jardueretan, legedi sektorialak ezarritako betekizunen bete- tzearen egiaztatpena.

1. Tasa honen zerga egitatea jarduera edota irekiera baimenak eman aurreko zerbitzu teknikoak eta administratiboak ematea da, eta baita ere lokalen irekierarako aurkezturiko aitorten erantzuleen ondorioz eragindako ikuskaritza edo geroagoko konprobapen zerbitzu administratiboan presta- kuntza.
2. Tasa hau dela eta, jarduera sailkatuen baimena eta irekiera baimena beharko dute honako estable- zimendu edota instalazio ez osagarriek:
 - a) Lokaletan lehenbizi instalatzen direnak.
 - b) Lekuz aldatzen diren establezimenduak.
 - c) Lokaletan egindako jarduera aldaketak.
 - d) Lokalen handitze-lanak.
 - e) Lokalik izan ez arren, jarduera ekonomikoa suposatzen duten instalazioak jartzea, aldatzea edo handitzea.
 - f) Jarduera sailkatuen lizentziak otsailaren 27ko, 3/1998 Legea aintzat hartuta, hau da, Euskal Herriko ingurumena babesteari buruzko lege orokorra.
3. Tasaren oinarri zergagarria lurzoruen balioa da, hau da, Ondasun higiezinaren gaineko zerga kon- tuan izanda jarduera egiten deneko lurzoruen azalerari dagokiona.

Oinarri zergagarria zehazteko, Hiri izaeradun lurzoruen balioaren gaineko zergaren balioak ezarriko dira. (Hiri izaeradun lurzoruen balioaren hazkuntza arautzen duen 4. Ordenantza Fiskalaren 8. artikulua).
4. Tributu-kuota honela ezarriko da: aurreko puntuan zehazturiko oinarri zergagarriari %6,32 ko karga-mota ezarrita. Edozein modutan, gutxieneko eta gehieneko zenbateko hauek jarriko dira:

Jarduerak	Gutxienez	Gehienez
50 m ² arteko jarduerak	391,40 €	581,51 €
51 m ² - 100 m ² arteko jarduerak	787,16 €	1.180,74 €
101 m ² - 200 m ² arteko jarduerak	1.562,57 €	2.343,86 €
201 m ² - 500 m ² arteko jarduerak	1.985,53 €	4.405,74 €
501 m ² - 1000 m ² arteko jarduerak	2.408,47 €	5.286,90 €




1000 m ² -tik gorako jarduerak	3.612,73 €	17.622,97 €
---	------------	-------------

5. 3. puntuari aipatutako karga-motak %50eko igoera izango du Euskal Herriko Ingurumena babesteko, otsailaren 27ko, 3/1998 Legeak aurreikusten duen tramitazioari lotutako baimen-emateei dagokienean (sailkaturiko jarduerak), gainerako lizentziei dagokienez 3. puntuari ezarritako gainditu ahalko da.
6. Baimena eman baino lehen, edo, aurretiazko kontrolik behar ez dituzten jardueren kasutan, ikuskaritza edo geroagoko konprobapen lanak hasi baino lehen eskatzaileak atzera egiten badu, ordaindu beharreko kuotak %20koak izango dira, beti ere, erreferente moduan hartuta aurreko ataletan ezarritakoa, eta udal jarduera dagoeneko hasita balego. Gutxienezko tarifa ezartzen denean ere, berdin-berdin aplikatuko da %20ko kuota.
7. Tasa sortzen eta ordaindu beharra dago, egitate zergagarria osatzen duen udal jarduera hasten denean. Kasu hauetan, jarduera hasitzat joko da jarduera baimen ez sailkatuari edo sailkatuari dagokion irekiera baimena eskatzen den egunean, beti ere, subjektu pasiboak halaxe eskatuko balu. Aurkezturiko aitortzen erantzuleen ondorioz irekitako lokaletan, zerga sortuko da ikuskaritza edo geroagoko konprobapen zerbitzu administratiboak prestatu ondoren.
8. Jarduera sailkatuen irekiera baimenak zergak sortuko dituzte 7. Udal Ordenantza honetako 8. epigrafearen kontzeptuagatik, kontzeptuok ez bikoizteko.
9. Establezimendua ireki bada dagokion baimena lortu barik, tasa sortuko da aipatutako establezimenduak bete beharreko baldintzak betetzen ote dituen egingo den udal jarduera hasten den unean. Nolanahi ere, eta aipatutako irekiera onargarria ez bada, establezimenduaren jardura baimentzeko edo itxiera agintzeko administrazio espedienteak bideratu daitezke gerora.
10. Ordaindu beharreko hori ez da ezertan aldatuko eskatutako baimena ematen ez bada edo baimena ematen bada establezimenduaren baldintzak aldatu behar izanaren baldintzapean. Halaber, ordaindu egin beharko da eskatzaileak atzera egiten badu baimena eman ostean, eta aurreko 6. puntuari ezartzen den kuotaren murrizketaren kaltetan izan gabe.
11. Tasatik salbuetsita egongo dira, ingurumen baimena behar duten industrien jardura eta irekiera baimenen eguneratzeak.

II. Tarifak aplikatzeko arauak.

1. Establezimenduaren azalera zehazteko, unitate bakarra eratzten duen azalera guztia hartuko da kontuan.
2. Jarduera-handitzeak, handitze honen arabera zergapetuko dira.
3. Establezimenduetan sutea gertatu bada, aurreko zorian daudela deklaratu bada edo bestelako ezinbesteko arrazoiren batengatik establezimenduak lekuz aldatu badira, ez dira tasak ordaindu beharko jardura espedienteak bideratzeagatik edo irekieragatik, ez eta lege-aginduak edo lege-xedapenak betetzeagatik lekuz aldatu direnean ere, betiere leku-aldaketa ez bada gertatu Administrazioak ezarritako baldintzak ez betetzeagatik edo zehapenen batengatik, eta gauza bera egingo hiriguneko industriak udalerriko industria poligonoetara eramaten badira.
4. Irekiera-baimena eskatzen dutenei %75-eko hobaria emango zaie epigrafe honetako 4. artikuluan, baldin eta eskatzailea pertsona fisikoa bada edo lan eza aurkitzen bada edo honako baldintza hauek betetzen dituen enpresa juridikoa bada:
 - a) Helbide soziala Durangon izatea
 - b) Zergak ordaindua izatea, gizarte segurantzakoak zein zuzenbide publikoaren gainerakoak.
 - c) Sozietatea eratu zen unean, langabetuen akzioez osatutako enpresak badira eta, gutxienez, akzio edo partizipazio guztien %50a badira. Jabeen Erkidegoen kasuan %50eko portzentajea aplikatuko zaie erkidegoaren kide kopuruari.
5. %50eko hobaria izango dute langileen seme-alabentzat haurtzaindegiak dituzten enpresak.



6. Lokala goitik behera berriztatzeagatik lizentzia berri bat tramitatu behar duten establezimenduen jarduera-lizentziak eguneratzeagatik ez da tasarik ordaindu behar izango.
7. Durangoko alde zaharreko eta gehienez 200 m² dauzkaten lokalek, beti ere aurreko urtean inolako jarduerarik eraman ez bada, tarifan %90-aren hobaria izango dute.
8. Gehienez 200 m² dauzkaten merkataritza eta ostalaritza lokalek, %50 hobaria izango dute ireki-baimenak ematerakoan edo ikuskaritza administratiboa egiterakoan.

9. epigrafea. Lizentziak eta mota guztietako baimenak ematea.

Bide publikoko lurzorua, hegalkinak eta lur-azpia edota udaleko lursailak eta jabetzak okupatzeko aprobetxamendu bereziko lizentziak edo baimenak ematen direnean, egitate zergagarria sortuko da. Aprobetxamendu berezi horren barnean daude, beraz, bide publikoan ipintzen diren mahaiak, aulkiak, mahai-hankabakarrak, haize-babesak, lorontziak, eguzkitakoak, hoditeria, kableak, erregistroak, aparkatzeko eta ibilgailuak finketara sartzeko erreserbak, bide publikoan saltzeko gailuak, aisia-gailuak, barrakak, zirkuak, etxetxoak eta abar. Epigrafe honetan sartzen dira, halaber, ura eteteko baimenak ere. Halaber, arrisku-tsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko baimenak eta jarduera sailkatuen irekiera baimenak ere, betiere, jarduera baimena eskuratu badute aldez aurretik (3/1998 legea)

Aurreko lerroaldean adierazitako aprobetxamenduen baimena ematen den unean bertan sortuko da ordaintzeko betebeharra.

I. Tarifa.

Bakarra: 48,81 euro


II. Tarifa aplikatzeko arauak.

1. Baimena edo lizentzia eskatzen denean ordaindu beharko da kuota, eta ordaindu bezain laster sartuko da indarrean.
2. Eskuratutako baimenak ez badira erabiltzen, ezingo da dirua itzultzerik eskatu.

10. epigrafea. Animaliak jasotzeko zerbitzua.

1. Durangoko udal-barrutian animaliak atzematea, identifikatzea, udal-aterpean edukitzea edo erraustea/eutanasia egitea, ekintza horiek egitate zergagarria sortuko dute. Animalia jasotzerakoan –jabearen baimenarekin zein gabe– tarifa ordaindu beharko da, animalia bide publikoan laga bada.
2. Pertsonaitsuak tasatik salbuetsiak egongo dira berreskuratutako txakurra itsu-gidaria bada.

Kontzeptua	Kuota
Animaliak atzematea.	60,00 €
Udal-aterpean egotea, eguneko	17,00 €



8. UDAL-JABETZA PUBLIKOA OKUPATZEKO TASAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

1. artikulua

Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera ezarri ditu udal honek udal-jabetza publikoaren aprobetxamendu bereziko edo erabilera pribatiboko tasen gaineko zerga, eta halaxe eskatuko du, ordenantza honekin bat (bertan jasotzen da tasak finkatzeko tarifen eranskina). Hori guztia, Toki Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

2. artikulua

Udal-barruti osoan aplikatzen da Ordenantza.

II EGITATE ZERGAGARRIA

3. artikulua

Egitate zergagarria da udaleko jabari publikoaren erabilpen pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.

III SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak, pertsona fisikoak eta juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zergei buruzko Foru Arauaren 35. artikulua aipatzen dituen entitateak dira, beti ere, toki jabari publikoa euren onurarako erabiltzen edo aprobetxatzen badute.
2. Espaloiak zeharkatuz ibilgailu egiten duten erabilera bakarreko edo aprobetxamendu bereziagatik eta horiek eraikitzea, mantentzea, aldaraztea edo ezabatzeagatik ezarri diren tasen kasuan zerga-dunaren ordezkioak izango dira ibilgailu horien sarbideen finka eta lokalen jabeak; hala denean horiek eskubidea dute kuota horiek onuradunei jasanarazteko.
3. Administrazio publikoek udaleko jabetza publikoak erabiltzen dituztenean, ez dituzte tasak ordaindu beharko, betiere zuzenean ustiatzen dituzten komunikazioetako zerbitzu publikoak eskaintzeko edota herri-segurtasunaren edo defentsaren aldeko zerbitzuak emateko erabiltzen badituzte udal-ondasunok.

5. artikulua

Ordenantza honek arautzen duen erabilpen pribatu edo aprobetxamendu berezian interesa duten pertsona edo entitatek, dagokion baimena eskatu behar diote Udal Administrazioari. Baimenik gabe ezin izango dute erabilpena edo aprobetxamendua gauzatu.

6. artikulua

Baimenen hartzaileek ordaindu beharko dituzte tasak, edo, bestela, aprobetxamendutik etekina ateratzen dutenek.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Salbuespenak edo beste hobari fiskalak ematerako orduan xedapen orokorretan ezarritakoa hartuko da aintzat.

V OINARRI ZERGAGARRIA


8. artikulua

Oinarri zergagarria jartzeko kontuan izango dira erabilpen pribatiboa edo aprobetxamendu berezia udal jabari publikoaren zein unitatetan egin den eta, beti ere, eranskinean ezarritakoaren arabera (Epigrafeak).

VI KUOTA

9. artikulua

1. Kuota edo tasaren zenbatekoa erabakitzeko kontuan izango da eranskinean aipatzen den tarifa (Epigrafeak), erabilpen, aprobetxamendu eta bide edo toki publikoaren kategoria kontuan izanik.



2. Erabilpen pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak udal jabari publikoa hondatzea eragiten badu, onuradunak, aplikatu dakioken tasa ordaindu behar izanaren kaltetan izan gabe, konponketan ordaindu beharko ditu. Dirua aldez aurretik dirua jarri beharko du.

Kalteak konponezinak balira, Udalak kalte-ordainak jasoko ditu izandako kalteen balioagatik.

Udalak ezin izango ditu barkatu, ez osorik ez zati bat, apartatu honetan aipatzen diren kalte-ordainak eta diru-ateratzeak.

10. artikulua

1. Elementuak edo gauzak instalatzeko, edota hasieran zeudenak aldatzeko, berritzeko, zabaltzeko edo murrizteko, beharrezkoa da udal-baimena edukitzea. Baimen hori eskuratzeko, ordenantza honetan ezarritako prezio publikoak ordaindu beharko dira, eta bien bitartean ezingo da ondasunak erabiltzen edo aprobetxatzen hasi.
2. Ez bada tasa ordaintzen, baimena ezeztatu egingo da automatikoki.

11. artikulua

Ordenantza honetan araututako tasak ez daude lotuta lizentziak eta bestelako baimenak emateko Tasak Arautzen dituen Ordenantzaren arabera ordaindu beharrekoekin.

12. artikulua

Baimenik izan gabe ondasunak erabiltzeagatik edo aprobetxatzeagatik zehapen-erregimena ezarri ahal izango du Udalak. Halakorik gertatzen bada, baimena izanez gero ondasunak erabiltzeagatik edo aprobetxatzeagatik legozkiokeen tasen zenbatekoa ordaindu beharko du beti arau-urratzaileak, eta, horrekin batera, bestelako zehapenei eta erantzukizunei ere aurre egin beharko die, bidezkotzat jotzen bada.

13. artikulua

Baimenak ez duenean aprobetxamenduaren iraupena zehazten, baimena luzatu egiten dela ulertuko da, baja-aitorpena aurkezten ez den bitartean.

14. artikulua

Gauzak edo elementuak kendu ostean, interesatuek erabilerako edo aprobetxamenduko baja-aitorpena aurkeztu behar dute Udal-administrazioan, eta, hura ados badago, baja aurkezten denetik hurrengo hila-betean sartuko da indarrean; ordua arte, nolanahi ere, prezio publikoak aplikatuko dira.

15. artikulua

Aprobetxamendu edo erabilpenetan titularitate-aldaketa ematen bada, esleipendunak, titular berriaren datu pertsonalak eta helbidearen berri emango dio Udal Administrazioari, eta Ordenantza honek eskaturiko bestelakoak ere bai. Aipatutako notifikazioa egin ezean, bertan behera geratuko da emandako lizentzia, eta baimen berria eskatu beharko zaio Udal Administrazioari.

VII. SORTZAPENA.

16. artikulua

Ordenantza honek arautzen dituen tasak ordaintzeko beharra, aprobetxamendu berriei dagokienez, erabilpen pribatua edo aprobetxamendua berezia ematen den unean hastean da, eta, gainerako kasuetan, dagozkion tarifetan zehazten diren aldi bakoitzaren lehenengo egunean.

VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRU-SARRERA

17. artikulua

Udalak kontzeptu bakoitzeko egin beharreko likidazioa egingo du. Likidaturiko kopuruak eranskinetako ordainarazienetarako ezarritako arau berezien arabera egingo da (Eranskinak).

Honela ordainduko dira tasak:

1. Aprobetxamendu berriak direnean, baimena onartu aurretik ordainduko da.



2. Lehendik emandako eta luzatutako aprobetxamenduak badira, hiruhileko naturaletan ordainduko dira, urteko aprobetxamenduak direnean izan ezik, kasu horietan urte natural bakoitzean ordainduko baitira, dagozkien matrikuletan sartu ostean.

18. artikulua

1. Aprobetxamenduaren emakidunari leporatu ezin dakizkiokeen arrazoiengatik ez denean tasa ordaintzen, itzuli egingo zaio dagozkion zenbatekoa.
2. Interesatuak ezin egotz dakizkiokeen funtsezko arrazoiengatik baimena erabiltzeari uko egiten badio, Administrazioak ordaindu zaion zenbatekoa itzuli ahal izango dio, betiere, aprobetxamendu horrek ez baditu beste aprobetxamendu batzuk oztopatu.

ERANSKINA

0. epigrafea. Hesiak, aldamioak, eskorak eta astoak

1. Egitate ezargarria

Hesiak, aldamioak, eskorak, astoak, edukiontziak eta antzeko beste elementuak edo instalazioak erabilera publikoko lursailetan ipintzean egindako aprobetxamendu bereziek sortzen dute egite zergagarria.

2. Subjektu pasiboa

Aprobetxamenduaren helburu diren finken, lokalen edo establezimenduen jabeek edo ustiatzaileek ordaindu beharko dute egitate zergagarria. Horiez gain, erabilera publikoko lursailetan elementuak txertatzen dituzten pertsona natural zein juridikoak erantzule solidarioak izango dira, eta, ondorioz, zerga ordaindu beharko dute. Gainera, aldez aurretik hainbat datu aurkeztu beharko dute idatziz, hala nola, zein elementu ipini behar duten, zein ezaugarri dituen, zenbat neurtzen duen eta zenbat deboraz erabiliko den.

3. Sortzapena


Tasaren sortzapena eta ordaindu beharra zerbitzuak ematen hasten diren unean bertan burutuko dira. Zerbitzuak hasi, eskaria egiten den unean hasten dira.

4. Zerga onarria

Hesi, aldamio edo antzeko elementuen bidez bide publikoan okupaturiko, mugatutako edo gainetik hegan egindako metro karratuak tasaren oinarritzat hartuko dira. Bide publikoaren ustiapena hesi edo aldamiorekin gain, publizitatearekin aurrera eramaten bada, okupazioari buruzko tarifyn oinarritutako likidazioari beste bat erantsiko zaio hesi edo aldamioan publizitateko errotulu edo iragarki kartela okupatzen dituen metro karratuak edo bere zatikia kontutan hartuz (5.tarifa).

I. Tarifak.

Kontzeptua	Euro
1. Hesiak, aldamioak, garabiak, oholesiak, harresiak, hesitik kanpoko eskorak edo astoak, bide publikoan edo hegalkinean finkatutako aldamio-babesak eta aldamio zintzilikatuak; m ² edo metro-zati bakoitzeko eta hamabostaldi edo horren zati bakoitzeko.	4,04 €
2. Eduki-ontziak edo obra-hondakinak eta obrako materialak edo tresnak uzteko bestelako elementuak; m ² edo metro-zati bakoitzeko eta egun bakoitzeko.	9,99 €
3. Eraikuntza-obretarako beharrezkoak diren etxetxoak eta roulotak, laneko segurtasuneko eta higieneko araudiarekin bat, eta, materialak edo antzekoak uzteko eduki-ontziak (ez hondakinak); m ² edo metro-zati bakoitzeko eta egun bakoitzeko.	2,47 €
4. Obrak seinaleztatzeko adierazleak; ale eta egun bakoitzeko.	0,52 €
5. Publizitate-oholak; m ² eta hileko.	39,14 €



II. Tarifak aplikatzeko arauak.

%95eko hobaria izango dute lehendik dauden eraikinetan hegaztiak habiak egin ez ditzaten barrerak jarriko diren obretan. Eraikinok interesdunak izan behar dute udalarentzat.

Epigrafe honetan aipatutako obrak hilabetetik gora eteten badira arrazoi justifikaturik gabe, tarifak aplikatzerakoan sortutako zenbatekoa % 100 handituko da bigarren hilabetetik aurrera; obrak amaituta, aprobetxamenduak jarraitzen badu, berriz, % 200 gehituko zaio zenbatekoari.

Obrak hasiko edo amaituko direla adierazi beharko zaio Durangoko Udaleko Udaltzaingoari egunean bertan.

1. epigrafea. Ibilgailua finketara sartzeko sarbideak eta bide publikoan aparkalekua erreserbatzea

1. Egitate ezargarria

Egitate ezargarria da: Udal jabari publikoaren aprobetxamendu berezia ibilgailuak espaloitik zehar sartzeko eta aparkalekua gordetzeko.

Hainbat faktore hartzen dira aintzat egitate zergagarrian: igarobideen kopurua, horien ezaugarriak, igarobide bakoitzaren erabiltzaileen kopurua, ibilgailuen mota eta kopurua eta aparkalekuen luzera.

2. Subjektu Pasiboa

- Subjektu pasiboak dira, zergadun modura, jabari publikoa norberaren onurarako erabiltzen duten Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua aipatzen dituen pertsona fisikoak eta juridikoak eta entitateak.
- Ibilgailuak edo gurdiak espaloitik zehar sartu eta espaloiak egin, zaindu, aldatu edo kentzeagatiko erabilpen pribatu edo aprobetxamendu bereziari dagozkion tasen zergadunen ordezkioak izango dira, ibilgailuen sarrera ahalbidetzen dituen finka eta lokaletako jabedunak; eta hauek, hala balegokio, dagozkion onuradunei egotzi diezazkiekete tasak.

3. Sortzapena

- Espaloitik zehar ibilgailuak sartzeagatiko eta aparkalekua gordetzeagatiko tasa, aprobetxamendu berezia sortzen den unean bertan sorraraziko da eta, gerora, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean.
- Aparkalekua gordetzeko plaka jartzeagatiko tasa, plaka jartzen den unean bertan sorraraziko da.
- Zerga-aldia urte naturala da, aprobetxamendu berezia hasi edo utzi den kasuetan izan ezik. Haue-tan, zerga-aldia dena delako zirkunstantziari egokituko zaio, eta dagokion hainbanaketa egingo da.
- Jabari publikoaren aprobetxamendua gauzatzen ez bada subjektu pasiboari egotzi ezin dakizkion arrazoiak direla-eta, dagokion diru-kopurua itzuliko da.

I. Tarifak.

Kontzeptua	Kuota
1. Etxebizitzetako eraikinetan kokatutako garajeetako igarobideak, ibilgailuak gordetzeko edo parking gisa erabiltzeko garajeetakoak.	
a) 10 plaza arteko garajeko igarobide bakoitza.	15,00 € plaza bakoitza
b) 11 eta 25 plaza arteko garajeko igarobide bakoitzeko.	13,50 € plaza bakoitza
c) 26 eta 50 plaza arteko garajeko igarobide bakoitzeko.	12,00 € plaza bakoitza
d) Hortik aurrerako plaza bakoitzeko, aurreko epigrafeari kopuru hau gehituko zaio.	10,50 € plaza bakoitza
2. Industrietako edo dendetako igarobideak, metro lineal edo zintarri-zati bakoitzeko.	34,89 €
3. Obrengatik edo antzeko egoerengatik jarritako igarobide baimenduak; sartzeko behar den metro lineal bakoitzeko, hilabete edo hil-zati bakoitzeko.	14,87 €



4. Aparkaleku-erreserbak; metro lineal edo zati bakoitzeko (taxiak eta gisakoak).	59,57 €
5. Autoen pasabideko erreserbak direla adierazten duten plakak.	84,64 €

II. Tarifak aplikatzeko arauak.

1. Pasabidetzat hartuko da (zintarri alakadunaren luzera), pasabidearen zabalera lau metro edo lau metro baino gutxiago denean. Zabalera handiagoa bada, lau metroko kopuru hori erabiliko da zenbait pasabide ateratzen diren erabakitzeke.
2. Zintarrian neurtutako pasabideen zabalera ezingo da eraikinak edo lokalak daukan sarbidearen pasabidearen laurdena baino handiagoa izan.
3. Espaloia zintarria jaitsita edo kenduta ez badago, luzera guztia neurtuko da, hau da, lokalaren edo orubearen sargunearen luzera erabilgarri guztia.
4. Igarobideak epigrafe bati baino gehiagori badagozkio, tasa altuena duena aplikatuko zaio lehenengoari, eta, gainerakoari dagozkion tasen % 50.
5. Espaloiko igarobideen zabalera zehazteko, beheratutako zintarriaren metro linealak hartuko dira kontuan, halakorik badago.
6. Lokal berak bi sarrera edo gehiago baditu, lehenengoak hari dagokion tarifak ordainduko ditu, eta gainerakoei % 50eko beherapena egingo zaie dagokien prezio publikoaren gainean.
7. Igarobideak ezartzeko, mantentzeko, berritzeko edo kentzeko gastuak eta aparkalekuak erreserbatzeko gastuak eskatzaileek ordainduko dituzte; euren kontura joango dira, orobat, horiek seinaleztatzekeko gastuak.
8. Ordenantza honetan, ibilgailua sartzeko plazen gehienezko kopurua hartuko da aintzat.
9. Igarobideak 4 eta 6 metro artekoak direnean (biak barne), % 25 handituko da tarifa; 6 metrotik 8 metro artekoetan, berriz, % 50 handituko da.
10. Ekitaldiaren barruan altarik badago, geratzen den ekitaldi-zatiari dagokion tasa likidatuko da, alegia, alta-baimena ematen den egunetik ekitaldiko azken egunera doan denboraldiari dagokiona. Interesatuaren eskariz, ibiari baja ematen bazaio, ez da dirurik itzuliko.

2. epigrafe. Jabego publikoa hainbat instalaziotan okupatzea

1. Egitate ezargarria

Egitate ezargarria da Udaleko jabari publikoa era pribatuan edo aprobetxamendu berezien bidez erabiltzea.

2. Subjektu pasiboa

Subjektu pasiboak dira, zergadunak diren aldetik, Bizkaiko lurralde historikoko Zergei buruzko foru arauaren 35. artikulua aipatzen dituen pertsona fisikoak eta juridikoak eta entitateak, betiere, jabari publikoa euren onurarako erabiltzen badute.

3. Sortzapena

Udaleko jabari publikoaren erabilpen pribatuari edo aprobetxamendu bereziari dagokion tasa, egitate ezargarriaren izaeraren arabera, erabilpen pribatua edo aprobetxamendu berezia hasitakoan sortuko da.

Tasaren izaera dela-eta, tasa aldizka sortuko balitz, lehen sortzapena, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean izango da.

I. Tarifak.

Kontzeptua	Kuota
1. Erakusleihoak, bitrinak, erakusgaiak, eguzki-oihalak, markesinak, kartelak, panelak eta antzeko elementuak ipintzea, kutxa erregistratzaileak, erregaiei harguneak, arketak, transformadoreak eta antzerako elementuak; m ² eta urte bakoitzeko.	15,93 €




2.1 Bide publikoa terraza-beladorrekin okupatzea, mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, mazetak, albo-babesak barne, m ² -ko eta urteko baimeneko. 3. mailako kaleetarako (EJZn sarturiko mailaren arabera)	31,31 €
2.2 Bide publikoa terraza-beladorrekin okupatzea, mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, mazetak, albo-babesak barne, m ² -ko eta urteko baimeneko. 2. mailako kaleetarako (EJZn sarturiko mailaren arabera). 3. mailako kalearen zenbatekoa x 1,30	40,71 €
2.3 Bide publikoa terraza-beladorrekin okupatzea, mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, mazetak, albo-babesak barne, m ² -ko eta urteko baimeneko. 1. mailako kaleetarako (EJZn sarturiko mailaren arabera) 3. mailako kalearen zenbatekoa x 1,40	43,83 €
3. Barrakak, zirkoak, etxetxoak eta ferietako bestelako gailu guztiak; m ² eta egun bakoitzeko.	1,29 €
4. Kutxazain automatikoak, kutxa gotorrak eta antzekoak jartzea; ale eta urte bakoitzeko.	753,85 €
5. Ondasun eta zerbitzuak moneta bidez automatiko saltzeagatik, (tresna horiek okupatzen dituzten aurrealdeko metro linealen arabera edo okupatzen dituzten aurrealdeko azaleraren arabera).	15,93 €
6. Udaleko eraikin publikoen erabilpen pribatu edo aprobetxamendu berezia, m ² eta egun bakoitzeko, beti ere erabilpen hori jarduera ekonomikoa sortarazten badu.	5,50 €
7. Aurreko epigrafeetan jaso ez diren bestelako okupazioak; m ² eta urte edo zati bakoitzeko.	0,52 €

II. Tarifak aplikatzeko arauak.

1. Edozelako okupaziorengatik ordaindu beharreko gutxieneko eskubideak eta tasak –aipatutako tarifetan jasotakoak 19,99 eurokoak izango dira (eskubideak).
2. Kuota horien ordeaz, beste batzuk ezarri ahal izango dira enkante edo akordio jakinen bidez, Durangoko Udalak komenigarritzat jotako aprobetxamenduetan.
3. Instalazioak jabetza pribatuko muga-lerrotik kanpora bertikalki ateratzen direnean, bide publikoa okupatzen ari dela joko da beti, eta bide publikoan dagoen elementu edo gauza horren neurriak hartzeko garaian, elementu osoa neurtuko da, Udaleko bide publikoan zati bat besterik egon ez arren.
4. Honela neurtuko da:
 - a) Elementu finkoak direnean, horien hedadura osoa hartuko da aintzat.
 - b) Elementu mugigarriak edo zabalgarriak direnean, gehieneko zabalera neurtuko da.
 - c) Erakusleihoak eta bitrinek bide publikoa hartzen badute, horien azalera guztia neurtuko da, dimentsio handienak oinarri hartuta, bai luzeran bai zabalera –armazoiaren bastido-reak barne.
5. Kafetegiak, tabernak, jatetxeak, hotelak, dastalekuak, dantzalekuak, ikuskizun-guneak, etab. dira eta, horietan egoten diren eguzki-oihaletan eta markesinetan dagozkien tarifak ezartzeaz gain, 100eko 100 gehituko zaie tarifei.
6. Atal batean baino gehiagotan jasotako artikulatuak saltzen direnean, horietatik tarifa garestiena duena ordaindu beharko du titularrak.
7. Arau orokor moduan, kobrantza egingo da dokumentua ematen denean, hau da, dena delako okupazioa baimentzen denean; nolahi ere, izaera iraunkorreko baimena behar duten okupazioen kasuan edo behin behineko lizentziak behin betiko bihurtzen direnean, kobrantza era kolektiboan egin daiteke, urteko aldizkakotasuna duten izaera fiskaleko dagokion eroldaren bidez.

Aipatutako erroldan administrazio-baimenean bildutako zerga-elementuak jasoko dira, eta notifikazioa egiteak errolda fiskalean alta eman dela esan nahi du.



Alta, baja eta aldaketen komunikazioak, eta beraiei atxikitako betebeharrak formalak, okupazio bakoitzaren gaineko dagokion udal kudeaketa ordenantzak jasoko dira.

Interesatuak merkataritzako edo industriako jardueran aritzeko baimena ematen dion dokumentua eskuratzen duen unean ordaindu beharko du kuota.

8. Urteko lizentziak emateagatikoko kuotak finkoak eta hainbenezinak dira, merkataritzako edo industriako jardueran aritutako denbora zeinahi dela ere. Bide publikoan terrazak eta mahaiak jartzea arautzen duen udal Ordenantzak ezarritako denboraldi erdirako lizentzien kasuetan, kuotak emandako okupazio epearen arabera banatuko dira.
9. Kontzeptu honegatikoko tasaren subjektu pasiboak bide publikoaren aurrean dauzkaten instalazio berrien deklarazioa aurkeztu behar dute martxan jarri eta hurrengo hilabetearen barruan.

Toki domeinuaren narriadura. Erabilera edo ustiapen bereziak toki domeinu publikoaren suntsiketa edo narriadura eragintzen badu, onuradunak dagokion tasa ordainduz gain, berreraiketa eta konponketa kostu osoak ordaindu eta bere zenbatekoaren aurretiazko gordailua egin beharko ditu.

Kalteak konponezinak balira entitateari kalte-ordaina eman beharko dio, suntsitutako ondasunen balioa edo kaltetutako ondasunen narriaduraren balorazioa bere zenbatekoa izanik. Aipaturiko kalte-ordain eta itzultzeak guztiz edo partzialki barkaezinak izango dira.

3. epigrafea. Bide publikoko lurzorua, hegalkinak eta lur-azpia modu pribatuan edo aprobetxamendu bereziz erabiltzea

1. Egitate ezargarria

Egitate ezargarria da: Udaleko bide publikoko lurzorua, hegalkinak eta lur-azpia modu pribatuan edo aprobetxamendu bereziz erabiltzea.

2. Subjektu pasiboa

- a. Subjektu pasiboak dira, zergadunak diren aldetik, Bizkaiko lurralde historikoko Zergei buruzko foru arauaren 35. artikulua aipatzen dituen pertsona fisikoak eta juridikoak eta entitateak, betiere, jabari publikoa euren onurarako erabiltzen badute.
- b. Tasak, dagozkion baimenen jasotzaile direnek ordaindu beharko dituzte, edo, bestela, aprobetxamenduaren onura ateratzen dutenek.
- c. Aipatutako zerbitzuen enpresa ustiatzailatzat hartzen dira, banaketaz eta salerosketaz ardurtzen diren enpresak.

3. Aplikazio arauak

- a. Aurreko paragrafoetan edo lurzoruen okupazioa, hegalkina eta lurpe publikoa kargatzen duten beste ordenantza espezifiko batzuetan ez bada aurreikusten kasuan kasuko aprobetxamendua, aprobetxamendu bidez ordainduko da: okupatutako lursailaren balioaren % 15, urteko 77,83 euroko gutxienekoarekin.
- b. Aipatutako kuotak enkante edo akordio espezifiko bidez ordeztu ahal izango dira, Durangoko Udalak komenigarritzat jotzen dituen aprobetxamenduetan.
- c. Aipatutako kuotak aplikatuko dira, okupazioa modu jarraituan zein aldizka egiten bada.
- d. Aprobetxamenduak beste titular batek bereziki okupatutako espazio bat aldi baterako erabiltzea badakar, hari aplikatu beharreko murrizketak ere bere gain hartu beharko ditu.

4. Sortzapena

- a. Eskubideak ordaindu beharko dira dagokion baimena ematen denean edo, hala balegokio, egitate ezargarria osatzen duten elementuak aprobetxatzen direnean.
- b. Aprobetxamendua administrazioaren enkante bidez egiten denean, aldi berean ordainduko da.
- c. Tasa urtero sortzen da.



Gainerako aprobetxamenduetan, Ordenantza Fiskal Orokorrak biltzen duen diru-bilketa araudia aplikatuko da eta, honen ordez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Diru-bilketa Araudia.

I. Tarifak.

	Kontzeptua	Kuota
1	Bide publikoko lurzorua, hegalkinak eta lur-azpia aprobetxatzea; baita, kableak, hoditeria, errailak, banaketa-geruzak, etab. dituzten udal-ondasunak ere (Erabilitako ondasun publikoaren balioaren arabera)	% 16,78
2	Aireko kableak, hariak eta lineak; metro lineal eta urte bakoitzeko.	0,06 €
3	Filmaketa zinematografiko, publizitate-filmaketa eta antzekoetarako bide publikoen erabilera pribatiboa. Metro koadroko eta eguneko	0,14 €

4. epigrafea. Hornikuntza-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek Udaleko bide publikoko lurzorua, hegalkinak eta lur-azpia modu pribatuan edo aprobetxamendu bereziz erabiltzea

1. Egitate ezargarria

Egitate ezargarria da: Hornikuntza-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek Udaleko bide publikoko lurzorua, hegalkinak eta lur-azpia modu pribatuan edo aprobetxamendu bereziz erabiltzea.

2. Subjektu pasiboa

- Subjektu pasiboak dira, zergadunak diren aldetik, Bizkaiko lurralde historikoko Zergei buruzko foru arauaren 35. artikulua aipatzen dituen pertsona fisikoak eta juridikoak eta entitateak, betiere, jabari publikoa euren onurarako erabiltzen badute.
- Tasak, dagozkion baimenen jasotzaile direnek ordaindu beharko dituzte, edo, bestela, aprobetxamenduaren onura ateratzen dutenek.
- Aipatutako zerbitzuen enpresa ustiatzailatzat hartzen dira, banaketaz eta salerosketaz arduratzen diren enpresak.


3. Oinarri ezargarria

- Tasaren oinarri zergagarria ezartzeko kontuan hartuko dira hornikuntza-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerrian urtero fakturatzen dituzten diru-sarrera gordinak.
- Diru-sarrera gordintzat hartuko dira dena delako entitateak udalerrian eginiko zerbitzuetatik ateratzen direnak.
- Ez dira diru-sarrera gordinen artean sartuko emandako zerbitzuei dagozkien zerga ez zuzenak, ezta ere, hirugarrenen kontura kobratu diren partidak edo kopuruak, baldin eta hauek entitatearen diru-sarrera moduan kontabilizatzen ez badira.

Halaber, fakturaziotik ateratzen diren diru-sarrera gordinen artean ez dira sartuko Ekonomia Ministerioaren argindarra ekoizteko instalazioen administrazio erregistroaren 1. eta 2. sekzioetan izena emanda dauden instalazioetan erabiliko diren hornikuntza-zerbitzuek jasotako diru-kopuruak, hots, erregimen berezi honen ondorioz tributatu daitekeen argindarra sortzeko beharrezko materia prima moduan izena emanda daudenak.

- Hornikuntzak egiteko beste sare batzuk erabiltzen dituzten enpresek deduzitu egingo dituzte euren fakturazioen diru-sarrera gordinetatik beste enpresa batzuei sareetara konektatzeko kontzeptupean ordaindutako diru-kopuruak. Aipatutako sareen enpresa titularrek aipatutako kontzeptuagatiko zenbatekoak konputatu beharko dituzte euren fakturazioaren diru-sarrera gordinen barruan.
- Zergei buruzko Foru Arauaren 92. artikulua eta Bizkaiko lurralde historikoko Ikuskatze Araudiaren 37. artikulua ezartzen dutena aintzat hartuz, sareen enpresa titularrek Udalak eskatu dakiekeen informazioa aurkeztu behar dute sareetara konektatzeko kontzeptupean beste enpresa batzuetatik jasotzen dituzten diru-sarrerari buruz

4. Tributu kuota



- a) 1.- Tributu kuota honakoa izango da: udalerrian urtero fakturatzen duten diru-sarrera gordinen %1,5a.
- b) 2.- Aprobetxamendu bereziaren ondorioz jabari publiko apurtu edo hondatzen bada, onuradunak, ordaindu beharreko dagokion tasa ordaindu behar izanaren kaltetan izan gabe, konponketa-lanen ondorioz sortutako kostu osoa ordaindu beharko du, eta kopuru hau aldez aurretik jarri beharko du.

Kalteak konponezinak balira, Udalak apurtutako edo hondatutako ondasunen balioaren diru-kopurua bera jasoko du kalte-ordain modura.

Udalak ezingo ditu barkatu, ez zati bat ez osorik, apartatu honetan aipatzen diren kalte-ordainak.

5. Sortzapena

- a) Hornikuntza-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek Udaleko bide publikoko lurzorua, hegalkinak eta lur-azpia modu pribatuan edo aprobetxamendu bereziz erabiltzeagatik sortzapena, aprobetxamendu berezia hasitakoan sortuko da eta, gerora, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean. honako enpresa hauek hartuko dira kontuan
- b) Jabari publikoa erabiltzen ez bada subjektu pasiboari eragotzi ezin dakizkiokeen arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko beharko da.
- c) Hornikuntza-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, aurreko hiru hilabetean lortutako diru-sarrera gordinei buruzko aitorpena aurkeztu behar dute Udalean hiru hilabete bakoitzeko lehenengo hamabost egunen barruan. Aitorpenarekin batera, udalerrian egindako fakturazioari buruzko egiaztagiriak aurkeztu behar dituzte eta, halaber, Udal Administrazioak eskatu dakiekeena
- d) Udal administrazioak hiru hilabeteko likidazioak egingo ditu. Hauek, behin behinekoak izango dira dagozkion egiaztapenak egiten diren bitartean. Egiaztapenak egin ostean, interesatuari jakinaraziko zaio. Borondatezko epea amaitu ostean, premiamenduzko bideari ekingo zaio.
- e) Edozein kasutan, behin behineko likidazioak behin betiko bihurtuko dira aurreko artikulua aipatzen duen aitorpena aurkezten den egunetik hiru urte igarotakoan.
- f) Tributu arau-hauste eta bere kalifikazioei dagokienez, 2/2005 Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak eta Ordenantza Fiskal Orokorrak ezartzen dutena aplikatuko da.
- g) Hornikuntza-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek Udaleko bide publikoko lurzorua, hegalkinak eta lur-azpia modu pribatuan edo aprobetxamendu bereziz erabiltzeari dagokionez, honako enpresa hauek hartuko dira kontuan:
 - i) Energia elektrikoa, ura edo gasa hornitzen dituzten enpresak.
 - ii) Jendearentzako telekomunikazio zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak, beti ere, Udaleko bide publikoko lurzorua, hegalkinak eta lur azpia modu pribatuan edo aprobetxamendu bereziko sare publikoen bidez erabiltzen badituzte, eta kontuan izan gabe sareen edo instalazioen titularitatea.
 - iii) Bestelako hornikuntza-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak, baldin eta Udaleko bide publikoko lurzorua, hegalkinak eta lur azpia erabiltzen badituzte hodi, kable eta bestelako instalazioen bidez.

5. epigrafea. Trakzio mekanikozko ibilgailuak udalerriko kaleetan aparkatzea horretarako zehaztuko diren gunetan eta jarri daitezkeen mugekin eta, halaber gune murriztuetarako sarbidea.

I Tarifak.

1. Trakzio mekanikozko ibilgailuak udalerriko kaleetan aparkatzea horretarako zehaztuko diren gunetan eta jarri daitezkeen mugekin eta, halaber, gune murriztuetarako sarbidea. Tarifak minutuka aplikatuko dira, aparkatu eta 15.minututik hasita.
 - 15 minutura arte: 0,20 €
 - 15 min - 60 min, minutuko 0,013333333 € ... Beraz, 60 minutu eginda, 0,80€
 - 60 min - 90 min, minutuko 0.023 € Beraz, 90 minutu eginda, 1,50€



- 90 min - 120 min, minutuko 0.033 €Beraz, 120 minutu eginda, 2,50€
- 120 min - 180 min, minutuko 0.04166667 € Beraz, 180 minutu eginda, 5,00 €
- 180 min - 240 min, minutuko 0.045 €Beraz, 240 minutu eginda, 7,70 €
- Egoiliarren txartela: 60,60 euro
- Gremioen txartela: 129,89 euro
- Salaketak baliogabetzea: 12,00 euro

II Tarifa aplikatzeko arauak

1. Tasa honi dagozkion guneak eta ordutegia, udal akordio bidez zehaztuko dira, eta behar bezala ezagutaraziko dira.
2. Zerbitzua ematerako orduan aintzat hartuko dira honi buruzko udal akordioek ezartzen dutena.
3. Erabilpenari dagozkion baldintzak eta aparkatzeko gehieneko denbora Ordenantza arautzaileak ezarriko ditu.
4. Tasa honi buruzko ordainagiriak gune bakoitzean jarriko diren makinetan eskuratu ahalko dira. Makinok behar bezala iragarriko dira eta nola erabili ere azalduko da.
5. Egoiliar-txartelaren ordainketa ordenantzaren arabera egokituko da.
6. Alta urtealdiaren barruan emango balitz, hainbanaketa egingo da hiru hilabetea eta urtealdia amaitu arte. Alta eman izan deneko hiru hilabetea ere zenbatuko da.

6 Epigrafea) Udal Hornidura Merkatuaren erabilera pribatiboa, administrazio-emakidaren titularren alde.

I. Egitate zergagarria.

Egitate zergagarria da Udal Hornidura Merkatuko postuak administrazio-emakida duten pertsona titularrek erabilera pribatibo moduan erabiltzea. Administrazio-emakidak postuaren erabilera pribatua eta instalazioaren elementu komunak erabiltzea ahalbidetzen du.

2. Subjektu pasiboa

Tasa honetako subjektu pasiboak dira Udal Hornidura Merkatuan administrazio-emakida bidez postu bat duten titularrak.

3. Sortzapena

Hornidura-merkatua modu pribatiboan erabiltzeagatik tasa erabilera pribatiboa hasten denean sortuko da.

Tasaren izaera materialak tasa aldizka sortzea eskatzen duenez, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean egingo da.

4. Oinarri zergagarria, likidagarria, kuota eta tarifak


1. Tasa honen oinarri zergagarria, oinarri likidagarriaren igoala izango dena, postu bakoitzaren azalera erabilgarriaren arabera ezarriko da.
2. Tributu-kuota ondorengo tarifa aplikatzen etorriko da:

I. Tarifa.

Postuko (urteko) metro koadro erabilgarri bakoitzeko 112,68 euro.

II. Tarifak aplikatzeko arauak

1. Arau orokor gisa, kobrantza egingo da pertsona interesdunari postua okupatzeko baimen-agiria ematen zaion unean; nolana ere, kobrantza era kolektiboan egin daiteke urteko aldizkakotasuna duen izaera fiskaleko dagokion erroldaren bitartez.



Errolda horrek administrazio-baimenean bilduriko zerga-elementuak jasoko ditu, eta notifikazioa izango da errolda fiskalean alta emanda dagoenaren adierazlea.

Alta, bajak eta aldaketak jakinarazteko erregimena, hala nola, berauei loturiko betebeharrak, okupazio bakoitza kudeatzeko dagokion udal ordenantzan jasoko dira.

2. Urteko kuota finkoa da eta ezin da hainbanatu, eta osorik sortuko da postu bakoitzaren iraunaldia edozein delarik ez.
3. Udal jabari publikoa hondatzea: erabilera pribatiboak edo aprobeixamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitzea edo hondatzea dakarrenean, pertsona onuradunak, dagokion tasa ordaindu behar izanaren kaltetan izan gabe, konponketa-gastu guztiei egin beharko die aurre, eta dirua aldez aurretik jarri beharko du gordailuan.
4. Kalteak konponezinak balira, ondasun hondatuen balioaren zenbateko bera ordaindu beharko dio hondatzaileak entitateari, eta ezingo dira ez partzialki ez osorik barkatu ez kalteordainak ezta diru-itzultzeak ere.



10. BIDE PUBLIKOAN IBILGAILUAK IBILGETU, LOTU ETA HANDIK KENDU ETA HAIEK ZAINTEAGATIKO TASAK ARAUTZEKO ORDENANTZA.

1. artikulua. OINARRIA ETA JITEA

Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauak xedatutakoari jarraiki, ibilgailuak bide publikotik kendu, ibilgetu eta haiek zaintzeagatiko tasa finkatu eta exijitzen du udal honek. Tasa hori zerga-ordenantza honek artatuko du, aipatutako Foru Arauaren 21.4z artikuluan xedatzen denari jarraiki.

2. artikulua. EGITATE ZERGAGARRIA

Egitate zergagarria da ibilgailuak bide publikoan ibilgetu, lotu eta bertatik kentzeko udal-zerbitzuen prestazioak eskatzen dituen bitarteko pertsonal eta materialak baliatzea, bai eta ibilgailuak horretarako zehaztu diren dependentzietan edukitzea eta zaintzea ere.

3. artikulua. ORDAINDU BEHARRA

Ordaindu beharra aurreko artikuluan aipatzen diren zerbitzuen prestazioak eragiten du.

4. artikulua. SUBJEKTU PASIBOA

1. Zergadun jiteko subjektu pasiboak izango dira Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, ordenantza honek araupetzen dituen udal-zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onuradun direnean.
2. Administrazio-jarduerak edo zerbitzuak subjektu pasiboa ukitzen duela edo hari dagokiola ulertuko da, zuzenean edo zeharka, hark eragina denean, haien jarduerak edo ez-egiteek udala jarduerak ofizioz egitera edo zerbitzuak ematera behartzen dutelako.
3. Solidarioki, tasa hau ordaintzera behartuta egongo dira udalaren esku-hartzea eragiten duten ibilgailuen jabeak, erabiltzaileak eta edukitzaileak, titulua zeinahi delarik.

5. artikulua. ZERGA-OINARRIA

Zerga-oinarria unean uneko zerbitzuaren edo jardueraren benetako kostuak edo ustezkoak osatuko du; kontuan hartuta zerbitzuaren edo jardueraren guztizko kostua osatzen duten gastu zuzenak edo zeharkakoak, bai eta finantza-jitekoak, ibilgetuaren amortizaziokoak eta aplikagarri diren bestelako gastu orokorrak ere, dagokion zerbitzu edo jarduera-motaren eta ezaugarriak eta tasa ordaintzera behartuta dauden subjektuen gaitasun ekonomikoa aintzat hartuta.

6. artikulua. ZERGA-KUOTA

Ordaindu beharreko kuota honako tarifa hauek aplikatzearen ondoriozkoa izango da:

KONTZEPTUA		(Euroak)
1) IBILGAILUAK IBILGETZEA		
	A) Bizikletak eta ziklomotoreak	19,09 €
	b) Motozikletak, moto-gurdiak eta antzeko bestelako ibilgailuak	26,53 €
	c) 1.000 kg-ra bitarteko tarako beste ibilgailuak	40,74 €
	d) 1.000 kg-tik gorako tarako beste ibilgailuak	68,46 €
	e) Ibilgailua zepo bidez ibilgeturik dagoen egun edo zatiki bakoitzeko	41,93 €
2) GARABIAREN IRTEERAGATIK OHIKO ORDUTEGITIK KANPO, IBILGAILUA ERAMAN GABE. ZERBITZUA ERAGIN DUEN PERTSONAK ORDAINDU BEHARREKOA.		38,83 €
3) BIDE PUBLIKOAN IBILGAILUAK GARABIRA LOTZEAGATIK		
	a) Bizikletak eta ziklomotoreak	14,20 €
	b) Motozikletak, moto-gurdiak eta antzeko bestelako ibilgailuak	20,37 €



KONTZEPTUA		(Euroak)
	c) 1.000 kg-ra bitarteko tarako beste ibilgailuak	45,63 €
	d) 1.000 kg-tik gorako tarako beste ibilgailuak	53,08 €
4) IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENTZEAGATIK		
	a) Bizikletak eta ziklomotoreak	29,00 €
	b) Motozikletak, moto-gurdiak eta antzeko bestelako ibilgailuak	45,63 €
	c) 1.000 kg-ra bitarteko tarako beste ibilgailuak	93,75 €
	d) 1.000 kg-tik gorako tarako beste ibilgailuak	120,29 €
5) IBILGAILUAK UDAL-BILTEGIETAN EGOTEAGATIK, EGONALDIA HASTEN DEN EGU-NEKO HAMABI ORDUETATIK JABEAK HARTZEN DUEN ARTE. EGUN BAKOITZEKO		
	a) Bizikletak eta ziklomotoreak	2,40 €
	b) Motozikletak, moto-gurdiak eta antzeko bestelako ibilgailuak	4,84 €
	c) 1.000 kg-ra bitarteko tarako beste ibilgailuak	9,65 €
	d) 1.000 kg-tik gorako tarako beste ibilgailuak	18,68 €

7. artikulua. SORTZAPENA

Tasa eta ordaintzeko betebeharra egitate zergagarria osatzen duen udal-jarduera edo zerbitzua abiatzen denean sortuko dira.

8. artikulua. SALBUESPENAK

Tasa hau ordaintzetik salbuetsirik egongo dira lapurtutako ibilgailuak. Inguruabar hori arrazoi horrengatik egindako salaketaren kopia emanez egiaztatu beharko da.

9. artikulua. KUDEAKETA


Ibilgailuen biltegiatzea ez da amaituko dagokien tasa ordaindu arte edo, kasu bada, Bizkaiko Tokiko Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauak xedatzen duenaren arabera, zenbatekoa utzi arte.

Tasa aplikatu izanak ez du baztertzen zirkulazio-arauak edo Udaltzaingoarenak hautsi izanak eragin ditzakeen isunak ezartzea.

Udalak, trafiko, motorezko ibilgailuen zirkulazio eta bide segurtasunari buruzko, urriaren 30eko, 6/2015 Errege Dekretu arau-emaileak ezarritako arautegia aplikatuko du eta, halaber, 10/1998 Legea, apirilaren 21ekoa, hondakinei buruzkoa. Beraz, aipatutako arautegietan ezarritako epeak iraungi ostean, ibilgailua abandonatua izan denari buruzko espedienteari ekingo dio, eta hiri hondakin solido bezala tratatuko du.

10. artikulua. ARAU-HAUSTEAK ETA ISUNAK

Zerga arau-hausteak kalifikatzeari dagokion guztian eta haien gaineko isunei dagokienean, Kudeaketa, Zerga-bilketa eta Ikuskaritzari buruzko zerga-ordenantza orokorrean xedatutakoari eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaie.



XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuen foru-arauek edo zuzenean aplikatzekoak diren beste edozein arau edo xedapenek Tasa arautzeari egiten dizkieten aldaketek ordenantza fiskal honen aldaketa tazitua ekarriko dute.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2024ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Legeak aurreikusitako izapideak betetakoan.